



## KLASIKOAK, IZAR

150 ibilgailutik gora espero dituzte 25 urtetik gorako ibilgailuen bigarren topaketan, Arrasaten, domekan / 12

Goiena Classic Clubeko kideak Arrasateko Arruena parkean, astelehenean, euren automobil klasikoekin, Goienari egindako aurkezpenean. XABI GOROSTIDI

# Caritas: gizarte-bazterkeriari aurre egiten

Bihar, zapatua, tailer okupazionala inauguratuko dute Arrasaten, egoera larrian dauden pertsonei gizarteratzen laguntzeko helburuarekin / 3






**Indartsu dator Lanbai Enplegu eta Formazio Azoka, 150 lan-eskaintza baino gehiagorekin / 2**

**Miguel Altuna Institutu berria 2018-2019 ikasturterako gertu izango dela aurreikusi dute / 26**

**Betaurreko moreekin landutako 'Turtukiña': artea, kultura eta beste batzen dituen fanzinea / 28**

**23 kilometroko ibilbidea gainditu beharko dute bihar Eskoriatzan, Gabez Takarraran eginda / 38**

### SINADURAK

	XABI IGOA / 23
	ANAJE NARBAIZA / 8
	JOSU ZUBIA / 34
	GAIZKA ERAÑA / 10
	AINZANE OIARBIDE / 48

**puntu** Maddalen Iriarte EH Bilduko kideari elkarrizketa  
+ Bainurako alternatibak Debagoienean



**Hemen GARBIKETAK**

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

Intxaurtxueta 16, behea  
ESKORIATZA  
T. 943 71 48 45  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)  
[hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

# 150 lan-eskaintzatik gora Lanbai azokan

Dagoeneko 47 enpresak eman dute izena Mondragon Unibertsitateak antolatutako Lanbai Enplegu eta Formazio Azokaren V. ediziorako; horietatik 39k lanerako elkarrizketak egingo dituzte ekainaren 22an; eta interesdunak hasi dira izena ematen

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Ekainaren 22an, Arrasaten, Garaia Berrikuntza Gunearen 11. eraikinean, 10:00etatik 14:00etara.

Orduantxe egingo dute aurtengo Lanbai azoka, zifra esanguratsuekin datorrena: 47 enpresa, 150 lan-eskaintzatik gora. Eta 47 enpresetatik 39k egingo dituzte lan-elkarrizketak, bakoitzak hamasei, 10:00etan hasi eta 13:45ak arte, 15 minutuan behin.

Iazko azokaren ondoren, 50 lan-kontratu egin ziren; orain dela bi urtekoaren ondoren, 45.

Aurkezpen txartel horrekin datorren Lanbai Enplegu eta Formazio Azokarako izen-ematea zabalik dago ekainaren 2az geroztik. Eta bizkor ibiltzea komeni da. "Ekainaren 20a aurretik eman behar da izena. Zenbat eta geroago, orduan eta enpresa gehiago egongo dira beteta", jakinarazi du Susana Azpilikueta, Mondragon Unibertsitateko Komunikazio koordinatzaileak.

## Formazioa, enplegua eta beste

Azokak lau gune izango ditu: formazio gunea, enpresa gunea, lan-poltsa gunea eta elkarrizketa gunea. "Formazio eremuan egongo da MUko standa, unibertsitateko eskaintzarekin. Enpresen eremuan, curriculumak jasotzen egongo dira 47 enpresa, eskola,



Iazko Lanbai azoka, jendez beteta; 350 lan-elkarrizketa egin zituzten. GOIENA

## Tailerrak, hiru egun lehenago

Azokaren aurreko hiru egunetan –ekainaren 19an, 20an eta 21ean–, Mondragon Unibertsitateko Enplegurako Orientazio Zerbitzuak hiru tailer egiteko aukera eskainiko du, Arrasaten, Kulturaten. Lehena da *Marka pertsonala: nola etekina atera lan elkarrizketa batean zure kompetentziak eta enpresak behar dituenak azalduz*; bigarrena, *Curriculum eta lan elkarrizketa*; eta hirugarrena, *Hautaketa prozesuak*. 15-25 lagunendako lekua izango da; beraz, izena ahalik eta lasterren ematea komeni da.

Tailer horiek egin ditzakete azokara doazenez eta baita ez doazenez ere. Era berean, tailerrok osagarriak dira elkarren artean, baina banaka ere egin daitezke. Oro har, lan bila ibiliz gero, "oso kontuan hartu beharreko" edukia landuko dute bertan.

komunikabide... Eremu irekia da; nahi duten guztiek dute aukera bertan curriculumak lagatzeko. Lan-poltsen eremuan, berriz, egongo dira Arrasateko Udala, Debagoieneko Mankomunitatea, Gipuzkoako Ganbera, MUko Enplegurako Orientazio Zerbitzua eta ikasle ohien elkarteak, Eures eta Lanbide. Eta azkenik, elkarrizketen eremuan egongo dira 47 enpresetatik 39 elkarrizketak egiten, bertan azaltzen diren lan eskaintzetarako. Elkarrizketetarako hitzordua eskatu behar da eta hitzordua ematen da eskaria egin duenak curriculumean jasota badu enpresak eskatu duen profila. Espazio intimoagoak dira, non ordu laurden izango duten curriculumak uzteaz gain, elkarrizketa egiteko", esplikatu du Azpilikueta.

## Orotariko lanpostuak

Eskainiko dituzten lanpostu horiek izango dira "unibertsitate mailako tituludunendako, heziketa zikloak dituztenendako, goi-erdi mailakoak... adibidez, Grupo Uvescok (BM supermerkatuak) behar ditu kutzazain eta apal-betetzailleetatik hasi eta kudeaketa arloan diharduten pertsonetarako. (...) Gureak-ek eta Lantegi Batuek lanpostuak dituzte, baita ezgaitasuna duten pertsonendako ere. Hori ere kontuan hartzekoa da", azpimarratu du MUko Komunikazio koordinatzaileak. Izena emateko: *lanbai2017.mondragon.edu*. "Aukera apartekoa da ikasleendako, ikasketak bukatu dituztenendako edo lanean egon eta enpresaz aldatu nahi duten horiendako".

MUk Arrasateko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren eta Mondragon Korporazioaren babesarekin antolatutako azoka da Lanbai.



UBANE MADERA

## "Enpresetan jende bila dabilta"

**SUSANA AZPILIKUETA**  
KOMUNIKAZIO KOORD.

Fagor, Eroski, Aita Menni, Matz Erreka, CAF, Irizar, IK4 Tekniker... Enpresa asko izango dira.

### Enpresa ezagunak datoz.

Bai, izendunak. Azken bi edizioetan egon ez diren enpresak daude, eta eurek eskatu dute etortzea. Hau da, enpresetan jende bila dabilta. Beharra badago. Gainera, bailaratik kanpoko enpresak ere badatoz.

### Esan daiteke Lanbai erreferentziatzat dela?

Bai. Aukera ematen du ikasketa maila guztietako jendearekin egoteko, ez bakarrik unibertsitate mailakoekin eta unibertsitateak lantzen dituen ezagutza profiletakoekin. Bisitariendako eta enpresentzako irekia da, bertan aurki ditzaketen pertsona profil desberdinengatik.




**Oinarrizko lanbide heziketa:**

- Sukaldaritza eta jatetxe arloa

**Erdi mailako zikloak:**

- Sukaldaritza eta gastronomia
- Jatetxe arloko zerbitzuak
- Okingintza, gozogintza eta konfiteria

**Goi mailako zikloak:**

- Sukalde-zuzendaritza

**Aurrematrikula: ekainaren 5etik 16ra**

Presagana kalea 1 behe, 01013 Gasteiz  
Tel.: 945 25 80 25  
gamarra@gamarraeskola.com | www.hosteleriagamarra.com



Xabier Jorrin, Agurne Juldain, Fernando Laspiur –boluntarioa– eta Jagoba Larrañaga –Alaya Taldeko teknikaria–. A.T.

## Bihar inauguratu, eta uztailean martxan jarri

Bukatu dituzte otsailean hasitako egokitze lanak gizarte-bazterkeria egoeran dauden 75 pertsonari laguntzeko helburua duen Caritasen tailer okupazionalan; asteon azken garbitze eta txukuntze lanak egiten aritu dira, bihar 12:00etan inauguratzeko

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

1.000 metro karratu ditu Caritasen Kataide industrialdean erositako pabiloiak, eta bi solairutan banatuko dute. Goian laguntza sozialak egokitu dituzte eta sukaldia eta jangela daude. Sarrera ondoko geletan, berri, eskolak emateko tokia eta bulego bat egokitu dituzte; eta beheko solairuaren atzeko aldean, komunak, aldagelak eta garbitze zerbitzua jarri dute. Lehen solairuko gainontzeko leku guztia tailerrerako esparrua izango da. "Aste honetan azken txukuntze lanak egin ostean, guztia prest dugu inauguraziorako", adierazi du Agurne Juldainek, Caritasen Bidean proiektuko arduradunak.

Aurrez, Caritasen Arrasaten eta Bergaran egiten zuen lan eta bertan eskaintzen zituen parrokiatoko gaztelaniazko saioak eta formazioko beste saio batzuk. Uztailetik aurrera, ordea, ekintza horiek guztiak pabiloi berrian egingo ditu Caritasen,

eta Debagoien mailako zentroa izango da.

### 75 pertsonari laguntza

Gaur egun, gizarte-bazterkeria egoeran dauden 60 pertsona ingururi ematen dio laguntza Caritasen, baina, esan bezala, Bidean proiektuaren bitartez, 75 pertsonari lagundu ahal izango die. Pertsona hauek Elay, JMA eta Rodamientos Eder enpresendako egingo dute lan, baina ekoizpena ez da helburu nagusia, enplegarritasuna baizik: "Erreminta edo aitzakia moduan erabiltzen dugu hau, pertsona hauek zeregin bat izan dezaten. Gure helburua ez da ekoizpena, baizik eta pertsona hauen enplegarritasuna eta formazioa, dizipli-

### DEBAGOIENEN 60 BOLUNTARIO ARITUKO DIRA LAGUNTZA LANETAN, UZTAILETIK AURRERA

na bat har dezaten", azaldu du Juldainek.

Helburu hauek lortzeko bidean, 60 Debagoieneko 60 boluntario arituko dira laguntza lanetan, tailer okupazionala martxan jartzen denean.

### Apustu garrantzitsua

Caritasendako apustu garrantzitsua izan da bihar inauguratuko duten pabiloia. "Caritasen horrelako baliabideak Donostialdean izan ditu orain arte, Sarea Fundazioaren bitartez –formazioa eta laneratzeko tresna–. Lehenengo pausu honekin Gipuzkoako zonalde desberdinetara egiten du saltoa eta eskaintza zabaldu egiten du", azpimarratu du Xabier Jorrin Debagoienek Caritasen koordinatzaileak. Hala, Bidean proiektua ere Sarea Fundazioak kudeatuko du.

Alaya Taldeak egin du obra, 300.000 euroko aurrekontuarekin, eta pabiloia erosteko beste hurrenbeste gastatu du Caritasen.

## Biharko ekitaldira joateko deia egin du Gure Esku Dagok

Ekitaldi nazionala egingo dute bihar, zapatua, Bilbon eta autobusak jarri dituzte herritarrek bertara joateko

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Ekitaldi nazionala egingo du bihar, Bilbon, Gure Esku Dagok, eta galdeketa burutu dituzten 142 herrietako ordezkariak bertaratzeke dei egin dute.

Pasa den zapatuan eman zuten ekitaldi nazionalaren berri, Eibarren. "Ezinezkoa zirudiena egia bihurtu dugu. Gaur hemen bildu garenok ordezkatzeko ditugun herrietan milaka lagunek demokraziaren eta herritarren burujabetzaren aldeko jarrera erakutsi dute", adierazi zuen Gure Esku Dago ekimenak.

Hau da helarazi nahi duten mezua: "Erabakitzeke prest gaudete eta libreki eta demokratikoki galdetuak izan nahi dugu Euskal Herriaren etorkizun politikoa erabakitzeke. Inoiz ikusi gabeko galdera ikur erraldoia osatuko dugu denon artean. Beste mugarri bat jarriko dugu Herritarren Ituna aurkeztearekin batera. Bilbon bilduko ditugu gaur arte sortutako borondate konpromiso eta ilusio guztiak. Horregatik, herritarrei dei egiten diegu parte hartu dezaten egingo dugun mosaikoan".

**erabili euskarara**

HONDARTZAN  
MENDIAN  
KANPINEAN  
JAIETAN  
IGERILEKUAN  
OPORRETAN  
BIDALETAN  
KIROLEAN

Matrikula epea  
**ZABALIK**

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**16/17 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK**

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
Bidebarrieta, 18-behea Oñati.  
Tel.: 943 78 24 96 • euskaltegia@onati.eus

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza, 2.  
Tel.: 943 79 70 77 • euskaltegia@arrasate.eus

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53 • euskaltegia@bergara.eus

# "Erronkaz beteta" du Goienak ikasturte berria

Atzo, eguena, egin zuen Goiena Komunikazio Taldeak kooperatibaren urteko ohiko batzarra; diru kontuen zuriketa, kudeaketa plana eta 2017-2018 ikasturterako aurreikuspenen berri eman zuten; adibidez, inbertsioak egingo dituzte telebistan

## Ubane Madera DEBAGOIENA

"Parra amaitu dugu 2016a, eta galerarik ez izatea pozgarria da. Goiena osasuntsu dago, eta, gainera, erronkaz beteta. Ilusioz ikusten dut, esku artean gauza pilo ditugulako, alor sozialean, profesionalean, baita enpresa moduan. Pertsonalean bagabiltza lotzen egonkortasuna, epe larri baten ondoren; alor profesionalean bagoaz aurrerapausoak egingo: edizio sistema ezarriko dugu, platoa berri dugu, GOIENA aldizkariak orri gehiago ditu... Enpresa moduan, egonkortasuna lortu dugu azken urteotan, eta, euskal gizartearekiko, Tokikomen bitartez aurrerapausoak eman



Hemen Debagoiena saioaren une bat, atzo, eguena. GOIENA

ditugu. Beraz, oso balorazio positiboa egiten dut". Goiena Komunikazio Taldeko presidente Aitor Izagirrek horrela laburbildu du 2016-2017ko Goienaren jarduna, kooperatibaren urteko batzar orokorraren bueltan.

## Ikus-entzunezkoetara saltoa

Atzo, eguena, egin zuten bilkura, Arrasaten, Kulturaten. Bertan aurkeztutako puntuen artean, besteak beste, 2017ko kudeaketa plana jarri zen mahai gainean, bazkideen onespenerako.

Hain justu, bertan esplikatu zituzten Goienako presidente Izagirrek azpimarratutako erronka horietako batzuk: telebistaren ohiko jardunetik ikus-entzunezkoetara salto egiteko erronka, balio erantsidun programak sortzeko helburuarekin. Eta telebistarekin jarraituz eta digitalizazioa helburu, inbertsio berriak egiteko asmoa azpimarratu zen, besteak beste, Muru eta Bergara arteko lotura digitala gauzatu ahal izateko.

## Prentsan, edizio sistema

Osterantzean, prentsarekin lotuta, aspaldiko nahietako bat

gauzatzea lortuko da aurten: edizio sistema ezartzea. Tokikom toki komunikabideen bateragunearen kolaborazioarekin lortuko da helburu hori; bestela esanda, Goienarekin batera, Tokikom osatzen duten bestelako toki komunikabideetan ere ezarriko da edizio sistema bera, "horrek ekarriko dituen abantailekin", azpimarratu du Iban Arantzabalek, Goienako zuzendari nagusiak.

Bestalde, tokiko hedabideen arteko elkarlanak sendotze bidea segituko du, besteak beste, txiki-nendako edukiak partekatuko direlako *Plazan bazan* Interneteko atariaren bitartez.

## Sarea, kalitatea eta banaketa

Sare kontuekin segituz, "sareko jardunean -*Goiena.eus* atarian-, adierazleak implementatuko ditugu eta horren arabera eduki batzuk aukeratu ahal izango ditugu", esplikatu du Arantzabalek. Bestalde, "kalitate parametroak jarriko ditugu Euskalitekin batera hainbat arlotan, eta gure kateko azkeneko tramua den banaketan ere inbertsioak egingo ditugu", gaineratu du zuzendari nagusiak.

## Elikagaien industriarekin lotutako ikasketetan lan aukera zabala dago

Elikagaien sektoreko enpresetan egiten diren lanen kontrola eramateko gaitasuna bereganatzen dute ziklo hau ikasten duten ikasleek. Laborategietako teknikari, I+G+b arloko teknikari, ekoizpen prozesuko ikuskatzaile edo kudeaketa sistemak ezartzeko arduradunak ere izan daitezke.



**Jon Azkue,**  
(Lezama, 1989).  
Elikagaien Industriak zikloa ikasi ondoren, gaur egun DENTICI enpresan kalitate ardurekin lanean ari da.



**Patricia Arina,**  
(Lekeitio, 1973).  
Nekazaritzako Ingeniaritza egin ondoren, Elikagaien Industriak zikloa ikasi zuen eta gaur egun elikagaien industrien arloan irakasle lanetan ari da.



**Veronica Calzado,**  
(Donostia, 1980).  
NORTINDAL enpresan lanean dabil, kalitateko kide, IFS taldean, eta titulazio ofiziala lortzeko Elikagaien Industriak zikloa ikasten ari da.



Markina-Xemein  
94 616 90 02

info@leartik.com  
www.leartik.com

# "Denbora eta borondatea dugu zubiak eraikitzeke"

**PELLO URIZAR** EA-KO IDAZKARI NAGUSIA

Eusko Alkartasuneko idazkari nagusi izaten jarraituko du Pello Urizar arrasatearrak, domekako botazioan Maiorga Ramirezek baino boto gehiago eskuratuta

**T.M./M.T.** DEBAGOIENA

EAKo idazkari nagusia hautatzeko domekako botazioan, botoen %52,4 eskuratu zituen Pello Urizar arrasatearrak eta Maiorga Ramirezek, berriz, %47,6; hamalau botoko aldea izan zen.

**Nola baloratzen duzu kongresuaren ostean EAn geratu den egoera?**

Arrisku batekin sartu ginen, bazelako aukera EH Bildutik ateratzeko. Lan garrantzitsua egin dugu, eta, azkenean, akordio batera heldu ginen, zeinetan arrisku hori baztertu zen. Alde horretatik, sartu ginena baino hobeto atera ginela uste dut. Akats larria izango litzateke hainbeste urtetako inbertsio politiko horretatik ateratzea.

**Aukerarik izan duzu Maiorga Ramirezekin hitz egiteko?**

Bai. Uste dut halakoetan garrantzi handiegia ematen zaiola ordezkariari eta izen-aurpegi horiek izandako babesari. Niretzako, garrantzitsuena ildo politikoa eta helburuak dira. Zoritxarrez, atal horretan ez zen egon zerrenda bateratu bat egiteko aukerarik. Agian, ez genuen behar beste landu, eta egia da Maiorgak eskaintza bat egin zidala, baina bozketari hasi baino ordu laurden lehenago izan zen. Zuzendaritza bat lantalde bat bezala ikusten dut, eta talde horren osaketarako gutxieneko konfiantza eta enpatia batzuk beharrezkoak dira. Azken orduko akordioa kromo aldaketa izango litzateke, eta ez dut uste hori denik modua.

**Ze paper izan dezake beste ildoak zuzendaritza berrian?**

Zuzendaritzan herrietako eta erakunde desberdinetako ordez-

**"ZUZENDARITZA BAT LANTALDE BAT BEZALA IKUSTEN DUT, ETA KONFIANTZA BEHARREZKOA DA"**



Pello Urizar, Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia. UBANE MADERA

<b>ULMA</b>	Grupo ULMA, S. Coop.	Oñati
<b>OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIA</b>		
Eguna: 2017ko ekainaren 16a		
Ordua: 10:00etan lehen deialdia eta 10:30ean bigarrena		
Tokia: MU-Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)		
<b>GAI ZERRENDA</b>		
1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2016KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2017KO GESTIO PLANA ETA KOSTU MANKOMUNATUA DUTEN JARDUERA ETA ZERBITZUEN AURREKONTUA BERRESTEA		
3. 2016KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA		
4. 2016KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA		
5. POGU III-N KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI BURUZ ARI DEN III. IDAZPURUAREN ALDAKETA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIO		
6. POGU III-REN II. IDAZPURUAREN 1.4 ATALA ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIKO 82. ARTIKULUAREN 8. ETA 9. ARTIKULUEN ALDAKETA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIO, PIZGARRI KOLEKTIBOAREN KALKULURAKO ERREFERENTZIA Taulak EGUNGO EGOERARA EGOKITZEKO		
7. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIKO 27.BI, 28.BI, 29.BAT ETA 29.LAU ARTIKULUEN ETA ESTATUTU SOZIALETA KONTSEILU SOZIALEKO KIDEEN AGINTALDIA EZARTZEN DUEN 48. HIRU ARTIKULUAREN ALDAKETA BERRESPENA, HALA BADAGOKIO		
8. ULMA TALDE MAILAN APLIKAZIO OROKORREKO ETA ARAUDI IZAERAKO GAIEI BURUZ KOOPERATIBA BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIEK HARTUTAKO ERABAKIAK BERRESTEA		
8.1 2016an IPDK-etik egindako erabilerari buruzko deskargua		
8.2 2017an IPDK-k aplikatzeko proposamena		
8.3 Bazkide berrien kapitalera ekarpenak		
8.4 Kapitalaren ordainketa		
8.5 Menpeko Finantza Ekarpenean jaulkipena		
9. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA		
10. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA		
11. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA		
12. AHALMENAK ESKUORDETZEA		
13. GALDE-ESKEAK		
<b>OHARRAK:</b> Bazkideei gogorarazten zaie Grupo ULMA, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.		
Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskuragarri Estatutuetan proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.		
<b>KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA</b> Oñati, 2017ko maiatzaren 15a		

kariak ere badaude. Hortaz, hor aukera dago; hortik aparte, idazkaritza bakoitzak sortuko dituen lantaldeetan parte hartzeko eta ekimen desberdinak aurrera eramateko aukera ere badago, denbora eta borondatea badauzkagu zubiak eraikitzeke.

**Hirugarrenez aukeratu zaituzte. Pertsonalki, zer da?**

Konfiantza hori izatea ohorea izaten da, baina, aldi berean, ardura bat. Proiektu konkretu batekin hasi ginen 2009an, eta ordutik egoera guztiz aldatu da; esparru soberanista bat sortu dugu. Orain, EH Bildu egonkortzeko azkenengo bultzadarako agertu nuen konpromisoa.

**Gaur egun ze indar dauka EAK?**

Sarri galdetzen didate EAK ze aukera izango litzuzkeen bidea bakarrik eginaz. 2009an Bildu eratzeko apustua ez zen izan momentu konkretu horretarako soilik. Helburua euskal estatua sortzea da, justizia sozialean oinarrituta eta bakea eta giza eskubideak aldarrikatuko dituen. Luzerako lana.

**EH Bildu alderdien arteko koalizio izatea adostu zenuten akordio politikoan.**

Alderdien federazio moduan erregistratuta dago; koalizioa baino zerbait gehiago da. Barne eraketa nola egin gure esku dago. Asmoa da mugimendu ireki bat bezala funtzionatzea. Horren esparru politiko zabala barne hartu nahi badugu, ezin daiteke izan soilik klabe instituzionalean. Etorkizunean beste sektore zein norbanakoak barne hartzeko aukera izango da.

**Sentsazio onak daukazue?**

Ñabardurak egon daitezke, baina EH Bilduren ibilbide berri honen ezaugarri nagusia adostasuna eta eskuzabaltasuna da. Erabakiguneetan, lau eragileok pisu bera daukagu.

**EH Bilduren egitura berrian koordinatzaile izateko Arnaldo Otegi da hautagai bakarra.**

Aurkeztu den hautagaitza sei pertsonaz osatutakoa da. Izen desberdinak proposatu genituen, Maddalen Iriarte tarlean, eta, azkenean, akordio batera heldu gara. Orain, lantalde sektorialetan sartuko diren beste hogeit hamar pertsonak aukeratzea falta da. Eragileekin kontaktu zuzena izango dutenak dira, guretzako oso garrantzitsuak.

<b>ULMA</b>	ULMA Inversiones, S. Coop.	Oñati
<b>OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIA</b>		
Eguna: 2017ko ekainaren 16a		
Ordua: 12:00etan lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena		
Tokia: MU-Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)		
<b>GAI ZERRENDA</b>		
1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2016KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2017KO GESTIO PLANA ETA AURREKONTUA BERRESTEA		
3. 2016KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA		
4. KAPITALARI EGINDAKO EKARPENAK ORDAINITZEKO PROPOSAMENA		
5. 2016KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA		
6. ESTATUTU SOZIALEAREN ALDAKETA PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO		
7. ORDAINDUTAKOAK IGORTZEKO PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO		
8. AUDITOREAK IZENDATZEA		
9. BAZKIDE BAKOITZAREN GUTXIENEN EKARPEN EKONOMIKOA		
10. EKARPEN FINANTZARIOEN JAULKIPENA		
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA		
12. ZAINZTA BATZORDEAREN KONSTITUZIOA ETA KIDEEN HAUTAKETA, HALA BADAGOKIO		
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA		
14. GALDE-ESKEAK		
<b>OHARRAK:</b> Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Inversiones, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.		
Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskuragarri Estatutuetan proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.		
<b>KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA</b> Oñati, 2017ko maiatzaren 31a		

## Bidali mezu hau beste hamar laguni

IBAN ARANTZABAL

HTTPS://LABUR.EUS/8NR4Z

Hasieran, A4 formatuko gutuna zabaldu eta ez diot garrantzirik eman.

Sobrea, klaro, *sobre verde* deiturikoa, birziklagarria, sobreak bi zentimorakin arbolak sartzen laguntzen duten horietakoa...

En fin, dena berde, dena txukun.

Eta zabaldu-eta... hamar enpresak eginiko gutuna.

Gutun bakoitzeko sinatzaileen artean: elkarteko koordinatzaileak, zuzendariak, kontseilu errektoreko lehendakariak, zinearekin lotutako enpresetako presidentek, fundazioetako zuzendariak, eskal institutuetaiko zuzendariak, ikastetxeetako zuzendariak, hezkuntza sailekoren bat, goi mailako eskola bateko zuzendaria...

Niri heldu zaizkidan gehienak euskaraz, denak entitate ezagunak. Askok prestigiodunak ere bai. Antza, kate konkretu hau heldu da Mirada de Ebroko ikastetxe batetik bueltan. Eta atzerago eginez gero: Lugo, Galiziako Xuntako hezkuntza sailburutza...

Benetan, honek ez du izenik!

Aspaldi ezagutzen dugu *hoax* hitza.

Interneteko *hoax* bat da gezur bat Interneten zabaltzen dena eta biral bihur daitekeena.

E-posta bidez zabaltzen dira eta hara eta hona egiten du buelta, edozeinen pantailara egiten du jauzi.

Ufff...

Ba, itxura berdepean jaso duguna da Interneteko *hoax*-en bertsio antiekologikoa. Dozena bat folio grapatuta. Ematen du zer pentsatua:

-*Sobre verde*-an, eduki antiekologikoa.

-Hamaika folio fotokopiatu eta lehena sinadura eta zigilu originalarekin.

-Eskatzen dizu ekimen honekin bat egitea erakundeak. Hortik zigilua izatea -euskaraz jasotzen badugu gertukoagoa da eta zalantza gutxiago, akaso-.

-Hau sinatzen goi kargu asko.

-Hau egiten denbora dezente hainbat enpresatan.

-Eta jarri zarete pentsatzen zelan jakingo duen errekorren etxe horrek gutunak bidaltzen ari garela? Zelan frogatzen da? Edo izenik ez duen ume horrek zelan jakingo du?

-Guinness errekor etxeak ez ditu onartzen mezu-kate hauek. Klaro, hau ulertzen dut denok jakiterik ez dugula lehen kolpean.

-Esaten dizute moztan baduzu katea deabrua izango zarela. Hau poza!

-Diote katea ez dela inoiz eten -sortze datarik ez da inon ageri, klaro-, baina bistakoa da hamarretik hamar ez direla izango jarraipena ematen diotenak, diot nik.

-Inork ez du zalantza jarri hau gezurra denik. Eta gakoa hortxe egon daiteke.

Ezagun egin da beste berba bat: *Fake*

Interneten erabiltzen den terminoa da *fake*. Eta badu paradoxatik, gezurra dela antzemateko zaila izan behar baitu, baina era berean, *fake* bat izan beharko litzateke antzemateko modukoa momenturen baten. Hau da, prozesu komunikatibo bat eragin beharko luke eta gero, kasu honetan bezala, norbait deabrua izan: katea eten, edota gezurra dela bistarazi. Beraz, esan genezake paper-*fake* bat jaso dugula Goienan.

Eta umeaz paso, hamar erakunde nahasteaz bat.

Ume honek -ez baita esaten zein den ere- ez du gaixotasuna sendatzeko bidean ezer jasoko. Bueno, umerik ere ez da egongo gezur honen oinarrian! Eta egia balitz ere, errekor bat egitea da kontua. Eta oso ezagunak diren erakunde pila bat dale eta dale hamarna gutun bidaltzen. Egia esan, Correos-ekoan banintz, nik neuk asmatzeko moduko paper-gezur-katea. Pagotxa bidalketa kopurua.

Hedabideen egitekoa.

Uste dut, hedabideek garrantzirik badute, sinesgarritasunean dutela. Hau da, pasatu gara gutxi informatuta egotetik hiperinformatuta egotera. Hiperinformatuta bai, baina zerekin? Ba geure buruari ez diogu galdetu ere egiten

irakurtzen duguna ea egia den, gezurra den... Interneten badago, ba irentsi egiten dugu. Eta ez Interneten badago bakarrik, *sobre verde* baten badator ere halatsu. Hedabideotan argitaratzen duguna egia dela esan genezake, edo behintzat, hainbat profesionalen fitroa pasatzen dute. Gure marka sinesgarritasunarekin lotzea da gure egitekoetako bat.

## Golak nola ospatu

MANEX AGIRRE

HTTPS://LABUR.EUS/KCY2T

Albisteak txirikordatu egiten dira bata bestearekin, nahi gabe ere. Kukai dantza konpainiako kideek Max saria jaso ondoren esandakoek bakarrik ez dute dantza erdigunera ekarri, asteon.

Atzo, egunkari honetan [Berria], Iker Tubiaren erreportajea, Gasteizko dantza kontserbatorioko Carmen Tercerok ez zuen zalantzarako tarterik utzi. Mutikoak dantzan hasi bai, baina laster uzten dute. Eta, gehienetan, babes falta (eta, are gehiago, baita aurkako presioa ere) da horren arrazoi: "Gurasoek, hezitzaileek eta lagunek huts egiten dute". Huts egiten diete, beraz.

Inork huts egitea beti da gogorra, baina justu garai hauskor horretan...

Espekulatzen has gaitezen: "huts egiteko" arrazoiak mila izan daitezke. Bat, adibidez, "ezertarako balio ez duen"

zerbaitetan sartu izana sinetsaraztea mutikoari. Helduarorako bidea zabaltzeko ikuspegi utilitarista, hain ezaguna gurean. Baina azpi-azpian dagoena, nola ez, genero-bazterkeriaren mamua da.

Eta, notizien korapiloak badakar beste hari-mutur bat: eskola-jazarpenaren gaineko urteroko ikerketak 2016an emandako datuetan, DBHn, diskriminazio-arrazoien ehuneko altuena pertsona gaytzat hartzea da (%19,2). Ez gay izatea, baizik eta gaytzat hartzea.

Okurritu, 16 urterekin, dantzan hastea. Entzun beharko dituzu marikoi eta bestelakoak.

Dantza-eskoletako irakasleek aipatzen dute futbola, mutikoen aisialdia (eta ametsak, eta gustu estetikoak, eta ia dena) irensten dituen genero markatuko gargantua erraldoi gisa. Zer diren gauzak: aukera baduzue, begiratu youtuben 70eko hamarkadan gizonezko futbolariak golak ospatzeko zuten modua. Jauzi zalu horiek, besoak gora, ballet-eko pausoen pare. Tutua gerriratzea bakarrik falta zitzaie, benetan da ikuskizun ederra.

A ze alde, gaur egungo gaztetxoek eredu diren izarren keinu zakar, gorila-kutsukoekin.

Eskerrak oraindik, gutxienez, elkar besarkatzen duten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

ERANTZUKIZUN HANDIKO LANPOSTUAK ETA GOI-KARGUAK LORTZEKO LEHIA

EMAKUMEAK

@garbineubeda





» Oñati gestio  
heziketa

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### Eskaintza akademikoa

#### OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

#### MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

### Izen-ematea

Ekainaren 5etik 16ra

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
 943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
 943 71 21 91 ▪ 664 277 592





ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

## Baserrixak berbetan

Euskal Herrixan *etxea* hitz elkartuetan *euskarrixa* esan nahi dau, *burtetxia* eta *areetxia* kasuetan bezala. Eta harrigarria bada be, eremu euskaldunetan, behintzat, etxiak izen propixua dauka, pertsonak bezelaxe.

Askotan, zenbait pertsona ez dira ezagunak bere jaiotze-izenez, euren baserri-izenez baino.

Oiñetxiak edo baserrixak esangura berezixa daukela ez dau inork dudatan jarriko, eta, tamaina batian, gure nortasuna irudikatzen dogunian esan geinke bertan bizi izan zirenen eta bizi garenon euskarrixa dala eta bera zutik irautiak iraunaraziko gaittuela. Etxiak, abizen eta leiñuen bidez, gure arbasuen eta gure arteko bitartekaritza lana osatuz.

Baiña baserrixa ezin dogu bere inguru barik irudikatu, etxe-hurrenguari edo auzuaren premiñei, auzolanakin erantzutiak, etxian bertan egittekuak baino lehentasun

haundixagua hartzen dabe.

Portaera hau baserritarren nortasunaren oiñarrietako bat da, gaur egungo gizarte portaeretan gertatzen ez dan moduan.

Zer hausnartua badogu eredu honen inguruan.

Baserri-etxien atzian

gordetzen dan gure nortasunaren inguruko balore gehixago ezagutzeko, laster eskura izango dogu *Bergara abizenak leiñuak eta oinetxeak* liburua.

Etxien izenek bertan bizi zirenei emandako abizena mantendu dabe gizaldiz gizaldi, Lamarain edo Iturriotz baserrixak ditugu horren adibide.


Liburuak biltzen ditu gure arbasoak egin zittuzten tratuak baserrixak edo oinetxeak handitzeko, lursaillak erosteko, armarririk ipintzeko... zer ez.

Orain arte illunpean gordeta egon dira datu hauek, baiña oin, Patxi Larrañagak baserri-etxeak berbetan jarri ditu eta egindako kontraste lan ikaragarriari eta sistematikuari esker, uztaillian aukera izango dogu gure nortasunaren irudimenian horren esanguratsua dan etxiak laga doskun markia hobeto interpretatzeko eta oiñetxien bidez Bergara hobeto ezagutzeko.

Eskerrik asko, Patxi!

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Haurrentzako animazioan homosexualitatea normalizatzen

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/MEXFW](https://labur.eus/mexfw)

Haurrei zuzendutako film eta marrazki bizidunetan tabua dira oraindik LGBT pertsonaiak. Horregatik da berezia *In a heartbeat*, bi mutikoren arteko maitemintze istorio homosexuala gai nagusizat duen animaziozko lehen laburmetrai gisa aurkeztua. [...]

Dialogorik gabeko labur honetan, mutiko lotsati bat da protagonista eta ezkutuko sentimenduak agerian utz ditzake bere bihotzak,

bularretik atera eta ametsetako mutikoaren atzetik abiatzea erabakitzen baitu bat-batean. "LGBTI direla onartzeko arazoak dituzten ume eta gazteei helarazi nahi diegun mezua da norbere burua onartu eta maitatu dezatela", diote zuzendariek.

Keinuren bat edo beste ikusi dugu azkenaldian: lesbiana bikotea *Finding Dory* pelikulan, bi emakumeren arteko musua *Steven Universe* eta bi mutilena *Star versus the Forces of Evil* marrazki bizidunetan... Beti ere bigarren mailako pertsonaia gisa eta beti ere polemikaz inguratuta, ume xaloei heterosexualitate haragoko ereduak erakustea umeak

perbertitzea delakoan. Zentsura ere ezaguna zaigu halakoetan, baina zentsuratzea "gizarteari bizkarra ematea da, identitate, maitasun eta sexu-harreman desberdinak existitzen direla ukatzen ahalegintzea. Are gehiago, haurren sexu-hezkuntza osasuntsuaren kontra egiten du", Iratxe Fresneda irakaslearen esanetan.

Ziurrenik polemikak saihesteko eta ekonomikoki errentagarriagoa izateko, animazioaren industriak eta produkzio-etxe handiek apenas egiten dioten lekuri LGBT komunitateari. Arlo honetan ere, ekimen alternatiboetatik bultzatuko da normalizazioa, seguruenik.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amala Mundiñano, Ziorza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal.

**Eduki zuzendaria** Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua** Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala** Mireia Larrañaga.

**Administrazio zuzendaria** Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oiñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## PROTAGONISTA

# "Ohorea da lehiaketako irekiera ekitaldia zuzentzea"

**TXEMI ETXEBARRIA** ORKESTRA ZUZENDARIA

**Mireia Bikuña** ARRASATE

Jaiotzez arrasatearra da. Musikalki Bergaran egin zuen bidea, eta Belgikan egin du musika zuzendari karrera. Txemi Etxebarria da hura, eta uztailean egingo den Munduko Musika Lehiaketaren irekiera ekitaldia zuzentzeko ardura izango du.

**Ezustekoa izan da jasotako proposamena?**

Bai, handia. Oso pozik hartu dut gonbidapena, baina ezusteko galanta izan da. Bereziki, aurretik, maila handiko zuzendariak zuzendu dutelako. Besteak beste, Jan Cover herbeheretarrek. Ohore handia da.

**Nolako ekitaldia egingo duzue?**

Bi alditan egongo naiz zuzentzen. Lehenengoan, bi banda batera zuzenduko ditut. Horietako bat Philharmonie Zuidnederland orkestra profesionala izango da. 110 bat musikarirekin egin beharko dut lan. Errepertorioa bi zuzendariren artean banatuko



Txemi Etxebarria, zuzentzen. TXEMI ETXEBARRIA

dugu. Bigarren zatian, Herbehereetako beste orkestra bat zuzenduko dit.

**Eta, pentsatu duzue egun horretarako errepertorioa?**

Badira aste batzuk horrekin lanean gabiltzala. 110

musikari egonda, errepertorioa aukeratzea ez da erraza. Baina hiru obra izango dira.

Oraingoan, konplikatuena entseguak elkarrekin egitea da, musikari asko direlako.

**Eta, lehen eguneko ekitaldiaren ostean, disfrutatzeke aukerarik izango duzu?**

Uztailaren 6tik 30era izango da lehiaketa. Lehenengo egunean zuzentzea dagokit eta azken egunean, berriz, tronpa jotzea. Geroz eta gutxiago jotzen dut tronpa, baina orkestra bateko kide ere banaiz, eta lehiaketan parte hartuko dut. Iaz, bigarren geratu ginen.

**Zeren parekoa da Munduko Musika Lehiaketa?**

Europar egiten den garrantzitsua da. Lurralde ezberdinetako musikariek parte hartuko dute. 260 bat musika bandak. 20.000tik gora musikariek. Hiru astean musikaz disfrutatzeke aukera ematen duen lehiaketa da. Musika bizirik dagoela erakusten duen topaketa. **Tronpa gutxi jotzen duzula diozu, baina Maastrichter horretara joan zinen.**

Hala da. Tronpa ikasketen masterra egitera etorri nintzen. Baina zuzendari izatearen harra sartu zitzaidan, eta horretara bideratu dut nire lana.

**Etzera, Bergarara, itzultzeke asmorik?**

Oporretan bai. Faltan igartzen ditut etxeok. Bestelakoan, oraingoan, ez. Gustura nago Belgikan.

## HAU BE BADOGU!

**Ekainaren 10ean ni ere Bilbon izango naiz**



#erabakitzekeprest #E10denokBilbora! traolak erabilia, bihar, zapatua, Bilbon izango den Gure Esku Dago ekimenaren ekitaldia da oraingo astean txio gehien izan dituen gaitako bat: @GureEskuDago: "#Demokrazia herritarron nahiak errealitate bihurtzeko jaio zelako, ozen esango dugu EHan #erabakitzekeprest gaudela #E10denokBilbora!".

**Nondik dator #6718taupada?**



Sare sozialetan bolo-bolo dabilen *teaser* (misterio) kanpaina da *Zer da #6718taupada?*. Hatortxu Rock eta dispartioarekin lotuta dagoela argitzen da. Baita ere, iragarpen bat: sekulako elkartasun festarik handiena izango dela Hatortxu Rock 20: @Hatortxurock: "#6718taupada; zure alea behar dugu. #6718taupada ezagutu dugun elkartasun jaialdirik handiena antolatzeke".

**Klasikoak indartsu, Bilbon**

Atzo, eguna, Bilbon egin zen topaketa batek interesa piztu du Twitterren: Klasikoan Irakurketak. #KlasikoanIrakurketa #100Basque #ItxaroBorda dira erabilitako traolak.

@IdazleElkarte: "@klasikoerakur "Ez zen uda. Ez zen larrazkena. Negua zitekeen oraino". #100Basque #KlasikoanIrakurketa #ItxaroBorda" moduko pasarteak partekatu zituzten.

## ITURRI ONETIK

**Erdi Aroko azoka dator atzera ere Arrasatera**

Kalean dabil bolo-bolo irailean Erdi Aroko azoka egingo dutela Arrasaten. Bertan eta sasoi berean egiten den Elkartasun Eguna dataz aldatuko dutela ere barreiatu da, hain zuzen ere, Erdi Aroko azoka egiteko irailaren 8an hasi eta irailaren 10era bitartean. Azoka horren baitan, besteak beste, goi mailako artistak etorriko direla ere badiote.

Urte luzez egin zen Erdi Aroko azoka Arrasaten; *Antzinako Arrasate* izena ere izan zuen lehenagoko sasoiaren oinarritutako azokak. 2010ean egin zuten azkena.

## GORA ETA BEHERA



**Bidegorriaren bigarren mailako "kalteak"**

Oñatin bidegorria egiten dihardute. Eta ekimen hori txalotu egiten du hango bizilagun batek, ingurumenarendako lagungarria izan eta bizikleta-zaleei ibilbidea eskaintzen dielako. Baina triste da; izan ere, bidegorria eraikitzeke, San Lorentzoz zuhaitzak errotik moztu dituzte. "Beste lekuren batera eramaterik ez zegoen eta bertan landatu?", dio.



ITZIAR LARRAÑAGA



Mugikorrek bi aplikazio horiekin, BAZera joan beharra saihestu daiteke aurrerantz. XABI GOROSTIDI

## Kexak, iradokizunak eta abisuak mugikor bidez

Whatsapp eta Telegram kontuak sortu ditu Udalak, herritarren ekarpenak areagotzeko eta horiek modu eraginkorragoan jasotzeko. Neurri horrekin, mezuak helarazteko bidea errazteaz gain, argazki bidez informazio zehatzagoa jasotzea espero dute

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Kaleak zikin ikusi badituzu edo farol batek argirik ematen ez duela konturatzen bazara, modu errazean jakinarazi diezaiokazu horren berri Arrasateko Udalari. Orain arte, era horretako abisuak emateko BAZera joan eta bertan idazki bat bete beharra zegoen, baina orain, poltsikotik telefono mugikorra ateratzea nahikoa izango da.

dituzte, eta informazio zehatzagoa eman.

### 688 73 24 63 telefonoa

Udalarekin harremanetan jarri eta mezuak bidali ahal izateko, 688 73 24 63 telefono zenbakira idaztea nahikoa izango da.

Orain arte Udalean jaso den edozein iradokizun edo kexa bezala tramitatuko dira mugikorren bidez jasotakoak. Erantzunak ere bide beretik bidaliko dizkiete BAZeko arduradunek herritarrei.

"Herritarren eskaeraren bat edo beste izan dugu zentzu honetan. Beraz, kanal hauek aktibatzea ezinbesteko ikusten dugu herritarrengandik gertuago egoteko" adierazi du Anuska Ezkurak, Komunikazio arduradunak.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

## Taup(AED)ei jarraitu

Bateron batek Mondrau edo Arrasateaz ze berba lotuko nittuken galdetu ezker, boteprontuen eta asko pentsatu barik burure etorten jaten berbak honetxeik die: Lezetxiki, Santa Barbara, Etxaluze, San Juanak, Maritxu, Kooperatibak, Udaltx, Kurtzetxiki, Olandixo, Kanpatzar, Musakola, AED...

Geure buruek kontzeptuak harrapetako irudixek ebalten dauela esaten daue jakittunek. Lekuek, Arrasate kasu, sentimentuzko kapa bat daukiela esango neuke eta horregatik izan leike leku baten izena aittatzerakuen gutako bakotzak izen ezberdiñek emutie.

Neure zerrendari erreparatute AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) dauela ikusi dot, Arrasateko euskaltzalie 1983an sortu euenetik bertako euskaldunondako arrantzaliendako behelano artian ikusten dan itsas argixe modukue dala uste dot. Euskerie maitatzen dozuena bertan topatuko dozue gure hizkuntza eballi, zaindu eta bultzatuko dauen lagun taldie. Euskeriak Arrasaten bihotza badauko, Pablo Urangako 4.ien topatuko dozue. Taupadei jarraitu eta bertaratu zaitteze.



IMANOL SORIANO

## Herri Eskolakoak "gustura"

Pasa den egubakoitzean, herriko ikastetxe publikoen jaiaren erdigune bilakatu zen Biteri. Entzutetsua eta koloretsua izan zen jaia, puzgarriekin, meriendarekin, askotariko tailerrekin, ipuin kontalariarekin eta jan-edanarekin. Jaialdian parte hartu zuen jendetza irudikatzen, familia-argazki erraldoia atera zuten.

### Whatsapp eta Telegram

"Tecnologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatuta, eta herritarrekin hartu-eman zuzenago eta hurbilagoa izateko helburuarekin", Whatsapp eta Telegram kontuak jarri ditu mar txan Arrasateko Udalak.

Kanal horien erabilerak aukera berriak eskainiko dizkie herritarrei, modu errazean helarazi ahal izango baitizkiote Udalari kexak, abisuak edota iradokizunak. Gainera, euskarri horien bitartez argazkiak ere erantsi eta bidali ahal izango

*Lore*

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

*Sipi Sipi*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

*&*

arrasate

beinke

# Ikasleak protagonista ekaineko osoko bilkuran

Ingurumena hobetzeko konpromisoak hartzeaz gain, konponbideak eskatu zizkieten udal ordezkariari. Ostean, Makatzenen autobus geltoki bat jartzea onartu zuten, eta Udal Gobernuak aurka bozkatu zuen LGTBI kolektiboaren eguna babesteko mozioan



Ikasle bat hizketan, udal ordezkariak adi entzuten duten bitartean. XABI GOROSTIDI

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Herriko ikastetxe ezberdinetako ikasleek osoko bilkura aretoko mikrofona hartu zuten Agenda 21 esparruan landutako udal ordezkariari helarazteko. Lehenik eta behin, eskolara oinez joateko edo bizikleta sarriago erabiltzeko konpromisoak hartu zituzten, eta ostean, konponbide sorta bat planteatu zuten udalbatzako kideei. Horietako batzuk dira autoen erabilera gutxitzeko neurriak, herri barruan ibilgai-luen abiadura 30 kilometro ordura murriztea, egungo zabor bilketa sistema mantentzea eta baterian aparkatzeak atzerako noranzkoan egitea.

**Bi puntu nagusi**

Osoko bilkurako gai zerrendan bi puntu nabarmendu ziren: Makatzena goialdean autobus geltoki bat jartzea eta LGTBI kolektiboaren nazioarteko eguna udal gisa babesteko mozioa. Lehenengoan, aipatu beharra

dago alderdi guztien aldeko botoekin onartu zela. Bigarrenak, ordea, ez zuen aurrera egin: Udal Gobernuak aurka bozkatu zuen.

EH Bilduk, Baleiekek eta Irabazik proposatuta, ekainaren 28an udaletxeko balkoian ortzadarraren ikurrina jartzea eskatzen zen mozioan, formazio eta kontzientziazio neurriekin batera. Mozioa irakurri ondoren, EAJko Anuska Ezkurak hartu zuen hitza, eta, mozioaren muiarekin bat zetozela esan arren, aurkako botoa emango zutela azaldu zuen, Berdintasun batzordean gaia ez delako "behar bezala" landu.

**Bi interbentzio amaieran**

Saleh Salek Debagoieneko sahararren elkarteko presidentek bere herriak jasotzen duen giza laguntzen murrizketa salatzen, eta ostean, Saul Osinagak hartu zuen hitza; alde zaharreko bizilagunek aparkatzeko dituzten zailtasunak azaldu zituen.



SUDC

## Danborradako banderadunak

Irudian agertzen diren lau gaztetxoak izan dira, zozketa bidez, zaldi gainean banderak astintzeko aukeratuak izan direnak: Beñat Zalama (jenerala), Irati Unamuno (SUDC), Maddi Petreñas (ikurrina), eta Itsaso Urgoitia (Arrasate). Argazkian duten irribarreak agerian uzten du egun ahaztezina bizi izango dutela ekainaren 17an.

Bazkidea bazara  
**300€**  
ere lortu  
zeure txartelean!

\* EROSKI club txartelean itzuliko dizugu. Gainerako baldintzak kontsultatu zeure hiperean.

Guztionezako teknologia



**EROSKI**

ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

# Conekta

2017ko ekainaren 21era arte

## Gurekin etxetresna elektrikoak aldatzea...

## DOAKO\*

da tresna handietarako

\*Dendan bertan kontsultatu baldintzak



etxetresna elektriko zaharra bilduko dugu



berria eramango dizugu etxera



eta abian jarriko dugu DOHAINIK!

Zeure erosketak finantzatu...

## DOHAINIK

% **0** ko UTB **3** hilabeteen 90€-tik **10** hilabeteen 199€-tik **12** hilabeteen 299€-tik

\* EROSKI red Visa eta EROSKI club Mastercard txartelek 2017ko ekainaren 21era arte eskainitako eta Santander Consumer Finance, S.A. enpresak onartu beharreko finantziarioa. EROSKIk diruz lagundutako interesak. Lehenengo kuota zertxobait aldatu ahal izango da 2 hamarrenen arabera biribiltzean, guztira ordaindutako zenbatekoa eta finantzatutako zenbatekoa berdin izango.

Zeure telefonoa, tableta, argazki-kamera...  
**babestu istripuetatik**

**39€**  
baino ez



Etxetresna elektrikoaren erakusmahaiaren galdetu

**EROSKI** asegura  
segurvagoak zurekin



Goiena Classic Clubeko kideak, astelehenean egindako aurkezpenean. XABI GOROSTIDI

# Adindun ibilgailuei distira ateratzeko gertu

Goiena Classic Clubekoek, iazko esperientzia ona ikusita, bigarrenz antolatu dute auto klasikoek topaketa. Ardoarekin bezala, urteekin dotorezia irabazten duten ibilgailuen erakustoki bihurtuko da Arruena parkea domeka goizean

## Xabi Gorostidi ARRASATE

25 urtetik gorako ibilgailuen erdigune bilakatuko da Arrasate, bigarren urtez jarraian. Goiena Classic Club taldeak antolatu du. Ibilgailu klasikoek maitale talde hori osasuntsu dago partaideei dagokienez, baita ekintzak egiteko gogo aldetik ere.

Iaz lehendabizikoz antolatu zuten topaketak erantzun paregabea izan zuen, eta, hori ikusita, bigarrena ere arrakastatsua izan dadin osagai guztiak dituzte lapikoan. "Iaz 140 auto eta 25 motor batzea lortu genuen, eta aurten zifra antzerakoa lortzea edo hobetzea da lortu nahi duguna. Gure partetik ahaleginik ez da faltako eta ilusioz beteta gaude domekara begira", adierazi du Iker Elorza taldekideak.

## EAEko bigarren

Iaz azken orduan jende asko apuntatu zen arren, ibilgailu kopuru handia batzea lortu zuten; Euskal Autonomia Erkide-

## Domekarako egitaraua

- **09:30** Eremura sarrera.
- **11:00** Haurrentzako pedaldun kart-ak.
- **11:30** Moto ibilbidea.
- **13:30** Oparien zozketa.
- **15:00** Bazkaria
- **Goiz osoan zehar** Askotariko standak; adibidez, miniatuazko autoenak, giro motorzalea jartzeko DJak, *auto detailing* tailerra, arropa salmenta, eta barra edariekin.

**IAZ LEHEN ALDIZ ANTOLATU ARREN, EAE-KO BIGARREN TOPAKETA HANDIENA IZATEA LORTU ZUTEN**

go mailan egiten diren topaketa jendetsuenen artean sartu zen.

"Iaz, lehena izan arren, Euskadin egindako bigarren topaketarik jendetsuena izan zen. Gure helburua urtetik urtera jende gehiago erakartzea da, eta, zergatik ez, Euskadiko topaketarik jendetsuena bihurtzea. Aurten, berritasun gisa, haurrentzako pedaldun kart-ak jarriko ditugu, eta, horretaz gain, adindun autoen xasisak berri bezala uzten dituen *auto detailing* tailerra ere egongo da".

## Lana eta esker ona

Adindun ibilgailuak pasio izan arren, era horretako topaketak antolatzen ibiltzea buruhauste handia dela azaldu du Elorzak.

"Lan pila bat dauka, eta zaila da jendeak zenbaterainoko lana den irudikatzea. Nahi eta ezin horren eraginez, ekimena bertan behera uztea ere pasa izan zaigu burutik, baina ilusioz egiten dugu, gustura gaude eta aurten ere antolatu dugu".

## Ikasleen ikuskizun ugari gaur Arizmendi ikastolako jaialdian

Goizean ginkana eta danborrada egin ostean, 17:00etatik aurrera hasiko da jaialdia, Biterin.

17:15ean zabalduko dituzte ateak tailer ezberdinek, puzgariarik eta txosnek, trikitilariak lagunduta. Ordu berean hasiko da bertso saioa, eta, horren ostean, bata bestearen atzetik etorriko dira ikastolako abesbatza, musika talde instrumen-

tala, Santa Teresako *Argitxori ongi-etorria* ikuskizuna, Maider Alzelaireren ipuin kontaketa eta ikastolako trikitilarien emanaldia.

18:55ean Euspot BHKlip lehiaketako Arizmendi saria banatuko dute, eta, ostean, emanaldiekin jarraituko dute. Nerea Parra eta Lorea Ibarra, lehen hezkuntzako ikuskizunak, Maren tena eta Noa Beltran de Guevara, eta Gaztelupeko DBHko 2. eta 3. mailako *parcour* erakustaldia, besteak beste.

## Txatxilipurdi, sukaldari bila udaleku itxietarako

Honako profil hau izatea jartzen dute baldintza gisa Txatxilipurdi kideek: elikagaien manipulatzaile titulua izatea, euskaraz jakitea, gidabaimena eta auto propioa izatea eta gazteekin eta nerabeekin lan egiteko prestutasuna.

Interesatuok, bidali curriculumak [haurrak@txatxilipurdi.com](mailto:haurrak@txatxilipurdi.com) helbidera.

## ARRASATE IRRATIA

### Bidean proiektua

Astelehenean, Debagoieneko Bidean proiektuko arduradun Agurne Juldainek Caritasen zentro okupazional berriari buruz hitz egingo du.

### Zozketak

Aste honetan, Maider Zabalegik ekainaren 16an, 22:30ean, Oñatiko gaztelekuan emango duen zuzenkorako sarrerak zozketatuko ditugu.



## ARRASATEKO OSOKO BILKURA

**GOIENA TELEBISTA**  
GAUR, BARIKUA, 23:00

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE



Aurreko urteko Kirola Kalera Egunaren barneko ekimena. GOIENA

## Kalean kirol ezberdinak praktikatzeko aukera

Joan den urtean Kirola Kalera Eguna ospatu zen lehendabizikoz Arrasaten; hain zuzen, Udaleko Kirol Sailaren eskutik datorren ekimen horren helburuetako bat da udalerriko kirol taldeek urtean zehar egiten duten lana ezagutaraztea

### Ane Vitoria ARRASATE

Joan den urtean, ekimen horren bueltan Arrasateko kirol talde gehienak biltzea lortu zuen Udaleko Kirol Sailak. Kirola Kalera Egunaren xede nagusia kirol talde ezberdinek urtean zehar egin duten esfortzua ezagutaraztea da, baina baita udalerrian lantzen diren kirol mota ezberdinak zeintzuk diren erakustea. Gainera, aukera ona da herriarrek kirol horiek probatu ahal izateko. Kirola Kalera Eguna bihar izango da, Arrasateko erdigunean, 10:30etik 13:00etara bitartean.

### Arrasateko erdigunean

Aurreneko edizioan, kirola kantsuetatik, zelaietatik eta halako esparruetatik atera zuten kalean zehar burutzeko asmoz; eta aurtentzen gauza bera egingo dute. Kirola praktikatzeko proposatu diren espazioak Herriko Plaza, Biteri plaza eta Seber Altube plaza dira, baita hiru horien inguruneak ere. Leku horiek

elkarren artean oso hurbil daude, eta horregatik aukeratu ditu Kirol Sailak, modalitate guztiak ahalik eta gertuen egoteko. Modu horretan, kirol bat baino gehiago praktikatu nahi duten herriarrei erraztasunak eskaintzeko.

### Hamaika aukera

Bihar goizean eskainiko diren ekintzak askotarikoak dira. Aipatu bezala, kirol horiek Arrasateko erdigunean praktikatu dira, eta hainbat gune ezberdin izendatu dituzte. Lehenengo gunea elizako pareta izango da, Iturriotz kaletik, eta bertan, pilota izango da praktika-gai 11:30etik 13:00era. Bigarren gunea Herriko Plaza izango da; bertan, errugbia (11:00-12:00), altuera-jauzi erakustaldia (12:00-13:00) eta boccia (12:00-13:00) izango dira. Seber Altube plaza hirugarren gune izendatu dute eta horretan ere hiru kirol eskainiko dira: futbola (10:30-11:15), eskubaloia (11:15-12:00) eta are-

to-futbola (12:00-13:00). Biteri plazan 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. guneak izango dira, eta hauek eskainiko dituzte horietan: kenpoa eta judoa (10:30-12:00), cricketa (11:00-12:00), saskibaloia (11:30-13:00), boleibola (11:30-12:30) eta karatea (11:30-13:00). Gainera, ginkana bat izango da eta haurren judo erakustaldia ere bai. Aukerak asko dira.

## 'Kaleak jolastu!' jaialdia antolatu du Arrasateko Haur Kontseiluak

Ospakizunaren xede nagusia Haur Kontseiluak urtean zehar eginiko lanaren gaineko azalpena ematea da

### A.V. ARRASATE

Haur Kontseiluak *Haurren hiria* proiektuan du jatorria. Horren xede nagusia tokiko politikan umetasun parametroa gehitzea da eta Francesco Tonnucik sortu zuen 1991n. Konfiantza, autonomia, partaidetza eta osasunerako baldintzak berrezartzeko balio du, erlazioak, baliabideak zein espazio komunak eraldatzeko. Proiektu hori duela 25 urte baino gehiago sortu zen arren, gure inguruan orain dela gutxi txertatu da; hain zuzen ere, 2014an. Urte hartan, Innobasquek sortu zuen hemengo Haur Hirien Sarea, Tonnuciren proiektuak proposatzen dituen parametroen arabera ekimenak sortu guran. Arrasate aipatutako sare horren barruan dago eta Haur Kontseilua da marko horretan sortu den lehenengo ekimena.

### Haurren iritzia

Haurren ikuspegia, beraz, funtsezkoa da proiektu horretan. Horrenbestez, hiriarekin eta tokiko kudeaketarekin lotura duten gaiak buruzko iritzia eskainiko diote alkatetzari. Horrez gainera, aholkuak eta proposamenak emateaz ere arduratzen da Haur Kontseilua. Proiektu horretan, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako hamazortzi haur daude. Kontseilua hilean behin elkartzeko da, udalerriarrentzako onuragarriak izan daitezkeen proposamenak eskaintzeko eta proiektu

tuak garatzeko. Nahiko berria denez, lehenengo urte honetan, Santa Barbara parkearen erabilkeraren gainean aritu dira. Horren gaineko hausnarketa sakona egin dute eta bertan garatu daitezkeen hainbat ideia proposatu dituzte; besteak beste, naturaz gozatzeko aukerak, udako zinema, kirol aisialdirako gunea eta aterpea jartzea.

### 'Kaleak jolastu!' jaialdia

Datorren egunean, ekainaren 15ean, ospatuko da jaialdi hori. Jaialdiaren helburua da Haur Kontseiluaren funtsa eta orain arte egin duen lana nolakoa izan den ezagutzera ematea. Horregatik antolatu dute jaialdia, haur zein helduek hirian jolasteko duten eskubidea aldarrikatzeko eta gauzatzeko. Egun horretan, 17:30ean, Haur Kontseiluaren partaideek eta udal taldeek kontseiluaren gaineko nondik norakoak azalduko dituzte. Horrez gainera, urtean zehar garatu dituzten ideia eta proiektuak aurkeztuko dituzte. Horrela emango zaio hasiera jaialdiari. Jarraian, 18:00etan, Biteri plazatik hasita, *Altxorraren bila* jolasa izango da. Hainbat pista jarraitu beharko dira eta Santa Barbara parkean zehar arituko dira, hango txokoak ezagutu nahian. Haur txikiek ere badute lekua jaialdi horretan; hain zuzen, arratsalde osoan, horientzako musika eta jolasak eskainiko dituzte Biteri plazan.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 [www.zenbaki.eus](http://www.zenbaki.eus)

1986-2016



Legends taldekoak, joan den zapatuko finalerdiaren une batean. IMANOL SORIANO

## Legends eta Betrayer, Zaldibarko finalean

Finalerdietan Elorra (3-4) eta Jibaros (7-1) taldeei irabazita lortu dute Legendsek eta Betrayerrek finalera iristea. Zale asko gerturatu ziren norgehiagokak ikustera. "Formatu berriarekin, bizirik dago txapelketa", diote antolatzaileek

### Xabier Urzelai ARRASATE

Ekaina ez da Zaldibarko final barik geratu. Torneoa inoiz baino beranduago hasi bazuten ere –Aste Santu ostean–, zortzi jardunaldiz osatutako txapelketa motz baina emankorra izan da, eta jendeak gustura hartu du formatu berria. Hala, bihar, 18:00etan, Legends eta Betrayer taldeek jokatuko dute finala, eta Elorra eta Jibaros 16:30ean lehiatuko dira hirugarren postua lortzeko helburuarekin.

### Finalerdietan jende asko

Joan den zapatuan jende asko batu zen harmailetan, taldeak animatzeko gertu. Legendsek gogotik sufritu zuen aurrera egiteko, eta azken unean alde izandako penalti bikoitz batek erabaki zuen emaitza (3-4). Badirudi Betrayer erraz sailkatu zela (7-1), baina kantxan indarrak parean egon ziren. Hori bai, beteranoek aldeko izandako aukera guztiak aprobeztatu zituzten golak sartzeko.

## "Aurtengo txapelketa motz geratu da"

JON BARANDIARAN  
ANTOLATZAILEA

Zaldibarren areto futbola desagertu ez zedin, azken momentuko bultzadari esker, zortzi jardunaldi izan dituen txapelketa antolatu dute hainbat lagunek.

### Finalaren atarian, ze balorazio egiten duzue?

Positiboa. Ez genuen uste jende gazteak izena emango zuenik, eta lau talde berrik hartu dute parte. Pozgarria izan da hori, eta antolaketa taldeko atea zabalik ditugula esango nieke, lagundu gura badute.

### Aipatu duzu motz geratu dela txapelketa.



J.B.

Bai. Datorren urtera begira garbi daukagu urrian ez dugula txapelketarik hasiko, hori amaitu da. Baina formatu hau egokia da, antolatzaileondako errazagoa da halako bat antolatzea, ez da horren lotua, eta jendeak gogoz hartu du. Aurten zortzi jardunaldi baino ez ditugu izan, eta hamabi jardunaldi inguruko txapelketa polita izango litzateke. **Zelako finala espero duzue?** Esperientzia handiko jokalariz osatutako taldeak dira Betrayer eta Legends. Normalena da indarrak parean egotea.

## Euripean lortutako dominak, Euskadiko Txapelketan

Durangon euripean jokatu zituzten txapelketetan Arrasateko atletek bost domina eskuratu zituzten

### X.U. ARRASATE

Iritsi dira aire libreko atletismo denboraldiko hitzordu nagusiak. Asteburuan Durangon jokatu zituzten Euskadiko Txapelketak, eta Arrasateko ordezkarien artean Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Uribarren nabarmendu ziren, urrezko domina lortuta.

Markak ez ziren ikusgarriak izan; izan ere, eguraldiak ez zuen lagundu. Esaterako, Iñigo Uribarrenek, salto hirukoitzean, hil hasieran 16,05eko *markatza*rra egin zuen Anoetan, eta Durangon 15,68ko markarekin jan-

tzi zuen urrezko domina –Eneko Carrascal ere podiumera igo zen modalitate berean (14,77)–. Eta Malen Ruiz de Azuari beste horrenbeste gertatu zitzaion, peritkarekin 3,60ko saltoa eginda igo zen podiumeko lehenengo postura.

### Guztira, bost domina

Horiekin batera Istar Dapenak zilarra jantzi zuen (4,70) eta Jonathan Perez ere podiumera igo zen (4,60). Azkenik, Ibai Fernandezek 100 metroko proban 10.93ko marka egin zuen –brontzea–.



Dragoikoak, Durangoko podiumean. ARRASATE DRAGOI

## 'Dragoi' guztiek gimnasia erakustaldia egingo dute bihar

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko ordezkariak ikasturte amaierako saioa egingo dute Uarkapen (11:00)

### X.U. ARRASATE

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko ordezkariak iritsi dira ikasturte amaierara. Eta urte osoan egindako lana bihar, zapatua, erakutsiko dute, Uarkapen, etxeko zaleen aurrean; 11:00etan hasita.

### Durangotik, pozik

Hain zuzen, joan den asteburuan izan zuten Durangoko Landakon ikasturteko azken txapelketa ofiziala, Euskadiko amateur mailako federatuen txapelketa.

Txapelketan, kadete B mailako taldekako kategorian bi talde

izan zituen Dragoiak, eta biek lan aparta egin zuten, lehenengo eta bigarren postuan sailkatu ziren eta. Talde bateko ordezkariak izan ziren Naroa Errasti, Leire Lara, Malen Balerdi eta Noah Berroval, eta ordezkari arrasatearrak bigarren postuan sailkatu ziren. Eta bigarren taldeko ordezkariak izan ziren Izaskun Gartzia, Eider Lasanta, Nahia Irazola eta Uxue Azkue, eta horiek txapelketa irabazi zuten.

Banaka –sokarekin eta uztaiarekin– Nekane Magaña hirugarren izan zen eta Noah Berrocal, bederatzigarren.



Goikobalu abesbatza emanaldi bat eskaintzen. IMANOL SORIANO

## Goikobalu abesbatzaren emanaldia bihar, zapatua

Goikobalu abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar arratsaldean San Frantzisko elizan. Duela gutxi Arrasate Musikalekin emandako kontzertuan, abesti gehiago eskaintzeko gogoz gelditu zen abesbatza; horregatik antolatu dute biharkoa

### Ane Vitoria ARRASATE

Iñaki Maidaganek zuzenduko ditu bihar San Frantzisko elizan izango diren berrogeita bost bat kantariak. Kontzertu horretan, hainbat abesti eskainiko ditu Arrasateko abesbatzak: Mozart musikariaren *Visperas*, *Soleran*, *Ubi Caritas*, *Misa Festiva*, *Kyrie*, *Gloria*, *Credo*, *Sanctus* eta *Agnus Dei*, hain zuzen. Goikobalu abesbatzak bere jarraitzaile diren eta, orokorrean, arrasatear guztiei eskerrak emateko antolatu du emanaldi hori. Apirilean Arrasate Musikalekin batera kontzertua eskaini zuten abesbatzakoek, eta abesti gehiago eskaintzeko gogoz gelditu ziren. Bada, emanaldi hori antolatu dutela aitortu du Goikobaluko zuzendari Juan Antonio Barriocanalek: "Apirilean eskaini genuen kontzertuan abesti gutxi eskaini genituela uste genuen, eta arrasatearrei abesti eskaintza zabalagoa oparitu nahi genien. Horregatik, beste emanaldi bat ematea erabaki zuen abesbatzak eta data asteburu honetarako finkatu genuen". Behin emanaldi hori egingo zutela jakinda, hainbat abesti

prestatzeari ekin ziotela esan du Barriocanalek. Eta, ondoren, hainbat entsegu egin zituzten Goikobaluko kantariak. Gainera, kontzertu berezi horretan, abeslariekin batera Arturo Goikoetxea izango da. "Ospea duen arrasatear mediku hori gurekin batera izango da kontzertuan. Goikoetxeak pianoa joko du", azpimarratu du abesbatzako zuzendariak. "Kontzertu oso berezia izango da biharkoa. Herriarrei eskerrak eman nahi dizkiegu eta dakigun modu politenean egingo dugu, kantatzen", azpimarratu du.

### Akustika onaren bila

Aipatu bezala, emanaldia San Frantzisko elizan eskainiko dute: "Eliza horretako akustika oso ona dela uste dugu, eta, beraz, bertan abestea erabaki genuen. Gainera, ez genuen Udalaren laguntza abusatu nahi. Bi arrazoi horiengatik aukeratu genuen San Frantzisko eliza emanaldirako", esan du Barriocanalek. Kontzertua bihar arratsaldeko zortzietan izango da, eta, gutxi gorabehera, ordubete iraungo du.

## Gure Ametsa

*Gatetxea*

*Ezkontza berezia eta ahaztezina!*



943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • [www.gureametsa.es](http://www.gureametsa.es)

# Kale garbiketa zerbitzuak hausnarketa eragin du

Serbitzu SL enpresari kontratua bukatuko zaio azaroan eta EH Bilduk Udal Gobernuari proposatu dio zerbitzua bere gain hartzeko. Azken horiek ez dute uste hori denik "irtenbide egokiena" eta beste lau urterako esleitzea erabaki dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Azken hamar urteotan kale garbiketa zerbitzuaren ardura izan duen Serbitzu SL enpresari kontratua bukatuko zaio datorren azaroan. Hori dela eta, EH Bilduko ordezkariak proposamena egin diote Udal Gobernuari: zerbitzua Udalak bere gain hartzea, hain zuzen.

Lan-jardun ezberdina duten zazpi lagunek ematen dute zerbitzu hori herrian, eta horren kostua 384.000 euro da, EH Bilduko kideen esanetan. Garbiketa zerbitzuaren aurreazterketa bat egin dute, eta Udalak bere gain hartzea proposatu. Horretarako eman dituzten arrazoiak lau dira. Batetik, kostua: "Pertsonalaren kostua %31 murriztuko litzateke, 120.000 euroko aurrezpena", dio Ion Albizu zinegotziak. Bestetik, lan baldintzak: "Murrizketa txiki bat izango lukete soldatetan ondoren konpentsatuko litzatekeena". Hirugarrenik, gainbalioa aipatu du: "Udalak nahikoa jakintza eta gaitasun du zuzenean emateko zerbitzu hori". Eta laugarrenik, herriarendako onura: "Aurrerapenak -120.000 euro herrian eragina du".

## Brigada taldea osatu

"Horrez gain, Udaleko obra eta zerbitzuen brigadaren egoera larria dela argi dugu alderdi guztiok; hiru lagunek osatzen dute eta horietako bat bajan dago", jakinarazi du Albizuk, eta gaineratu: "Horregatik proposatu dugu talde bakar bat osatzea brigadarekin eta kale garbitzaileekin, eta aurreztutako diruarekin beste hiru lagun hartzea talde hori indartzeko. Hala, jardun ezberdina izango luketen hamabi lagun egongo lirateke".

Egungo langileen egoerarekin arduratuta azaldu da, gainera, EH Bildu: "PPren legeak eskuan, langileak enpresaren menpean egongo lirateke, eta kaleratzeko



Kale garbitzailea herriko kale batean. ION ALBIZU

arriskua izango lukete. Horregatik, lan-poltsa bat sortu eta hor sartzea langileok proposatzen dugu".

Horren guztiaren berri eman diote Udal Gobernuari: "Eta EH Bilduk proposatzen du hausnarketa herritarrekin ere konpartitzea".

## Lau urterako esleipena

Udal Gobernuak egunotan aztertu du EH Bilduren proposamena eta zera jakinarazi du: "Esleipen baten aurrean aurkitzen gara, eta berriz ere EH Bilduk zerbitzua Udalak bere gain hartzeko eskea helarazi du. Guretzat, ez da berebizikoa publikoa edo pribatua izatea; bai, ordea, zerbitzuaren kalitatea bermatzea", dio Unai Elkoro alkateak. Hori horrela, berriz ere zerbitzua esleitzearen alde egingo dutela adierazi du.

Horren arrazoietakoa bat da %31ko "aurrerapenik ez" litzatekeela egongo: "Egia da BEZa eta irabaziak kentzen baditugu matematikoki hori ateratzen dela, baina kalkulu horiek egiterakoan %3ko absentismoa hartu da kontuan, Udaleko brigadan aurten %20tik gorakoa da, eta Manko-

munitateko bilketa zerbitzuan %24 ingurukoa. Ez dugu ikusten aurrezpenik lortuko genukeenik, eta bai, ordea, eguneroko kudeaketan zailtasunak".

Bestetik, dio gaur egun Udalak ez daukala tokirik proposatzen den jendeari behar bezalako dagelak emateko. Garbiketa zerbitzua ematen duten langileen egoera "beste arazo" bat dela jakinarazi du: "Beste enpresa batek hartuko balu zerbitzua, langileak subrogatu beharko litzateke, baina, Udalak bere gain hartuz gero, ezingo genituzke zuzenean hartu; beraz, beraien lanpostua kolokan legoke. Eta kalean geratuko liratekeenek Udala demandatuko lukete, Oñatin bertan gertatu den moduan; eta Udala galtzaile irtenez gero, demaseko dirutza ordaindu behar".

Zera gaineratu du Udal Gobernuak: "Idazkaritzako txostenak garbi adierazten du legez kanpo arituko ginatkeela udal langileria proposatu zaigun neurrian igoko bagenu". Horregatik, lau urterako esleitzeko dute zerbitzua -beste bi luzatzeko aukerarekin- eta, "egoera aldatuz gero", gaia hurrengo agintaldian aztertuko litzatekeela adierazi du.



IBARRA KIROLDEGIA.

## Kiroldegiko lanak bukatzeaz

Ibarra kiroldegia aurrealdean konpontzen ibili dira azken asteotan eta zati txiki bat besterik ez zaie geratzen guztia bukatzeko. Sabai-leihoetako kristalak astean aldatu dituzte, eta solariumeko belarra aldatzea izango da egingo duten azken lana: "Ekaina bukatu aurretik zabalik izango da eguzkia hartzeko lekua", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.

## Diru laguntzak eskatzeko epea zabalik du Udalak

Hainbat arlotan jarduera ezberdinak egiteko dira eta deialdia egin zenetik 30 eguneko epea dago aurkezteko

**M.A.** ARETXABALETA

Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzu, Kirol, Enplegu eta Beldintasan sailerako jarduerak jorratzeko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik du Udalak; 2017an garatuko diren proiektuetarako laguntzak izango dira. Maiatzaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten deialdia, eta 30 laneguneko epea zehaztu dute eskabideak aurkezteko.

Laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardun eremua Aretxabaletan daukaten pertsonak

eta elkarteek. Laguntzen zenbatekoak ezberdinak dira kasuan kasu, eta, besteak beste, izango dira kultur proiektuak eta programak gauzatzeko; grabazioak egiteko eta kultura produkzioetarako; euskararen erabilera sustatzeko; hezkuntzan diharduten guraso elkarteendako; garapenerako lankidetzako proiektuetarako; eta adikzioen tratamenduetarako.

Argibide gehiago gura dituenak GAOn egin dezake kontsulta, edo Udaleko dagokion Sailean galdetu.

## Musika eskolako emanaldi asko ekaina bukatu artean

Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldiak eskaintzen jarraituko dute ikasturtea bukatu bitartean. Datorren astelehenean eta martitzenean, gitarra-jole mordoak elkartzeko dira Arkupeko Zaratia aretoko oholtzan, 18:00etan. Horiarekin bukatuko dituzte maiatza ezker egiten dabilen instrumentuen emanaldiak.

Ekainaren 20an, martitzena, ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute, Herriko Plazan, 18:00etan. Hainbat musikari elkartzeko dira han, hala nola biolin-joleak, flautistak, trikitilariak eta txistulariak, eta kantuan ere egingo dute.

Eta egunean, ekainaren 22an, konbo talde txikien kontzertua izango da Santa Ritako lorategian, 18:00etan. Urtean zehar ikasitakoaren berri emango diete musikari gazte guztiek senideei eta herritarrei.





Eskola jasangarriaren agiriarekin, lehendakariarekin. KURTZEBARRI ESKOLA



Ikasleak eta irakasleak. M.A.



Neska-mutikoak artelanei begira. M.A.



Hirugarren zikloko ikasleak egindako lanak erakusten. MIRARI ALTUBE

## Birziklatzea ezinbestekoa klima aldaketa saihesteko

Etxean jasotako hondakinekin artelan txikiak egin dituzte Kurtzebarri eskolako ikasleek, eta gero, Birziklarte Azokan saldu. Era berean, Eusko Jaurlaritzak emandako eskola jasangarriaren ziurtagiria jaso dute, urteotan egindako lana aitortuz

### Goiena komunitatea

Kurtzebarri eskola / ARETXABAETA

Hainbat ikasturte goaz Eskola Agenda 21 programan parte hartzen Kurtzebarri eskolan, gure ikasleek ingurumenarekiko errespetua eta ardura izan dezaten. Horren harira, eskola jasangarriaren ziurtagiria lortzeko prozesu batean sartu ginen eta urte hauetan guztietan egin ari garen lanari esker, ekainaren 6an, Euskadiko Biodibertsitate Zentroan, Eusko Jaurlaritzaren eskutik agiria eskuratu dugu. Beraz, eskerrak eman nahi dizkizuegu eskolako komunitate guztiari, proposatutako ekintza txikiei esker, hau lortzeko aukera izan dugulako.

Agiri hori lau urterako besterik ez da eta lanean jarraitu nahi dugu beste hainbat eta hainbat urte gurekin izateko,

baina garrantzitsuena eskola honetan parte hartzen duten ikasleek ingurumenarekiko maitasuna izatea da. Hori dela eta, aurtun klima aldaketaren gaia landu dugu, eta berrerabiltzearen kontzientzia hartzeko ekintza bat prestatu. Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izanik, Birziklarte Azoka egin genuen, materialen bat berrerabiliz egindako eskulan edo artelan bat saltzeko azoka. Eskolako ikasleek sortutako artelanak egon dira salgai borondatearen truke. Jasotako dirua ingurumen batzordeko ikasleek erabaki dute aldaketa klimatikoa gelditzeko lanean diharduen talde bati ematea. Gainera, ekainaren 1etik 15era bitartean eskolako lehenengo solairuan Euskal Herriko ibaien inguruko erakusketa bat dago.

### Eskolako jaia

Bihar, zapatua, Kurtzebarri eskolako kideek ikasturte bukaerako jaia egingo dute.

#### Egitaraua

- **10:00** Tarta lehiaketa.
- **11:00** Jaialdiari hasiera.
- **11:10** Gurasoentzat eta ikasleentzat jolasak plazan.
- **12:00** Kalejira batukadarekin.
- **13:00** Eguzkiari agurra.
- **13:30** Bazkaria, frontoian.
- **15:00** Imanol Ituiño magoaren ekitaldia.
- **16:00** Dantzaldia pilotalekuan AZ Gaubelak taldearekin; puzgarriak patioan eta bolo txapelketa.

## "Norberak egindakoa janztea zer den ez dakizu, egin arte"

### KATALIN ANTXIA DISEINATZAILEA

The Modubat markaren sortzaile aretxabaletarrak patroigintza eta diseinu ikastaroa emango du uztailaren

#### M.A. ARETXABAETA

Katalin Antxia (Aretxabaeta, 1988) moda diseinatzaileak –The Modubat markaren sortzailea– patroigintza eta moda diseinu ikastaro trinkoa eskainiko du uztailaren 3tik 14ra. Bi saio egingo ditu: hasiberrientzat (10:00-12:00) eta aurretik ere jardundakoentzat (16:00-18:00). Izen-emate epea zabalik dago ekainaren 30a arte; hona hemen bidea: [info@thomodubat.com](mailto:info@thomodubat.com).

**Hainbat ikastaro eman dituzu dagoeneko herrian; ikasle leial asko dituzun seinale...**

Ba, bai, ikasle askok errepikatu egin dute orain artekoetan, eta hori oso berezia da, benetan ere. Gainera, bailara osotik datoz, baita beste herri batzuetatik ere: Eibartik...

#### Zer eskainiko duzu oraingoan?

Hasiberriak lehenengo aldiz beste teknika batekin hasiko dira, patronaje negatiboa izenekoa. Uste dut burmuina estimulatzeko oso ona dela. Eta hortik patronaje konbentzionalerako saltoa egingo dugu. Aurretik ikasle izan ditudanekin, esate baterako, prakak ikusteko gogoia dut, baita jakek izaten dituzten forruak ere. Orain arte ez dugu sekula egin. Eta gero, beti moldatzen naiz haien gustuen eta nahien arabera: mutilezkoena zein emakumezkoena egin dezakegu eta.

**Diseinu kontuak gustuko izatea nahikoa da halako ikastaro batera animatzeko?**

### Harrietan mandalak margotzen irakatsiko du Idoia Elexpuruk

Harrietan mandalak margotzen ikasteko saioa egingo du Idoia Elexpuruk, Loramendi elkarteak antolatuta. Ekainaren 15ean, eguena, izango da, 17:30ean, udal txeko zaharrean. Izena aurrez eman behar da, ekainaren 13rako. Hona bideak: [loramendielkartea@gmail.com](mailto:loramendielkartea@gmail.com) edo 685 75 67 29. Prezioa: bazkideentzat 3 euro eta gainerakoentzat 5 euro.



Katalin Antxia diseinatzailea. K.A.

Bai, nahikoa da, bai; ez da ezer jakinda etorri behar, horretarako nago ni!

**Norberak eskuz egindakoa jantzi ahal izatea pozgarria izango da, ezta?**

Zuk egindako gauzak janzteak ematen duena zer den ez dakizu, egin arte. Guztiz gomendagarria da; bai, horixe!

**Kontsumismoa bultzatzen den garaian, slow fashion-aren alde egin duzu zuk The Modubat markarekin; korrontearen aurka zabilta?**

Beste korronte baten alde ari naiz. Bakarra, berezia, kalitatezkoa, iraunkorra, etikoa eta errespetuzkoa dena bestearen aldean.

**Pozik orain arte egin duzun ibilbidearekin?**

Ikaragarri pozik!

Mobiliario  
ARENZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

# Txerrikumeak taldea herriko plazan gaur

Leizarra musika eskolako ikasleek konbo eran hainbat kantu joko dituzte Aretxabaleako Herriko Plazan, gaur, 19:00etan. Bestalde, musika eskolatik irtendako Txerrikumeak taldeko gazteek maketa berriko kantuak eskainiko dituzte

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Aretxarte merkatarik elkartek Udalaren laguntzarekin zazpi ekintza antolatu ditu, ekainean eta uztailean zehar egingo direnak. *7x7 kultura kolean* izeneko egitasmoaren barruan, zazpi astetan zazpi ekintza gauzatuko dira, eta egitasmoari hasiera Leizarra musika eskolak emango dio. Izan ere, konboaren eta Txerrikumeak taldearen emanaldiak izango dira gaur, 19:00etan, Herriko Plazan.

Leizarra musika eskolan ikasurtean zehar ikasitako abesti batzuk joko dituzte hainbat ikasleek konbo eran, eta, ondoren, musika eskolako ikasle izaten jarraitzen duten arren eskolatik harago zabaldu diren Txerrikumeak Aretxabaleako laukoteak beraien kantak eskainiko ditu.

Txerrikumeak taldea Iñaki Azkunagak –gitarra–, Xabi Zazabetiak –baxua–, Julen Ibabek –bateria– eta Xabi Nuñezek –aho-



Txerrikumeak taldeko musikariak Leizarra musika eskolan. I.B

tsa eta gitarrak osatzen dute, eta gogotsu daude kontzertuak eskaintzeko. Izan ere, Txerrikumeak taldeak bost urte ditu sortu zenetik, eta, urtero, Aretxabaleako Portasolgo jaietan, andramaixetan eta hainbat ta-

bernatan kontzertuak egin badituzte ere, gehiago eman nahi dituztela gaineratu dute. Honek azaldu du Iñaki Azkunagak, Txerrikumeak taldeko gitarrak joleak: "Hasieran, punk estiloko kantak jotzen genituen, baina

gaur egun, rock estilora pasatu gara pixka bat. Joko ditugun abesti guztiak gureak dira, nahiz eta bertsio bat ere joko dugun: Arrasateko Dirty Brothers taldearen bat, hain zuzen ere. Gaur, plazan joko dugu, baina emanaldietarako dei gehiago nahiko genituzke, jendeak gure taldea ezagutu dezan...".

## Diskoa kaleratzeko gogoz

Taldeakideek azaldu dutenez, beraien abestiak grabatuta dituzte, eta guztiak beraien mugikorretan dituzten arren, diskoa atera nahi dutela azaldu dute, jendartean zabaltzeko. "Diskoa kaleratzeko, agian, *crowdfunding*-a egin beharko dugu. Enpresaz enpresa joan beharko dugu diru eske edo; izan ere, maketa ateratzeko dirua behar da, diskorako argazkiak atera beharko genituzke... baina egitea da helburuetako bat".

Xabi Nuñez taldekidea letren sortzailea da, eta euskarazko eta gaztelarazko kantuak dituztela adierazi du. "Azken maketan, gaztelarazko kantuak ditugu, batez ere, euskarazko hiru-lau kantu ere baditugu, eta ingelesezko bat ere jotzen dugu".

## Bizitzako pasarteak hizpide

Gai ezberdinak uztartzen dituzte kantuak ateratzeko garaian. Gai sozialak eta egunerokotasunean gertatzen zaizkien gauzak sartzen dituzte kanten letretan. "Gaur egun dugun egoe-

ra, mundua nola dagoen... adierazten saiatzen gara letretan; bestalde, txikitik gertatu zitzaizdan esperientzia bat ere kontatzen dut kantu batean". Horrela azaldu du Nuñezek.

Horrez gain, umorea ere uztartzen dute Txerrikumeak taldeko kideek zuzeneko kontzertuetan; batez ere, Xabi Nuñez abeslariak. Taldekideen esanetan: "Xabi *showman* samarra da kontzertuetan, eta umorez ondo pasatzen saiatzen gara, betiere...".

## Izenarekin gorabeherak

Diskoari ez diote oraindik izenik jarri, eta taldearen izena aldatzeaz ere askotan hitz egin dutela azaldu dute taldekideek. "Oraindik ez dugu erabaki diskoaren izena zein izango den. Bestalde, Txerrikumeak izena ere askotan pentsatu dugu aldatzea, baina, beste izen bat jartzeko pentsatzen hasten garenean, ez gara egokiago batekin ados jartzen...", azaldu du Azkunagak. "Edozelan ere, izenari garrantzia eman barik, herritarrei dei egin nahi diegu kontzertuaz gozatzera etor daitezen...".

## GAI EZBERDINAK UZTARTZEN DITUZTE, EGUNEROKOTASUNEAN ETA GAI SOZIALETAN OINARRITUTAKOAK



MAITE TXINTXURRETA

## Zirkuko jolasak 'Mr Frack'-ekin

Xabi Larreak zirkuko akrobaziak eta jolasak ekarri zituen Iralabarri plazara, *Mr Frack*-en eskutik, eguaztenean, eta elkartutako neska-mutikoei gustura jarraitu zituzten haren xebebrekeriak. Datorren eguaztenean jarraipena izango du kaleko antzerkiak *7x7 kultura kolean* egitasmo

barruan. Bihar taldeak *Karolino eta printzesaren bahiketa* eskainiko du, Santa Kurtzeko plazatxoan (19:00). Eta hilaren 16an, Korri eta Xalto pailazoek *Show berria prestatzen* ikuskizunarekin dantzan eta kantuan jarriko dituzte Gipuzkoa plazako umeak.

## Igeriketa eta nordic walking ikastaroak Ibarra kiroldegian

Igerileku ikastaroa bi txandatan izango da: lehena, uztailaren 3tik 14ra; eta bigarrena, uztailaren 10etik 21ra. Astelehenetik egubakoitzetara 09:00etatik 10:00etara izango da, eta 10-14 urte bitartekoentzat zuzenduta dago. Prezioei dagokienez: abonatuak 10,69 euro eta abonatuak ez direnek 16,03 euro ordaindu beharko dituzte, hain zuzen ere.

Nordic walking ikastaroa, aldiz, uztailaren 3tik 21era izango da. Hori ere asteko egunetan, 17:15etik 18:15era. Abonatuak ez direnek 16,03 euro ordaindu beharko dituzte eta abonatuak, berriz, doan izango dute. Bi ikastaroetako izen-emateak ekainaren 19a baino lehen egin beharko dira.

## Udaero, aisialdi eskaintza programatuta

Aretxabaleako eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin antolatzen duten udako aisialdi eskaintzaren barruan, uztailaren 3tik 7ra bitartean gazte udalekuak izango dituzte eta uztailaren 11tik 14ra bitartean, berriz, Gaztekonkis abentura, Lexargaraten egingo dutena.

Eskaintza berezia bezain ederra prestatu dute; izan ere, Eskoriatzako gaztelekuarekin batera, *paintball*-a Galarretan (Araba), Mutrikuko igerilekura egun-pasa eta *snorkel*-a egitea, *Scap Room* egitea, Usakora irteera, padel surfa egitea, hondartzara eta, nola ez, bikain pasatzeaz batera, lagunak egiteko aukera izango dute.



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea alkatetzan. IMANOL BELOKI

## "Talde lanean egindako lana garatu egin dugu"

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak legealdiko proiektuen gaineko errepassoa egin du. Horrekin batera, 'Konferentzia irekiak Leintz Ibarrean' zikloaren barruan, Javier Larrañaga Gipuzkoako Finantza eta Ogasun diputatua ere izan da batzokian

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Bi urteko legealdiaren ostean, balorazioa egin du Eskoriatzako EAJ alderdiak, eta, horren gaineko azalpenak emateko eta ondoren egingo dituzten proiektuen berri emateko, aurkezpena egin zuen Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak, atzo, batzokian.

Legealdiaren gaineko balorazioa positiboa dela adierazi du alkateak: "Alde batetik, publiko egin genuen proposamen elektoral dagoeneko bideratuta dago. Talde lanean oinarritutako lana garatu egin dugu". Bestalde, adierazi du gainontzeko taldeekin elkarlana bide onetik doala: "Esan beharra dugu dagoeneko Udaleko gainontzeko taldeekin ere elkarlana bideratu dugula; ikusi besterik ez dago 2017ko aurrekontuekin lortu genuena. Eta azpimarratzekoa da osoko bilkuretan lortzen ari garen adostasun maila, gai gehienetan aho batez hartutako erabakiak direlako".

### Bideratutako proiektuak

Hori horrela, proiektu hauek bideratu dituztela azaldu du: "Hondakinak batzeko sistema, herriko hainbat lekutan egin beharreko hobekuntzak martxan jarri ditugu San Pedro kalean, Intxaurtxueta inguruan, Olaeta atzealdean, Dorleta 15era doan espaloia, Santa Ana kaleko espaloia eta ibilbidearen antolaketa, hainbat espaloi garbitzea... kiroldegiaren berrantolaketa hainbat hobekuntza planteatuz, hiri-berritze plana bideratu eta bertan planteatutako proposamenak bideratu, herriko elkarre guztiekin harremanak eta gehienekin lortu da euren aktibitateak bideratzea, ordezkaritza dugun entitate edo elkartetan

**GAINONTZKO TALDEKIN ELKARLANA BIDE ONETIK DOALA ADIERAZI DU JOSERRA ZUBIZARRETA**

parte aktiboa izan, gizarte zerbitzuetan eskaintza zabalago bat bideratu da, merkataritzaren egoera aztertu da eta horren harira hainbat proposamen garatu dira, kultura eskaintza zabaldu eta oparota bultzatu da, horrela urte osoan zehar eskaintza zabaldu eta anitza bultzatzen ari gara...".

### Herritarrei eskerrak

Hala, herritarrei eskertu egin gura izan zien alkateak beraien jarri duten konfiantza eta etengabeko harremana. "Eskertu behar dugu herritarrok guran ipini duten konfiantza eta etengabeko harremana, horri esker herrian egin diren hobekuntzak nabarmenak dira".

### Javier Larrañaga batzokian

Alkateak egindako aurkezpenaren ostean, Javier Larrañaga Gipuzkoako Finantza eta Ogasun diputatua Gipuzkoako kuporen eta zerga-arloaren gaineko hitzaldia eskaini zuen.

## Leiho eta balkoietako loreen lehiaketa abian da

Hamargarren urtez egingo den lehiaketarako izen-ematea zabalik da, kultura etxean

### I.B ESKORIATZA

Aurten, leiho eta balkoietako loreen lehiaketako hamargarren edizioa izango da eta nahi duenak eman dezake izena dagoeneko. Lore apaintetaren diseinua erabat libre izango da, eta ekainaren 12rako balkoi guztiek prest egon beharko dute, epaimahaiak baloratu ahal izateko. Sariak ekainaren 28an osoko bilkuren aretoan emango dira, 18:45ean.

Edozeinek proposatu ahal izango du balkoi edo leiho bat; hau da, norbaitek bere gustuko bal-

koiren bat ikusten baldin badu, balkoi hori proposatu ahal izango du epaimahaiak kontuan har dezan. Aukeratutako balkoi edo leihoen argazkiak kultura etxeko sarreran eta udal webgunean egongo dira ekainaren 19tik 23ra, eskoriatzarrek bozkatu ahal izateko.

Hiru sari banatuko dituzte: 80 euroko saria lehenentzat, 50 eurokoa bigarrenentzat eta 30 eurokoa hirugarrenentzat. Epaimahaiak hala erabakiz gero, aukera izango du accesit bat emateko.



IMANOL SORIANO

## Formatu berrian, Ferixie bikain

Eskoriatzako Ferixie 21. urtez ospatu da. Urtero moduan, artisauen, nekazarien eta bestelako enpresen postuak jarri dituzte herriko erdigunean. Hala ere, berrikuntzak izan dira, eta, eguraldia lagun izan ez bazen ere, jende dezente batu zen azokara. Gazta lehiaketa Gorka Letek irabazi zuen; txapel jaurtiketa txapelketa, berriz, Juan Luis Zubizarretak...





Iazko Udaeron, ur azpian ateratako talde argazkia. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

# Zehaztu dituzte Udaero egitasmoko ekintzak

Gaztelekuko nerabeek egitarau zabala prestatu dute Udaero eta Gaztekonkis ekimeneko seigarren ediziorako. Plaza guztiak beteta, hainbat balio transmititzen saiatuko dira hezitzaileak, hainbat irteera eta ekintza bereziak eginda

**Imanol Beloki** ESKORIATZA Eskoriatzako eta Aretxabaletako 12 eta 16 urte bitarteko nerabeek programatu dituzte uztailean gauzatuko duten Udaero egitasmoaren seigarren edizio-ko ekintzak, egunegun.

Nerabeen parte hartzea sustatu nahian, euren proposamenak eta iradokizunak jaso eta

parte hartzaile guztien artean gaztelekuan adostu zituzten begiraleekin batera, eta, uztailearen 3tik 7ra, mota askotariko irteeren eta ekintzen aldeko apustua egin dute.

Iratxe Arrese Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak azaldu duenez, hainbat irteera eta herrian bertan izango diren ekin-

tzak tartekatzen dituzte, eta, egunerokotasunetik irtenda, ekintza bereziak prestatu nahi izaten dituzte Udaeron, urtero moduan, nerabeei hainbat balio helaraziz: "Nerabeen guraso asko oraindik oporretan egoten dira, eta, gazteek oporretako sentsazio handiagoa izan dezaten, ekintza berezien eta herri-

tik kanporako egun-pasen aldeko apustua eginen dugu".

## Jolasa eta balioak landuz

Gainera, hainbat balio transmititzen saiatzen dira gaztelekuko hezitzaileak: "Elkarbizitza, lagun berriak egitea, bailarako gazteak elkarren artean ezagutzea, naturarekiko zaintza eta errespetua izatea, euskara lantzea baino gehiago, euskaraz bizi izatea... Horiek lantzen ditugu, besteak beste, lagun artean, bi aste eder pasatzeko asmoz", adierazi du Iratxe Arresek.

## Plaza guztiak beteta

Udaero egitasmoan 21 pertsonak eman dute izena eta Gaztekonkis abenturan, berriz, hogeik. Gaztekonkis ekintza Lexargaraten egingo dute; aisialdiaz gain, joakoak egin eta kirolaz gozatzeko aukera izango dute.

## HAINBAT IRTEERA ETA HERRIAN BERTAN IZANGO DIREN EKINTZAK TARTEKATUKO DITUZTE

## Hasi dira danborradako entseguak

Astehenean hasi zituzten San Pedro jaietako bezperan izango den nagusien danborradarako entseguak. Aurten, gainera, Kirol Elkartekoak batuko zaizkie, eta konpainia berri horrek 32 kide izango ditu.

Guztira, 200 parte-hartzaile inguru izango dira danborradan, nahiz eta lehen entseguan ez ziren guztiak batu.



I.B



IMANOL SORIANO

## Erabakitzeko eskubidearen alde

Eskoriatzako herritarrek erabakitzeko eskubidearen aldeko talde argazkia egin zuten zapatuan. Galdera ikurraren itxura ateratzeaz batera, giro aparta izan zen plaza inguruan.

Bide batez, bihar, ekainaren 10ean, Bilbora joateko konpromiso txartelak eta autobusa hartzeko aukera ere izan zen bertan.

# Aste Kulturalaren ostean, eskolako jaiak prest

Asto osoan haurren ekitaldiak ikusteko aukera izan dute gurasoek, baita beraiei zuzendutako hitzaldia ere. Haurrek, aldiz, hainbat ekintza izan dituzte, eta, kurtsuari amaiera emateko, zaturako egun osoko egitaraua prestatu dute

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Aste osoan zehar, Luis Ezeiza Herri Eskolakoek curriculumarekin zerikusi zuzena duten hainbat ekintzatan parte hartu dute: ipuin kontaketak, tailerrak, jolasak, ikasleek prestatutako antzerkiak, abestiak, filmak, bertsoak... izan ere, eskolako Aste Kulturala ospatu dute.

Haurrentzako ekintzak izan dira nagusi, eta asteko ekintzetako bat gurasoentzat zuzendutakoa ere izan da. *Familiaren esku-hartzea seme-alaben heziketan* hitzaldia, hain zuzen ere. Andoni Colas psikologoaren eskutik izan dena. Beste batean, aldiz, umeen antzeppenak ikusteko aukera izan dute...



lazgo azken jaietan. GOIENA

**Zapatuan, azken jaiak**

Ekintza horiei guztiei eta urteari amaiera emateko, eskolako azken jaiak ospatu dute bihar. 11:00etan, ikasleen emanaldiak izango dira Herriko Plazan, baina umeak 10:30erako bertan

egotea komeni dela adierazi dute Luis Ezeizako ordezkariak. 13:00ak arte, berriz, umeendako tailerrak izango dira; hala, aurpegiak margotzeko, txapak egiteko eta maskarak egiteko aukera izango dute.

**Bazkaria eskolako patioan**

Goiz osoa Herriko Plazan pasa ostean, Luis Ezeizarako bidea hartuko dute; izan ere, bazkaria izango dute eskolako arkupeetan. 14:00etan izango da, eta familia bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Hala ere, bazkideek hiru euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek sei eta, bazkide izan edo ez, eskolako ume guztiek euro bana ordaindu beharko dute. Izan ere, edariak –ardoa, sagardoa, gaseosa eta ura–, postrea eta kafea bertan zerbitzatuko direla azaldu dute Koldotxo Guraso Elkarteak.

**Puzgarriak, apar edo disko festa**

Bazkalostean, 15:30etik 18:30era bitartean, puzgarriak izango dira, eta apar edo disko festarekin amaituko dute eguna –eguraldiaren arabera–.

Euria egiten badu, bazkalosteko ekintzak Joseba Inurrategi pilotalekuan egingo dituzte.

## Aste Zapatistako ekintzak astelehenean hasiko dituzte

'EskoZap' taldeak egitarau zabala antolatu du, ekainaren 12tik 17ra bitartean gauzatuko dena

**I.B** ESKORIATZA

Aste Zapatistako hamazazpigarren edizio honetan, *EskoZap* Chiapasen aldeko taldeko kideek ekintza ugari antolatu dituzte kontzientziak pizteko eta beste mundu bat posible dela adierazteko.

Asteari ekiteko, bideo konferentzia egingo da, Skype bidez, *Vivos se los llevaron, vivos los queremos* izenburua izango duena, hain zuzen ere. 43 ikasle normalisten desagerpenaz arituko da Ayotzinapako guraso bat, bere testigantza kontatzen.

Kultura etxean izango da, 19:30ean.

Horrez gain, astean zehar hainbat hitzaldi, ikastaro... izango dira. Zapatuan, ekainaren 17an, berriz, herri bazkari mexikarra egingo da eta txartelak salgai daude, 15 eurotan, Naira, Inkeru, GoxoTxiki eta Txikibarren.

**Hitzordu bitxia: giza barraskiloa**

Astean zehar giza barraskiloa irudikatuko dute EskoZapeko kideek Arizmendi Jose Arana guneko eta Luis Ezeiza ikastetxeetako haurrekin batera.

## OHARRAK

**Ti-tau! lehiaketa**

Umorezko film labur lehiaketa ekainaren 10ean, zapatu honetan, zen egitekoa, baina urriaren 28ra atzeratzea erabaki du antolakuntza taldeak. Hala, data horretan parte-hartze handiagoa izango delakoan.

**Diru laguntzak**

Dagoeneko zabalik dago hutsik dauden lokalak balioan jarritz merkataritzak edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak eskatzeko epea, eta abenduaren 31ra arte egongo da eskatzeko aukera. Oinarriak [eskoriatza.eus](http://eskoriatza.eus) webgunean daude ikusgai.



GI-627 eta GI-3310 errepideen arteko bidegurutzeta. GOOGLE MAPS

## Marisaneko bidegurutzeta egokituko du Foru Aldundiak

Segurtasuna hobetzeko helburuz egingo diren lanak, aurtengo udazkenean hasia aurreikusten dute

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

GI-627 eta GI-3310 errepideen arteko bidegurutzeko segurtasuna hobetze aldera Gipuzkoako Foru Aldundiak obrak egingo ditu Leintz Gatzagan, Gure Ametsa jatetxea –*Marisa*– eta Gatzaga-Gain jatetxeen arteko bidean. Gaur egin den proiektuaren aurkezpenean, Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretarako diputatua izan da lanen berri ematen.

Gasteiztik Eibar-Maltzagara doan GI-627 errepidearen eta Eskoriatzatik Leintz Gatzagara doan GI-3310 errepidearen arteko bidegurutzetan egingo dituzten lanak urtea amaitu aurretik egin nahi ditu Foru Aldundiak, eta aurtengo udazkenean egitea aurreikusten dute. Lan guzti horiek 236.000 euroko aurrekontua dute, BEZa barne, eta obraren iraupena, berriz, hiru hilabetekoa izango da.

**Antzerkia izango da, bihar, zapatua, Gatzagako elizan**

Zurrunka antzerki konpainia *AC-NUN Un ciprés en un desierto* lanarekin izango da Leintz Gatzagan. Umorezko lana elizan antzeztuko da bihar, eta helduei zuzendutako ikuskizuna izango da. 20:30ean hasiko den emanaldian, Eñaut Gorbea eta Mikel Larrea protagonistek ikuskizun berri horren bigarren saioa eskainiko dute.

**Segurtasuna bermatze aldera**

Bidegurutzetan bide segurtasuna hobetzeko helburuarekin egingo dituztela lanak adierazi du Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretarako diputatua: "AP-1 autobidea martxan jarri zenetik trafikoak beheranzko joera badauka ere, oraindik trafiko handia jasaten du errepide horrek, batez ere uda garaian. Lan hauek amaitzen direnean asko irabaziko du segurtasunean", zehaztu du hark.

**T formako bidegurutzeta**

Obraren helburua bidegurutzeta aldatzea dela azaldu dute; hain zuzen ere, T forma duen bidegurutzeta egin gura dute. Modu horretan, ibilbideen artean angelu handiagoa izango da eta, erdigunean itzaroteko erreiak jarrita, ibilgailuek biraketak segurtasun handiagoz egingo dituztela aditzera eman dute.

**Gaztetxoenen adimen emozionala berbagai, adituen eskutik**

Herrian haurrak dituzten familientzat zuzendutako saioa izan zen eguaztenean, Leintz Gatzagako kultura etxean. Bideberri gizarte zerbitzuen mankomunitateak antolatuta, eta Gurelek –Gatzagako guraso elkarteak– eskatuta, *Nola landu dezake familiak hezkuntza emozionala* formazio saioa izan zen, Ainhoa Lauzirika pedagogoaren eskutik.



Hanka Labanka taldearen denboraldi amaierako jaialdia Aramaion, 2006an. HANKA LABANKA

# Hockey torneoa egingo dute bihar pilotalekuan

'Maidar Unda olinpiadak' hasi dira dagoeneko, eta, mus eta briska txapelketen ostean, hockey torneoa izango da asteburuko ekintza nagusia Aramaion; bihar, 09:30ean hasita, hiru txapelketa ezberdin egingo dituzte, patinen gaineko hockeyan

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Gurean horren ohikoa ez den kirol bat izango da protagonista bihar Aramaion: hockeya.

Izan ere, *Maidar Unda olinpiadak* direla eta, patinen gaineko hockey torneoa egingo dute bihar, zapatua, herriko frontoian.

Hiru txapelketa ezberdin egingo dituzte: batetik, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetakoko ikasleek; bestetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetakoko ikasleek; eta, azkenik, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleek. "Eskolan banatu ditugu orri batzuk, ikasleek izena eman dezaten. Hala ere, ez dakigu zenbat ikasle animatuko diren. Parte hartzeko prest dauden haur kopuruaren arabera antolatuko ditugu taldeak eta torneoaren formatua", adierazi du Agustin Oyanguren, torneoaren antolatzaileak.

Hiru zatitan banatuko da pilotalekua eta hiru txapelketak une berean jokatu ahal izango

dira: "Hiru epaile egongo dira eta, hasiera batean, 15 minutuko partiduak egingo ditugu, baina dagoen talde kopuruak baldintzatuko du hori", azaldu du Oyanguren.

Saririk ez da egongo irabazleentzat. Hala ere, txapelketaren amaieran *txoripan* bat eta edaria emango zaie parte hartu duten ikasle guztiei.

## Txikienek ere aukera

Olinpiada horien helburua da, kirola sustatzeaz gain, Aramaio umeek ondo pasatzea. Hori horrela izanik, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik beheko ikasleei bideratutako ekintzak eta jolasak ere egongo dira, hockeyari lotutakoak, "hauek

## LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEK HARTUKO DUTE PARTE, HIRU TXAPELKETATAN BANATUTA

ere parte hartzeko aukera izan dezaten", Oyanguren esanetan. Hori txapelketa bukatzean izango da, 11:30ean.

## Hockey zaletasuna herrian

Aramaion bada kirol horrekiko zaletasuna duenik. Izan ere, herriko bederatzi neska aritzen dira hockeyan herrian: goi mailan ari diren Ione eta Ainhoa Oyangurenz gain, Edurne Ormaechea, Maiuri Lasaga, Deba Agirregomezkorta, Izaro Herbozo, Ane Arejolaleiba, Uxue Arana eta Izar Isacelaya. Lehenengo bostak Hanka Labanka taldean ari dira eta gainontzeko laurak entrenatu bakarrik egiten dira. Asteburu gehienetan entrenatzen dira, Oyanguren esanetan.

Aramaion halako torneo bat antolatuko den lehen aldia da. "Hanka Labankako denboraldi amaierako jaialdi bat egin izan dugu, Bergararik etorritako jokalariekin partidu bat jokatu eta ondoren luntx bat eginaz", dio Oyanguren.



ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

## Aramaioarrak, pilota topaketan

60 ume elkartu ziren pasa den asteburuan Aramaion, Gorbeialdeko pilotarien topaketan. Bestalde, Arabako Herriarteako Aramaio kanporatuta gelditu zen, Zigoitiaren aurka galdu eta gero. Azkenik, gaur Jon Herrartek Euskadiko Binakako Trinkete Txapelketako finala jokatu du, Ander Martinez de Murgiarekin bikote, Hernaniren aurka, Abadiñon, 19:30ean.

## Santa Lucia abesbatzaren emanaldia domekan

Laudioko Santa Lucia abesbatzak emanaldi berezia eskainiko du ekainaren 11n -domeka-, San Martin elizan, 12:30ean. Vital Kutzak antolatutako Arabatik programa barruan sartzen da domekako kontzertua.

Ahots baxua duten 41 gizonz kokosaten dute abesbatza, Beatriz Zurimendi zuzendari eza-gunaren gidaritzapean.

## 'Hau ez da jolasa' ikastaroa ekainaren 20an eta 24an

Gorbeialdeko Kuadrillak antolatuta, eta euskararen sozializazioa helburu hartuta, bailarako udalekuek begirale lanean arituko direnei zuzendutako ikastaroak egongo dira ekainaren 20an eta 24an.

Hiru orduko bi saio izango dira. Batetik, ekainaren 20an Izarrako kultura etxean, 17:00etatik 20:00etara. Bestetik, ekainaren 24an, Aramaioko kultura etxean, 16:00etatik 19:00etara.

Izena eman ahal izateko, [euskara@gorbeialdea.eus](mailto:euskara@gorbeialdea.eus) helbidera idatzi beharko da mezua, ekainaren 16a baino lehen.

Geu elkarteko kideek eskainiko dute ikastaroa eta bertaritutakoek ziurtagiria jasoko dute.

## Antzerkia eta maniki desafioa datorren astean eskolan

San Martin eskolak hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleek antzerkia eskainiko dute, ekainaren 13an -martitzena-, 14:15ean. Bestetik, ekainaren 15ean, eguna, maniki desafioa -*marnequin challenge*- egingo dute, ordu berean, eskolan bertan.

## Inkesta egingo dute, kirol eskaintza hobetzeko asmotan

Irailetik aurrera, kirol eskaintza hobetu gura du Aramaioko Udalak eta beste kirol jardura bat antolatu nahi du, betiere. herriko elkarteei kalterik egin gabe eta dituen baliabideak kontuan hartuta. Horretarako, inkesta bat jarri du martxan -Udalaren webgunean dago lotura-, eta, inkesta hori beteta, herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izango dute, ekainaren 30a bitartean.

Egun, helduentzako bi kirol ekintza programatzen ditu Udalak: nagusientzako sasoian egoteko gimnasia eta pilatesa. Horrez gain, yoga, reikia eta bes-telakoak ere badaude, emakume elkartearen eskaintzaren baitan.

# "Iraganeko eta egungo jaiak lotu nahi izan ditut"

**NAIA BAILEZ** KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

San Martin jaietako kartel irabazlean, antzinako jaietako argazki bat hartu du ardatz Bailezek, eta ondoren, diseinu modernoago batekin osatu du, uztarketa lana eginda

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Bartzelonan bizi da Naia Bailez aramaioarra, eta diseinatzaile dihardu lanean. Handik bidalitako lan batekin irabazi du kartel lehiaketa.

**Zorionak! Espero zenuen irabaztea?**

Eskerrik asko. Egia esan, iaz ere irabazi nuen eta ez nuen espero berriro irabazterik.

**Zer sentitzen da Aramaio jaiak zuk egindako irudi bat edukita?**

Kanpoan bizita, jaietan parte hartzeko beste modu bat dela iruditzen zait. Beraz, jaiari nire ekarpena modu honetan egitea erabaki nuen, eta, bide batez, nuen herrimin hori asetzeko balio izan dit, eta pozik nago.

**Zertan oinarritu zara kartela egiteko? Zer adierazi nahi izan duzu?**

Kartelari, berez, *Jai Alai* jarri nion izenburu moduan, erakusteko nola lehen ere jaiak egoten ziren, nahiz eta ez izan oraingoen berdinak. Iraganera bueltatu nahi izan dut. Azken finean, beti familian eta lagunartean bizi izan ditugun jaiak dira eta herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da bertan. Beraz, iragana eta oraina uztartu nahi izan ditut, betiere, herritarrak protagonistak direla, jendeak gogoratu dezan lehen nola ospatzen ziren jaiak.

**Azken finean, jaiak antzintatik datoz.**

Hori da. Nahiz eta kartela modernoan izan daitekeen, berez, sustraiak iraganean dauzka eta argazki zahar horrekin benetako jaia irudikatu nahi izan dut, herrikoa eta parte-hartzailea.

**Lan handia eman dizu kartela egiteak?**

Lan tekniko aldetik, argazkiaren tratamendua dago eta diseinuaren aldetik, bozeto mordo bat. Bide bat da, azken finean. Kartel hau ez da bat-batean egindako zerbaite. Proba asko egin ditut emaitzara iritsi arte. Ikusten ez den lan bat dago kartelaren atzean. Puntu horretara iristeko, informazioa lortu, argazki ego-



Naia Bailez, kartel irabazlearekin. N.B.

kia lortu eta ondoren daukazun materialari tratamendu egokia eman behar zaio.

**Emaitzarekin gustura?**

Bai. Nik, berez, bi lan aurkeztu nituen eta ez nuen espero honek irabaztea, besteari aukera gehia-

go ikusten nizkion. Gainera, herritarrei gustatu zaie kartela eta adierazi nahi izan dudana. Horrek ematen dit niri poztasun handiena. Gainera, etxez etxe nire kartela banatuko da eta hori ere polita da.



Kartel irabazlea, haurren kategorian. ARAMAIOKO UDALA

## Beñat Iñarrarena ere onena

Beñat Iñarraren kartela izan da garailea haurren kategoriako lehiaketan. Hirugarren aldiz irabazi du Iñarrak haurren kategoriako lehiaketa. "Ez nuen espero aurten irabazterik, ez dut eta beste urte batzuetako esfortzu bera egin. Hala ere, oso pozik nago", dio.



NIRE USTEZ

XABI IGOA

## Betikoak

Igandea, arratsaldeko zazpietarako lau edo bost minutu falta dira, euria ari du Bergarako txosna-gunean. Melankolia burgesaren gorespina. Bai, Anari igo da oholtzara. Elgetako zerbezari trago jo eta lehenengo akordeak entzun ditugu. Bide batez, ona zerbeza.

Gerturatu da lagun bat eta hasi gara hizketan: "Ona da gero e". "Bai, igande arratsalde baterako plan bikaina." "Pena betikoak gaudela... atzo ere Gasteizen hala izango zineten, ezta?...". Laguna aurreneko ilarara joan da. Betikoak... ez du mespretxuzko tonuan esan, triste sumatu dut, ordea.

*Guk argi daukagu* pankartaren atzean 8.000 pertsona bildu ginen, hori "betikoak" baino gehiago izango da, edo? Ez, ez nion esan, lastima. Gazte batzuen ekimenak bildu zituen zazpi zutabe, eta zutabe bakoitzak aldarri bat, eta "betikoak" denean ez ziren izango, edo? Eta betikoak bagara, zer? Agian, betikoak gara igande arratsalde euritsu baten sofán Antena3ko filma ikusi nahi ez dugunok, edo gure munduaz beste... bat egin nahi dugunok.



AIZPEA AJURIAGERRA

## Azken jaia, "arrakastatsua"

Pasa den zapatuan, San Martin eskolako azken jaia ospatu zuten Aramaion. Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasleen pregoia entzun ondoren, erraldoi eta buruhandien kalejira, tailerrak, bazkaria, bingoa eta euskal jolasak egin zituzten. 100 lagun batu ziren eta ikastetxeko ordezkariak hauxe adierazi dute: "Oso polita izan zen eguna eta ederto pasatu guren".

## Aldundiko garraio diru laguntzak argitaratu dituzte

2016/17 ikasturtean unibertsitateko, batxilergoko, erdi mailako edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin eta bizi diren udalerritik beste udalerriri batera joan behar duten ikasleei zuzendutako diru laguntzak argitaratu ditu Arabako Foru Aldundiak. Eskerak aurkezteko epea ekainaren 30an amaituko da.

## Ekainaren 15ean hitzaldia, Jabier Sotoren eskutik

*Antzinako argazkiak ondare dokumentu bezala* izeneko hitzaldia eskainiko du Jabier Soto argazkilari gasteitarrak Sastiñan ekainaren 15ean, eguna, 19:00etan. "Nik defendatu beharra daukat guregana iritsi diren argazkiak dokumentu oso garrantzitsuak direla, horrek esan nahiko duelako ondare kalifikazioa jaso dutela", dio Sotok.



Astelehenean goraino bete zen zezen-plaza kuadrillen arteko jolasez gozatzeko.



Egubakoitzeko haur eta gurasoendako parrilladaren ostean, txikiendako ikuskizuna.



Xaxauk lotutako txarangari jarraiki gaupaseroek lrala hartu zuten uenea, zapatu goizean.



lazko jaietatik aurtengoetara jαιο direnei ongietorria egin zieten udal ordezkariak, zapia jarrita. Ondoren, talde argazkia atera zuten.

# Festak, bustiak bezain biziak

Euriak eraginda Pentekosteetako ekintza batzuk bertan behera utzi behar izan dira eta beste batzuk frontoira pasatu, baina girorik ez da falta izan; intzidentzia aldetik "jai lasaiak" izan dira eta txosnagunean, berriz, "inoiz baino jende gehiago" ibili da

**Jokin Bereziartua** BERGARA  
Eguraldiak baldintzatutako Pentekosteak izan dira aurtengoak, zalantza barik. Astelehenean ona egin zuen, eta berez bergarrendako kutunena den eguna are jendetsuagoa egin zuen horrek. Jai bustiak izan dira, bai, baina baita biziak ere. "Batetik, pozik gaude giro txarra egin duenean ere bergarrek ondo erantzun dutelako. Bestetik, triste ere bagaude euriagatik hainbat ekitaldi bertan behera geratu behar izan direlako", adiera-

zi du jaietako zinegotzi Maite Agirrek. Inork gura ez zuen protagonista izan delako euria, bereziki egubakoitzetik domekara. Hala, bandaren eta txistularien kontzertuak frontoian egin behar izan ziren, umeendako goitibehera saioa bertan behera geratu zen... "Jaietako ekitaldiak kalean bizitzekoak izan behar dira, baina euriak zuzenean eragin digu; saiatu gara azkenera arte ekintzak kalean mantentzen, baina kasu batzuetan ezinezkoa izan da.

Hala ere, euriak ez ditu herri-tarren animoak kikildu eta hori eskertzekoa da", gaineratu du.

**Intzidentzia aldetik, "lasaiagoak"**  
Bestalde, Alfonso Alonso udaltzainburuaren arabera, "jai lasaiak" izan dira: "Lapurretak izan dira intzidentzia aipagarrienak. 29 salaketa jaso ditugu, bereziki mugikorrek eta diru-zorroak ostu izanagatik. Gainerakoan, ez dugu bestelako gertakari aipagarririk izan". Egubakoitzean, jaietako lehen



Udal Musika Bandaren domekako kontzertua Espoioian beharrean pilotalekuan egin behar izan zuten, euriagatik.



Asteleheneko herri bazkariko parte hartzeak nabarmen egin du behera aurtan.



gauean, izan zen lapurreta gehien: "16 mugikor lapurtu dituzte eta 20 diru-zorrotik gora agertu dira kalean botata". Horrez gain, Alonsok dio eguraldi txarra egitean jende gutxiago egon dela eta horrek lagundu duela intzidentzia kopurua txikitzen. "Hiru edo lau lekutan bakarrik topatu dugu *boteiloia* eta zapatu gauean liskar txiki bat izan zen, baina ezer larririk ez. Beste urte batzuekin alderatuta, festa lasaia-goak izan dira".

### Xaxau: "Oso pozik gaude"

Txosnagunea izan da, urteroko moduan, Pentekosteetako eremu nagusietako bat. Bideberriko gunea kudeatzen duen Xaxau konpartsa oso pozik dago aurtengo festekin: "Txosnak, ireki ziren egunetik jaiak amaitu arte, topera egon dira. Sekula baino jende gehiago ibili da aurtetik; beste urte batzuetan zenbait tartetan beheraldiak izaten ziren baina aurtetik txosnagunea irekita egon den une guztietan jendea ibili da. Oso pozik gaude", adierazi du Xaxauko Nerea Madariagak. Eguraldiak ez du lagundu baina Xaxaukoek ez dute

ia igarri ere egin, ekintza guztiek izan dute eta harrera ona. Hori bai, ez da dena polita izan; zapatu goizaldean lapurretan egin zuten txosna baten: "Herriari lapurtzea lotsa gutxiko kontua bada, are lotsagarriagoa iruditzen zaigu jai herrikoiak antolatzen ari garenon muturren aurrean egin izana. Herri osoari egin diote eraso", adierazi zuen konpartsa herrikoiak ohar bidez. Amaitzeko, aurtengo argazkia gaupaseroena izan dela uste du Madariagak: "Txosnetako argazkia ederra izan zen, eta ondoren txarangarekin egingako kalejira zer esanik ez. Gaupaseroek ez zuten jakiten nora jo txosnak itxi ostean eta aurtetik horregatik lotu genuen txaranga. Ederto funtzionatu du".

### Herri bazkarian, beherakada

Jaien aurretik zeresana eman zuten Udalak antolatzen duen asteleheneko herri bazkarian alkoholik ez ateratzeko erabakiak. Bazkariko parte-hartzea nabarmen jaitsi da; azken urteetan 700 lagun inguru elkartu izan dira eta aurtetik 200 bat bakarrik elkartu dira.



Emonek jende asko erakarri zuen txosnetara, Omen moduan eman zuten azken festan.



Goitibeheren proba bustia izan zen.



Idi-probak, jaietako azken egunean.



Kotoi eta Mahoi, aurtengo erraldoi berriak. ARGAZKIAK: A. AGIRIANO, XAXAU, I. SORIANO ETA J.B.



RPS: 207/12

## CLINICA DENTAL BERGARA

20 urte baina gehiagoko  
esperientzia  
inplantologian

*Izugarri kostatzen zaizu  
dentistarengana joatea?  
Gurekin ez!*

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguruetan estaldura



# "2018-2019 ikasturtea hemen abiatu nahi dugu"

**JOSUNE IRAZABAL** MIGUEL ALTUNA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Obrek hiru hilabeteko atzerapena izan arren, zuzendaria pozik dago lanak aurrera doazelako: "Hobekuntza nagusia tailerretan igarriko da, azalera handia hartuko du"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Lau urte daramatza Josune Irazabalek Miguel Altuna Institutuko zuzendari. GOIENAK eraikin berrien obretan egin du hitzordua Irazabalekin lanei jarraipena egiteko asmoz; elkarriri lotuta egongo diren bi eraikinek 10.000 metro koadroko azalera hartuko dute eta Ferrovial Agroman da enpresa eraikitzailea, zazpi milioi euro pasako aurrekontuarekin. Ikasturte honetan ia 700 ikasle izan dituzte –hasierako formazioan 500 bat eta lanerako formazioan 250 inguru–.

**Hasteko: nola doaz lanak?**

Badoaz, poliki-poliki. Obren amaiera-data 2017ko abendurako zegoen finkatuta eta orain 2018ko martxoa jarri dute data moduan. Hiru hilabeteko atzerapen horrek ez gaitu aakorik kezkatzen; lanak martxan daude, hori da garrantzitsuen.

**Luzea izan da obrak martxan ikusi ahal izateko itxaronaldia?**

Bai, urte asko izan dira. Gogoratu behar da proiektu hau 2001etik datorrela eta aldaketa asko izan dituela.

**Zer nabarmenduko zenuke eraikinek izango dituzten ezaugarrietatik? Non igarriko duzue aldaketa?**

Hobekuntza nagusia tailerretan igarriko da, ikasleendako arlo praktikoan. Tailerretarako guñeak azalera handia hartuko du, dena solairu bakarrean. Alboan ikasgela teknologikoak izango ditu, gela zabalak, handiak eta ekipamendu egokiarekin.

**Eraikin berriek asebeteko dituzte Miguel Altunaren beharrak?**

Halaxe espero dugu. Borroka handia egon da, jende asko inplikatu zen duela zenbait urte. Eraikin zaharra oso ondo dago kokatuta, baina ez ditu baldintzak betetzen; zaharkitua dago [1928an altxatu zen eraikina], leku falta nabarmena da, irisgarritasun falta... Zerbait egin beharra zegoen, eta jende asko



Josune Irazabal, eraikin berrien obren atarian, asteon. JOKIN BEREZIARTUA

## "BORROKA HANDIA EGON DA, JENDE ASKOREN LANAREN ONDOREN LORTU DA EGOITZA BERRIA"

ren lanaren ondoren lortu da. Egoitza berria martxan jartzen denean, eraikineki etekina ateratzeko egingo dugu lan. Aprobetxatu beharreko aukera da. **Ze ikasturtetan espero duzue hasiera lanean eraikin berrietan?**

Asmoa da 2018ko irailean hastea, 2018-2019 ikasturtea hemen abiatu nahi dugu. Obrak martxoan amaitzen badira, aprobetxatuko genuke bigarren mailako ikasleak garai horretan enpresetara joaten direla praktikak egitera lekualdaketa arintzeko. Beraz, bigarren mailako ikasleek erabiltzen dituzten geletako materiala martxoan mugitzen hasiko ginatke. Hori bai, makineria astuna nola mugitu ez dugu erabaki oraindik. Hori izango da lanik gogorrena, tailerretarako ekipamendua eta makinak mugitzea. Aurrerago zehaztuko dugu hori guztia nola egin.

**Eskaintza zabalagatik berezitu izan da beti Miguel Altuna Institutua. Gaur egungo eskaintzatik, zer nabarmenduko zenuke?**

Industriarekin dugun lotura. Ziklo guztiek dute industriarekin harreman zuzena eta enpresengandik oso gertu gaude. Enpresen beharrak eta profilak betetzen dituzten ikasleak prestatzea da gure egiteko nagusia, eta bide horretan jarraituko dugu.

**Eta bide horretan antolatutako Dual sistemaren jardunaldiak. Oso ondo joan ziren. Dual sistema geratzeko etorri da; duela lau urte abiatu genuen, oso ikasle gutxiarekin, eta urtez urte arrakasta handitzen doa. Ikasle gehiago eta enpresaren arteko harremanak estutzeaz harago, ikaslea enpresan bertan dago bigarren urtetik. Formula egokia dela uste dugu; izan ere, onuragarria da ikasleendako, enpresendako eta, beraz, guretzako.**

**Gaur egungo eraikinarekin zer egingo den badakizue?**  
Ez. Hitzarmen batean jasotzen denez, erdia Eusko Jaurlaritzarena da eta beste erdia Bergarako Udalarena. Ez dakigu zer egingo duten; dakiguna da eraikina hutsik utzi behar dugula.

## Bihar irekiko dituzte kanpoko igerilekuak, irailaren 15era arte

Putzuan 187 lagun baino gehiago egonez gero, sorosleek protokoloa jarraitu eta txandatzea bermatuko dute

**J.B. BERGARA**

Bihar, zapatua, hasi eta irailaren 15era arte, Agorrosin kirolguneako kanpoko igerilekuak gozatzeko aukera izango dute bergararrek. Honako hau izango da kanpoko eremuaren ordutegia: ekaineko, uztaileko eta irailako astegunetan 07:00etatik 22:00etara eta ekaineko, uztaileko eta irailako aste bukaeretan zein jaiegunetan eta abuztu osoan, berriz, 09:00etatik 21:00etara. Igerilekuko putzuak 187 lagunendako lekua du, eta, kopuru hori gaindituz gero, sorosleek

protokoloa jarraituko dute erabiltzaileen txandatzea bermatzeko. Bide batez, sorosleen esanak eta arautegia errespetatzeko dei egin dute arduradunek.

Azken urteetako ohiturari eutsiz, ekainaren 26tik uztailearen 21era liburutegi-zerbitzua eskainiko da Agorrosingo berdegunean, 15:00etatik 18:00etara. Bertan, erabiltzaile guztiek liburuak maileguan jasotzeko aukera izango dute: maileguak, erreserbak eta eskaerak bideratzeko "gune egokia" deritzo Udalak, "irakurzaletasuna lantzeko".

## Leire Martinen aldeko jaialdiko eta afariko txartelak salgai dira

Muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin Pinedaren aldeko ekainaren 17ko jaialdi handirako sarrerak salgai daude oraindik, honako helbide honetan: <https://labur.eus/5u3V6>. Bestalde, 200 lagunendako afaria antolatuko dute IGAM taldekoek, San Martin plazan (21:30). Afarirako txartelak salgai daude dagoeneko Depor eta Bule tabernetan –zeliakoendakoak Ibargaraiko Mapfren erosi ahal dira–, 12 eurotan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, afarira joaterik ez izan arren lagundu gura duten herritarrendako zenbaki gabeko txartelak ere atera dituzte. Afariko janaria herriko komertzioek jarritakoa izango da.

## Osasun arreta euskaraz eskatu dutenak, hirukoiztu

*Nik euskaraz nahi dut* Osakidetza kanpainak eman ditu fruituak. 2016ko apiril amaieran %8 ziren Osakidetzaekin lehentasunez harremana euskaraz izan nahi zutela adierazi zuten bergararrak; urtebete geroago, %23 izan dira: 3.585 herritar. Bailaran ere antzeko bilakaera izan da: 2016an %8,7 eta gaur egun, %23. Paziente bakoitzaren fitxan lehentasunezko hizkuntza euskara hautatu dutenei, ahal dela, profesional euskaldunak jarri eta arreta euskaraz eskainiko die Osakidetza. Osasun arreta euskaraz jasotzeko hiru bide daude: osasun zentrori bertaratzea, familia medikuari adieraztea edo Internetez.

## OHARRAK

### Alzheimerra ezagutzeko saioa ekainaren 15ean

Bergarako osasun zentroari eta San Joxepe elkarteari esker, ekainaren 15ean alzheimerraren gaineko hitzaldia egingo dute Miguel Altuna Institutuko areto nagusian (18:30). Gaixotasunaren gaineko azalpenak emateaz gain, prebentziorako neurriak eta gaitzak zaintzaileen artean dituen ondorioen berri emango du gaixotasunaren bueltan lanean ari den Afagiko langile batek.

### 1937an jaiotako ospakizuna hilaren 25ean

1937an jaiotako bergararrak Azpeiti jatetxean elkartuko dira ekainaren 25ean, 14:30ean. Izena eman gura duena Kortazar txokolategitik pasatu beharko da bazkarirako txartela hartzeko, ekainaren 22a baino lehen. Txartelaren prezioa: 20 euro.



Iazko hiruko txapelketako zapatuko partiduak Labegaraietan jokatu behar izan ziren eguraldi txarragatik. IMANOL SORIANO

# Dena gertu hiruko saskibaloia ren festarako

Ekainaren 24an eta 25ean jokatu da txapelketa eta izena emateko azken eguna da ekainaren 20a; hamargarren edizioan ekintza bereziak antolatu dituzte; adibidez, 8 eta 12 urte arteko nesken saskibaloia sustatzea helburu duen lehenengo Puleva kopa

## Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako hiruko saskibaloia festak inoiz baino osagai gehiago izango ditu aurten. Txapelketaren hamargarren edizioa izanik, Bergara Kirol Elkarteko saskibaloia saileko arduradunek ekintza bereziak antolatu dituzte. Ohiko hiruko txapelketarako izena emateko aukera dago [www.bergarake.com](http://www.bergarake.com) webgunean, ekainaren 20ra arte.

Urtero legez, San Martin plazan jokatu da –euria egiten badu Labegaraietan–, aurten ekainaren 24an eta 25ean. Hilaren 24an infantilek, kadeteek eta junior mailakoek jokatu dute lehenengo (10:00) eta ondoren senior guztien txanda izango da (16:00). Ekainaren 25ean, aldiz, alebinak eta benjaminak (10:00) izango dira protagonista. Gainera, bailarako senior, junior eta kadete mailetan sailkatzen den lehen talde bergararrak afari bat izango du, baldin eta ez badute txapelketako irabazleak izatea lortzen.

## Maila eta ekintza berriak

Iazko hiruko txapelketarekin alderatuta, maila berriak sortu dituzte aurten; honako hauek izango dira maila guztiak: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, juniorrak, senior berteranoak, senior kuadrillak eta elite mailako seniorrak. Maila bakoitzean lehen bi taldeek jasoko dute saria eta aurten ere kiroltasun handiena erakusten duen taldea ere sarituko dute. Beste nobedade bat izango da ekainaren 25ean saskibaloia egokitua egiten duen talde profesional bat ere etorriko dela, 11:00etatik 12:00etara. "Umeen aurrean erakustaldi bat egingo dute, beste errealitate batzuk ezagutu ditzaten. Azken urteetan kon-

**KIROL EGOKITUAN LEHIATZEN DEN TALDE PROFESIONAL BAT ERE ETORRIKO DA, EKAINAREN 25EAN**

tzientziaziorako ekintzak antolatu izan ditugu. Iaz, adibidez, ASPACEKO bi lagun etorri ziren", dio BKEko Marian Melladok.

Hilaren 24ko afarirako txartelak, bestalde, salgai daude Ganbara, Etxagi, Depor eta Egon tabernetan. Horrez gain, ekainaren 22an *Space Jam* filma ikusi ahalko da Zabalotegin (19:00), doan. Eta oraindik data zehaztu ez badute ere, "goi mailako adituekin" osatutako mahai-inguru bat prestatzen dabilta.

## Puleva kopa lehen aldiz

Nobedadeekin jarraituz, lehen aldiz antolatu dute 8 eta 12 urte arteko –benjaminak eta alebinak– neskei zuzendutako Puleva kopa. "Kopa horren helburua da neskei, hazkuntza fasean, kirola praktikatzera bultzatzea", argitu du Melladok. Hala, alebinetan zortzi taldek –Gipuzkoako hiru, Bizkaiko hiru eta Arabako bi– hartuko dute parte eta benjaminetan, berriz, sei taldek –probinzia bakoitzetik bi talde–



Seminarioko karpan egin zuten aurkezpena eguazten eguerdian. AMAIA TXINTXURRETA

## Denboraldi bikaina borobiltzera datorren Mahonero Eguna bihar

Domekan emakumezko Euskal Herriko kopako finalerdia jokatu dute Realak eta Gasteizko Aurrerak, 17:00etan

## J.B. BERGARA

Nekez ahaztuko dute 2016-2017 denboraldia Bergara Kirol Elkarteko futbol sailekoek. Mailaz igotzea oso zaila izaten bada, aurten lehen bi taldeek lortu dute igoera. Badute zer ospatu, beraz. Aurten bigarren urtez antolatuko du BKEk Mahonero Eguna. Iaz egun batera mugatu zituzten ospakizunak eta aurten asteburu osorako plana antolatu dute. Bi gune hartuko ditu ospakizunak: seminarioko karpak eta Agorrosin. Gaur hasiko dituzte ekintzak seminarioko karpan: iluntzean trikitilari eta buruhandiak izango dira eta 21:00etatik aurrera parrillan egindako jakiak afaldu ahalko dira. Ondoren, 22:30ean, kontzertuak izango dira: Aitor Garitano eta Olatz Muruamendiaraz, eta Biks & Pilots taldea.

## 400 lagunendako bazkaria

Zapatuan, goizetik hasiko dira ekintzak. Umeendako puzgarriak, jolasak eta futbol jokoak (10:00), zumba ikastaro irekia Camden Town akademiako eskutik (12:00), seminariotik abiatutako triki-potea buruhandiek (13:00) eta herri bazkaria (14:30); bazkarirako txartelak salgai duade Depor eta Bule tabernetan.

Bazkalostean banatuko dituzte Mahonero Sariak eta zozketa ere egingo dute. "Sariokin bilatzen duguna da kirol errendimendua saritzea; gizonetako eta emakumezko onenak sarituko ditugu. Beste sari batzuk ere izango dira klubaren balioak

defendatzen dituztenak. Eta bazkideendako eta kolaboratzaileendako ere izango da erreko nozimendua egiten duten lana eskertzeko", azaldu du BKEko jarduneko presidente Iosu Elortzak. Sari banaketaren ostean, mus eta mahai-futbol txapelketak (17:30), DJ Julenek gidatutako karaokea eta dantzaldia (18:00), parrillada (21:00) eta DJ Julenek gidatutako musika festa (22:00) izango dituzte.

**Emakumezkoen futbola ere bai** BKEko ordezkariak emakumezkoen futbola hauspotzen jarraitzeko aspaldi zehaztu zuten erronkari eutsiz, Euskal Herriko emakumezkoen kopako finalerdia jokatu dira domekan Agorrosingo berdegunean. Goi mailako partidua, Realaren eta Gasteizko Aurreraren artekoa (17:00). "Urte batzuk daramatza txapelketa honek emakumeen futbola sustatzen eta Bergarara finalerdi bat ekartzeko aukera izan dugulako oso pozik gaude. Uste dugu gizonetako ere ona dela halako partidua Agorrosinen ikusteko aukera izatea". Kopako finalerdiaren aurretik, bailarako emakumeen futbola ere izango da ikusgai Ipintzako zelaian. Bergarak eta Mondrak lagunartekoa jokatu dute, 15:30ean. Ipintzako harmaila berriak lehen aldiz erabili ahalko dira partidua horretan.

Gaur egun, 420 jokalarik eta entrenatzaile lanetan edo zuzendaritzan diharduten beste 60 lagun inguruk osatzen dute BKE.

# 'Turtukiña': erakustera datorren fanzine berria

Bergaran sortutako proiektua da 'Turtukiña' fanzinea, eta bihar gauean, zapatua, lehendabiziko zenbakia aurkeztuko dute gaztetxean. Ia berrogei orrialde ditu aldizkari horrek, eta askotariko edukiak dakartza, betaurreko moreekin landutakoak

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Fanzine berri bat jaio da Bergaran: *Turtukiña*. Lehenengo zenbakia dagoeneko gertu daukate, eta bihar ikusiko du argia, sortze prozesuan urtebete inguruz aritu ostean.

Proiektua eta lehendabiziko zenbakia bera aurkezteko ekitaldia egingo dute bihar, zapatua, kartzela zaharrea. Gauez izango da, 22:00 aldean hasita. Lehenago, 21:30ean, paella-jana egingo dute afari modura, eta ondorengo ekitaldian hainbat sorpresa izango dira. Sortzaileek herritarrek gonbidatu nahi izan dituzte aurkezpena gerturatu eta *Turtukiña* ezagutzera.

Bergarako euskaran *alua* esan nahi du *turtukiña* berbak, hain zuzen. "*Andria andria danak belaunak junto eta turtukiña tapauta*". Gu belaunak zabaltzera gatoz, turtukiña erakustera. Ikutzean sentitzen delako egiten dugu paperean. Espazio propioa, konpartitua eta konektatua. Be-



Bergarako Pentekoste jaietako egubakoitzeko Turtukiñak DJ saioa. AITOR AGIRIANO

taurreko moreekin, irakurri, gozatu. Plazera gurea da". Hala dio aurkezpen manifestuak.

## Lehen zenbakian zer?

*Turtukiña*-ren lehen zenbaki horrek ia berrogei orrialde ditu,

eta askotariko edukiak topatu ahal izango dira horietan barrena. Esaterako, arte eta kultura eduki ugari: poemak, collageak, ilustrazioak... baina baita, adibidez, dantza debekatuen gaia jorratuko duen erreportajea ere,

eta gurutzegramak eta guzti izango ditu.

Proiektua sortzeko zergatiaren inguruan galdetuta, honako hau azaldu dute *Turtukiña* fanzinearen sortzaileek: "Ikusten genuen musika munduan, artean, zein kulturarekin lotura duten hainbat arlotan oso sare maskulinoak daudela eta sarri emakumeok zailtasunak izaten ditugula horietan sartzeko; hori dela eta, emakumez sortutako proiektu hau sortzea pentsatu genuen".

Azaldu dute sortzaile bakoitzak autonomia izan duela nahi izan dituen gaiak jorratzeko. Hori bai, betaurreko moreak jantzita sortu dituzte gaiok, orokorrean.

Horrez gain, "konpartitua eta konektatzea" garrantzitsua dela uste dute *Turtukiña*-koek, loturak eta sareak sortzeko: "Sarri, emakumeen sorkuntza barnera begira egiten da, eta kosta egiten da kanpora helaraztea". Horren adibide, igaro berri diren pazkoetan txosnagunean izan zen Turtukiñak DJ saioa.

## Non eskuratu

Biharko aurkezpen ekitaldian bertan izango da *Turtukiña* fanzinearen lehen zenbakia paperean eskuratzeko aukera, bi euroren truke, eta herriko hainbat tabernatan eskuragarri jarri nahi dute. Horrez gain, Internetez doan deskargatzeko aukera izango da bihartik aurrera, *Archive.org* eta *Issuu* webguneetan zintzilikatuko baitute.

## Gaztetxearen 17. urteurrena

Gaztetxearen 17 urteak ospatzeko egitarau mardula prestatu dute. Gaur bertan izango da lehen hitzordua, 19:00etan.

*Etxebizitzaren merkantilizazioa eta alternatibak* berbaldia eskainiko dute HIREKIn taldekoek. Bihar, Turtukiñaren aurkezpena. Astelehenean, *Maitepoztu, ez maitemindu* tailerra, harreman osasuntsuei buruzkoa (18:30).

Hilaren 14an Koldo Almandozen *Sipo Phantasma* filma emango dute (20:00), eta gero, solasaldia izango da; zuzendaria bera han izango da.

Egubakoitzean, El Desvan Del Macho eta Norman taldeen kontzertua izango da (22:30). Horiek datozen egunetako hitzorduak, baina ekainaren 10era arte askoz gehiago izango dira.



Egitarau osoa ikusteko, eskaneatu QR kodea poltsikoko telefonoarekin.

## Musika eta Dantza Eskolan ikasitakoa taula gainera

San Martin plazan ikasturte bukaerako ikuskizuna eskainiko dute dantzari eta musikariek gaur gauean

**M.T. BERGARA**

Gaur, egubakoitza, Musika eta Dantza Eskolako ikasleek ikuskizun berezia eskainiko dute, 22:00etan, San Martin Plazan. Estilo desberdinak jorratuko dituzte, emanaldirako espresuki prestatutako koreografiekin.

Eneko Galdos irakaslearen gidaritzapean, 6 urtetik gorako 50 dantzari batuko dira taula gainean –ikasleak, irakasleak zein gurasoak–, hamazazpi musikarirekin eta ahots bakarlariekin. Urtean zehar dantza tradizionalak lantzen dituzten

arren, sormen lana ere jorratzen dute, eta ekitaldia horren erakusle izango da. Besteak beste, kalejira eta aurrekua, habanera, polka, banakoa eta arin-arina dantzatuko dituzte, koreografia bereziekin.

Dantzo laguntzeko, askotariko estiloetako kantuen moldaketak prestatu dituzte: Xabier Solanoren fandangoa, Amayaren ezpata dantza, *Amélie*-ren soinu bandako abestia, Huntzaren kalejira.... Beñat Kortabarria eta Alaine Egizabal arituko dira aurkezle lanetan.

## Musika, dantza, kirola eta giro ona San Antonioko jaietarako

Sardina-jana, auzo bazkaria, txirrindulari proba... urteroko hitzorduak ez dira falta izango

**M.T. BERGARA**

Bihar 12:00etan hasiko dira San Antonioko jaiak, kanpai iraultzearekin eta txupinarekin. Gero, taberna irekiko dute eta zezentxoak eta poneyak izango dira.

17:00etan, txirrindulari lasterketa izango da, 81. San Antonio saria, 17. Honorio Agirregabiria memoriale, kadeteen erlojupekoa. Jarraian, buruhandiak eta umeendako jolasak hasiko dira. Iluntzean, sardina-jana eta Itzallak taldearekin musika.

Domekan, 11:00etan txistularien diana izango da. 13:00etan,

berriz, txistularien kontzertua, eta ondoren bazkaria –tiketak, 25 eurotan, Cristina estankoa eta Gure Ametsan eskuragarri–. 18:30etik aurrera, buruhandiak.

Astelehenean, San Antonio bezperan, batetik, otoitzaldia izango da ermitan, bailarako osasun pastoralak antolatuta eta Jon Molinak gidatuta. 16:00etan. Bederatziurrena eta salbea auzoko ermitan (18:30).

Bukatzeke, martitzenean, San Antonio eguna, meza (11:00), San Joxepe abesbatzaren kontzertua (12:00) eta luntxa izango dira.

## 32. Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa bihar

Bihar, ekainak 10, zapatua, Bergarako Udaleko Euskara batzordeak antolatzen duen Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 32. edizioko sari banaketa egingo dute, 12:00etan hasita, Udal Pilotalekuan.

Azken urteetan bezala, genero desberdinak lantzeko aukera izan dute lehiaketako parte hartzaileek, hala nola ipuin idatzia, bertso edo koplak, komikia eta interpretazioa eta kontaketa. Hortaz, 30 sari inguru banatuko dituzte denera.

Biharko sari banaketa ekitaldian, gainera, ikastetxeetako neska-mutikoei emanalditxoak tartekatuko dituzte: bertsoak, kantuak, dantzak...

# GOIENA ALDIZKARIA NAGUSI DEBAGOIENEAN



## Eta gainera:

- **Goiena Aldizkaria:** 39.000 irakurle Gipuzkoan.\*
- **Goiena Telebista:** 6.000 ikus-entzule Gipuzkoan.\*
- **Goiena.eus:** 6.000 bisitari bakar egunean, astean barrena.\*\*

\*CIESen urteko lehen neurketa. \*\*Google Analytics

# Zorroztarrietan azterketa geoteknikoa egingo dute

Antzuolako autobide zatia egiten diharduen Mariezcurrena enpresak industrialdea egitea posible den aztertuko du. Horretarako, azterketa geotekniko sakona egingo du eta kostua ere bere gain hartuko duela azaldu zuen alkateak osoko bilkuran

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Hainbat gai onartu eta beste pare bat gairen gaineko informazioa eman zuen Udal Gobernuak martitzen arratsaldeko Antzuolako Udalaren ohiko osoko bilkuran.

Onartu ziren gaien artean, Fronte Polisarioaren eskaera. Hau da, aurtengo *Oporrak bakan* programa diruz laguntzearena. Hala, 685 euro bideratuko dira saharar bati oporraldia herrian igaro dezan laguntzeko.

Bestetik, abeltzaintza ustiatarako arau aldaketa onartu zuten. Modu horretan, norbaitek lehen sektoreko negozioa abiatu gura badu, arau aldaketak erraztasuna emango dio. "Antzuolak egun daukan araua Jaur-laritzak daukana baino gogorragoa da, garai batean horrela adostu zelako. Ondorioz, base-eritiki bizi nahi dutenek eta negozio bat gura dutenendako zailagoa da", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Horrez gain, hainbat gairen gaineko informazioa eman zuen Udal Gobernuak; izapideen esku liburuaren protokoloa lantzen dihardutela azaldu zuen Antzuolako alkateak. Eta helburua da herritarrei zerbitzua erraztea. "Diru laguntza eskaera bat, errolda agiri bat... eskatzera datorren



Martitzen arratsaldean egindako ohiko osoko bilkura, bilera gelan. MAIDER ARREGI

herritarrari laguntzea eta tramitea erraztea da helburua", argitu du alkateak.

## Industrialdea aurrera

Baina, zalantza gabe, emandako informazio garrantzitsuena izan zen Zorroztarrietan industrialdea egitearen ideia egia egia zein zen azaltzea. Eusko Jaur-laritzako Ingurumen Sailak baimena eman du, eta orain, Mariezcurrena enpresak luraren gaineko azterketa geotekniko sakona egingo du, gastua bere gain hartuta. "Ez dago ezer

ziurra; terrenoa ondo aztertu behar da eta lurjabeekin adostasuna ere lortu. Azterketa geoteknikoek esango dute ea posible den edo ez. Azterketa sakon horren kostua Mariezcurrena enpresak hartuko du bere gain", azaldu du. Goizper, Elay, Matz-Erreka eta Oerlikon dira herriko lau enpresa handienak eta hazten ari direnak. Horien artean, 114.000 m<sup>2</sup>-ko industrialdea dago egun Antzuolan. Baina, esan bezala, dagoeneko lur industrialaren beharra dute; bereziki, Elayk eta Matz-Errekak.

## Zorroztarrietan, industrialdea

Guztira 21.000 m<sup>2</sup>-ko lur eremua izango luke Zorroztarrietako gunean Udalak egin gura duen industrialdeak. Bi plataforma izango lituzke, gainera. Udalaren planteamendua, baina, garbia da: "Urbanizatuta, asfaltatuta, argindar eta telefono sareaz... ez dugu nahi betelana soilik egitea. Lurjabeekin eta Mariezcurrena enpresarekin adostu behar dugu nola eta zer egin".



Zorroztarrietan aztertuko duten lur eremua. MAIDER ARREGI



OLALDE PILOTA TALDEA

## Pilotaz gozatzeko asteburua

Goiena komunitatea / Olalde pilota elkarte / ANTZUOLA

Pasa den asteburuan herriko neska-mutikoen pilotaz gozatzeko aukera ederra izan zuten. Egubakoitzean finala jokatzear gain, pilotak egiten ikasi, goi mailako pilotariekin solasean aritu edo askotariko pilota jokoekin gozatzeko aukera izan zuten pilotaren bueltan antolatutako asteburuan.



MAIDER ARREGI

## Heldutasunera ondo heltzea

Olarango aretoa bete egin zen martitzen arratsaldean heldutasunaren urte emankorren gaineko berbaldia entzuteko. Ana Perez psikologo eta psikoterapeutak heldutasuna zer den azaldu zuen. "Urteak betetzea bizilegea da eta heltzea geuk hautatzen dugu", azaldu zuen. Ondo heltzeko sekreturen bat edo beste aipatu zituen Perezek.

## OHARRAK

### Ginkana

Bihar, zapatua, Ondarreko ginkana egingo da Peña Aiastuiren eskutik, 12:00etan.

### Landatxopekoen irteera

Kantabriara egingo dute txangoa landatxopeko erretiratuek: Laredo, Islares eta Kastrora. Irteera guneak: Ekainaren 14an, eguaztena, 08:45ean Antiguako geltokian eta 09:00etan geltoki nagusian.

### Gimnasia erakustaldia

Ekainak 14, eguaztena, gimnasia erritmikoko erakustaldia pilotalekuan, 17:00etan.

# "Irrati-kontrol autoak ez dira haurrendako bakarrik"

**DANIEL PEDRAZA** ANTOLATZAILEA

'Radio Control' egingo da domekan, bigarren; zozketarekin batzen den dirua muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin bergararrari laguntzeko izango da

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Bigarren egingo dute, domekan, irrati-kontrol bidez gidatutako autoen erakustaldia. Aurten, baina, elkartasun kutsua ere badaukala ekimenak dio Daniel Pedraza antolatzaileak.

**lazko harrera ikusita, aurten ere animatu zarete RC festa egitera.**

Bai. Kanean zehar Antzuolako gaztetxoek galdetzen eta eskatzen zidaten ea berriro irrati-kontrol autoen erakustaldia (RC) noiz egingo genuen, parte hartu gura zutela-eta. Hori entzutea pozgarria da benetan.

**Baina ez da haurrendako jolas bat bakarrik, ala?**

Halaxe da. Jendeak uste du haurren kontua dela. Baina ez da horrela, eta jendea kirol honen berri eman ahal izateko modu egokiena da erakustaldi bat antolatzea. Horregatik, Gipuzkoako zaleak batuko gara domekan, kirol hau herritarrei gerturatzeko asmoz.

**Debagoienean badago zaletasunik?**

Bai. Whatsapp talde polita sortu dugu eta lagun oso onak egin ditut. Izan ere, ni Malagakoa naiz eta hona etorri nintzanean ez nuen inor ezagutzen. Kirol honen bitartez lagunak egin ditut. Lehenengo erakustaldia Aretxabaletan egin genuen, gero Tolosan, eta, dagoeneko, bigarren Antzuolan egingo dugu domekan, etzi.

**Aurtengoak, ordea, elkartasun kutsua ere badauka, ezta?**

Bai; aurten zozketa bat antolatu gura izan dut. Herriko eta inguruetak merkatarien laguntzarekin aurrera ateratakoa izan da. Batu dugun diruarekin irrati-kontrolleko hiru auto erosi ditugu, eta zozketa egingo dugu. Zozketa horretan ateratako dirua eta jasotako laguntza FundAME fundazioarendako izango da oso-osorik. Elkartek, gero, diru hori muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin bergararrari laguntzeko erabiliko



Daniel Pedraza, autoa eskuan daukala. MAIDAR ARREGI

**"1 FORMULAKO AUTO TXIKI BAT GIDATZEA BEZALA DA; ABIADURA HANDIA HARTZEN DUTE"**

du. Haurrei, ideia oso ona dela iruditzen zaie. Hala, aukera dute auto bat euro baten truke lortzeko, baina, batez ere, Leireri laguntzeko.

**Autoekin ibiltzeko azpiegitura falta daukazuela diozue.**

Bailaran badago zaletasuna. Gure asmoa da kluba sortzea eta Gipuzkoako udalen bati kirol hau praktikatzeko txokotxoren bat eskatzea. Txapelketak antolatzeko aukera izateko, adibidez. Askok daukate horrelako auto bat, baina duten arazoa da ez daukatela nora jo autoarekin ibiltzeko.

**1 Formula auto txikitxoetara eramatea bezala dela diozu.**

Sekulako praktika behar da horrelako auto bat gidatzeko. Esan duzun moduan, 1 Formula auto txikitxoetara eramatea da. Pisu txikia daukaten autoak dira eta abiadura handia harrapatzen

dute; oso erraz galtzen dute kontrola, gainera.

**Mantentze-lan handia behar dute horrelako autoek?**

Mantentze-lan konstantea; bereziki, gurrpilei dagokienez. Txapelketa bakoitzeko gurpil berriak behar dituzte, gainera. Modelo askotariko autoak daude, ordaintzen duzunaren arabera. Baina guk erabiltzen ditugunek 500 euro inguru balio dute.

**Zerbitzu edo mantentze-lana eskaintzen duen tokirik badago hemen?**

Nik dakidala, ez. Domekako ekimenean parte hartuko duen Tracker denda gasteiztarra soilik ezagutzen dut.

**Eta domekarako zer prestatu duzue? Gipuzkoako osotik etorriko dira zaleak, ezta?**

Gu goizeko hamarretarako Beheko auzoko kanpo beltzean izango gara. Erakustaldia egingo dugu han. Arrasatetik bederatz, Tolosatik sei, Donostiatik beste sei bat... Hogeia lagun inguru batzea espero dugu domekako erakustaldian. Goizeko saioa 14:00ak artekoa izango da; ondoren, arratsaldeko lauretan, bigarren erakustaldia hasiko dugu. RC autoaren zozketa berri, seietan izango da.



laz Herri Eskolan zuten bazkariaren erretratu bat. GOIENA

## Gorritz jantziko da bihar herriko kirol elkartearen urteko festa

la 300 lagun batuko dira biharko herri bazkarian; gorritz jantzita joateko dei egin du kirol elkarteak

**M.A.** ANTZUOLA

Berezia eta hunkigarria izateko osagai guztiak ditu biharko AKE egunak. "Aurten, berrikuntza bezala, bazkaria herri guztiari ireki diogu eta 288 pertsonak eman dute izena. Gainera, lehenengo erregional, jubenil, kade eta infantil taldeetako jokalaririk erregularrenei saria emanango zaie. Horrez gain, iaz eta aurten batzordea utzi dutenei oparitxo bat emango zaie", aurreratu du Mikel Kerexeta presidentea. "Festara gorritz jantzita joateko dei egiten dugu", gaineratu du.

**Egitarau borobila**

09:30ean futbol eskolako partidua jokatuko dira patioan. 12:30ean poteoa musika-karroarekin eta 14:30ean bazkaria pilotalekuan. Ondoren, sari bana-keta eta barru popularra -pilot partidua animatzen direnen-

dako- eta 19:00etan kontzertuak Zurrategin Ase eta Burning Daylight taldeen eskutik.

**Balorazio positiboa**

"Mugarri historikoa izan da aurtengo denboraldia futbol eskolaren sorreragatik. Izan ere, 60 neska-mutikok herrian futboleko egiteko aukera dute. Lehen erregional mailako taldeak mailaz igotzea lortu du eta jubenil taldeak igoera fasea jokatu du. AKEk futbolaren bitartez herriko gazteei kirola egiteko aukera eman nahi die. Beraz, disfrutatzeko da helburua". Egun, AKEk 350 bazkide ditu eta 142 jokalaririk zortzi taldeetan. "AKE talde bezala kontsolidatu egin da. Dozenaka guraso laguntzeko prest eta hainbat erakunde eta enpresaren laguntza izan dugu; herri oso baten bultzada! Eskerririk asko AKE posible egiten duzuen guztioi".

**Antzuolako altxor ezkutua ezagutzeko aukera domekan**

Antiguako ermita eta Antzuolako erdigunea ezagutzeko bisita gidatua egingo da ekainaren 11n. "Antzuolako altxor ezkutua; herriko historiaren gakoak ezagutzeko dira bisitan". 12:00etan Antiguako ermitan hasiko da ibilbidea, azaldu dute Turismo Bulegoko arduradunek. Debagoieneko Turismo Bulegoan edo 943 79 64 63 deituta eman daiteke.

**Alardean parte hartu gura dutenek izena eman dezakete**

Alardearen Elkarteko kide bati esanez, udaletxean jakinaraziz (943 76 62 46) edo [info@antzuolakoalardea.com](mailto:info@antzuolakoalardea.com) edo [kultura@antzuola.eus](mailto:kultura@antzuola.eus) helbide elektronikoa idatziz eman daiteke izena, nor bere izen-abizenak eta telefono mugikorra lagata. Elkartek herritarrei animatzeko dei egiten die eta bideoa kaleratu dute webgunean.



Joseba Sanchez, gaiaren gainean iaz egindako tailer praktiko batean, herritarrei auzo-konpostgune bat erakusten. xx

## Konposta izango dute hizpide datorren astean

Hondakinak kudeatzeko sistema horri buruzko jardunaldiak antolatu ditu Udalak ekainaren 14rako eta 15erako; lehenengo egunean konpostaren nondik norakoak azalduko dira eta bigarrean, berriz, konpostguneak izango dira aztergai

**Eneko Azurmendi** ELGETA

Konpostaren gaineko jardunaldiak izango dira datorren astean Elgetan. Ekainaren 14an, eguaztena, konpostari buruzko hitzaldi bat egongo da udaletxean, 18:00etan. "Konposta zer den, zela egiten den eta zelan hobetu daitekeen azalduko da hitzaldian. Horrez gain, herritarrek konposta eramateko aukera izango dute eta konpostaren kalitatea neurtu eta aztertuko dugu", adierazi du Iratitz Lazkano alkateak.

Ekainaren 15ean, eguena, herriko konpostguneetara bisita gidatua egingo da, 18:00etan plazaatik abiatuta. Konpostguneetan sortzen diren arazoei konponbide errazak aurkitzea da asmoa. "Egon daitezkeen arazoak identifikatzea eta horiei konponbidea bilatzea izango da helburua. Erabiltzaileek esan digute bereziki leku batzuetan arazo batzuk egon direla. Dagoeneko hartu ditugu neurri batzuk, baina, berriro gertatuz gero, bertakoei

azaldu gura diegu horrelako kasuetan zer egin daitekeen", azaldu du Lazkanok.

Konpostguneetan dagoen ohiko arazoa, alkatearen esanetan, urarena da. "Arazo nagusietako bat urarena da, lixibatuarena. Hau da, lurrera joan beharrean, alboetatik ateratzea. Hori pasatzen da gehiegi trinkotzen delako, ez dagoelako estruktura material nahikorik. Beraz, ura behera joan beharrean, alboetatik ateratzen da, ahal duen lekutik. Eta horrek usain txarra dauka, zapatiletan itsatsi egiten da....", dio Lazkanok.

Azpmarratzekoa da Elgetako Udalak Joseba Sanchezek kudeatzen duen Luar enpresaren laguntza izango duela aurrerant-

**"BIZTANLEKO ETA URTEKO 32 KILO HONDAKIN KUDEATZEN DITUGU KONPOSTAREN BIDEZ"**

tzean konpostguneen egoera hobetzeko. Beharraren arabera, "hilean behin edo bi astean behin" egingo du konpostguneen azterketa hori Udalak.

**Erabilera handia**

Alkateak nabarmendu nahi izan du Elgetak jasotzen duen konpost kopurua "oso handia" dela. "Leintz Gatzagaren atzetik, Debagoienean konpost gehien jasotzen duen herria da Elgeta, biztanleko eta urteko 32 kilo hondakin kudeatzen ditugu sistema horren bitartez. Kopuru oso handia da hori, familien heren bati eragiten die. Kopurua, gainera, mantendu egiten da", adierazi du.

Sortutako konposta baratze-guneetan, eskolan eta partikularren zereginetarako erabiltzen da. "Elgetan konpost gutxi sortzen da, erabiltzen den konpost kantitate kopurua kontuan hartuta. Jendeak gehiago nahi du, bereziki orain, udaberrian", jakinarazi du Lazkanok.

## Epailleak berretsi egin du Udalarari ipinitako kalte-ordaina

Aparejadorearen auzian Auzitegi Gorenak hilean 1.216 euro gehiago ordaintzera derrigortu du Udala

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Udalak tarteratutako akusazio errekurtsoren kontrako autua eman du Auzitegi Gorenak. 2016. urte hasieran eman zuen epailleak auzi horren gaineko ebazpena. Elgetako Udalak, ordea, errekurtsua aurkeztu zuen eta egunotan eman du azken erabakia Auzitegi Gorenak. Atzera bota du errekurtsua. Hala, Udalak hilean 1.216,17 euro gehiago ordaindu beharko ditu kalte-ordain modura. Hurrengo pausoa ordainketa hori nola egin behar den argitzea izango da; izan ere,

udal arduradunek oraingo ez dakite ez nola eta ez noiz egin beharko den. "Gizarte-segurtasunak, orain, kapital kostua deiturikoa zenbatekoa den ezarri beharko du". Orduan jakingo du Udalak ordaindu beharreko kopuru zehatza. "Saiatuko gara ordainketa bost urteko epean egiteko aukera negoziatzen", adierazi du Iratitz Lazkano alkateak. Lehen ordainketa noiz egin beharko den ere ez daki, oraingoz, Udalak. "2017ko aurrekontuan, dena den, aurreikusita dago diru-lerro bat".



SEBAS ARANTZABAL

## Iturbe-Etxebarri: lanak amaituta

Dagoeneko amaitu dituzte Iturbe-Etxebarri baserrirako bideko lanak. "Foru aldundiaren laguntzarekin –lanen %75–, Udalaren laguntzarekin –%15– eta jabeak %10 jarrita burutu da Iturbe-Etxebarriko bidea. Oraindik asfaltatu gabe zegoen bide bakarrenetakoa zen. Aurrekontua 10.569 eurokoa izan da", adierazi du Sebas Arantzabal zinegotziak.

## Kontabilitateko administraria behar du Elgetako Udalak

Orain arte kontabilitateko administrari lanak egin dituen pertsonak erretiroa hartu du. Hori dela eta, lan hori egingo duen pertsona baten bila dabil Udala.

Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude jasota. Eskaearak aurkezteko azken eguna gaur, egubakoitza, izango da.

## OHZ ordaintzeko diru laguntzen deialdia, zabalik

OHZ –Ondasun Higiezin gainera Zerga– ordaintzeko diru laguntzak eskatzeko deialdia zabalik dago 28ra arte. Laguntza lehentasunaren arabera emango da, horretarako ezarritako dagoen partida agortu arte.

Aurten egin du lehenengoz deialdi hori Udalak eta oinarriak [www.elgeta.eus](http://www.elgeta.eus) webgunean daude zehatzago jasota.



# Oporrak gertu dira eta giro berezia dute eskolan

Laugarren mailatik gorako neska-mutikoei Ataungo Lizarrusti parketxean eman dituzte asteon hiru egun. Txikiagoek Zumaiara eta Markina-Xemeinera egingo dute ikasturte amaierako txangoa, astelehenean

## Larraitz Zeberio ELGETA

Elgetako Herri Eskolako ikasleei bi aste besterik ez zaie gelditzen 2016-2017 ikasturteari amaiera emateko. Opor usaina da eskolan eta txango ugari egiten ari dira egunotan. Aurreko astean, esaterako, Asentzion eta Intxortan izan ziren eskolako ikasle nagusienak.

## Ikasturte amaierako irteerak

Asteon, berriz, Ataungo Lizarrusti parketxean izan dira laugarren mailatik gorako ikasleak. Askotariko ekintzak egin dituzte; adibidez, Barandiaran museoa bisitatu dute, taloak egiten ikasteko tailerra egin dute, baita mendi ibilaldiak ere. Astelehenean txikiagoek egingo dituzte

irteerak. Lehen, bigarren eta hirugarren mailetako neska-mutikoei Zumaiara egingo dute txangoa eta eguneko abentura itsasontzian ibiltzea izango da. Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletako umeei, berriz, Markina-Xemein aldera egingo dute, han dauden ur txorrotetan jolasean egiteko.



Ikasle taldea, maiatzaren 16an, Intxortan. ELGETAKO HERRI ESKOLA

Urtero moduan, aurten ere ikasturte amaierako jaialdia iragarri dute Herri Eskolako ikasleek eta irakasleek. Ekainaren 16an, barikua, egingo dute, Espaloia kafe antzokian,

15:00etan. Ordubeteko ikuskizuna izango da, non dantzan eta kantuan egingo duten. Eta San Juan bezpera izango da ikasturteko azken eguna. Batera bazkalduta agurtu dute ikasturtea.



Ikasle gazteagoak, Asentzion. ELGETAKO HERRI ESKOLA

## Gurasoak adimen emozionala lantzen

Bideberri mankomunitateak antolatuta, gurasoendako formazio saioa egin zuten martitzenean eskolan. "Hezten duenak adimen emozionala behar du", esan zien Ainhoa Lauzirikak gurasoei. Hala, adimen emozionala zer den eta nola landu daitekeen azaldu zien. Horrekin batera, etxean bizi izandako hainbat esperientzia partekatu zituzten gurasoek.



Guraso taldea, martitzenean, Lauzirikaren azalpenak entzuten. L.Z.



L.Z.

## Azaleko ipuin goxoak jolasean egiteko

Udal Liburutegiak gonbidatuta, haur txikiei eta haien gurasoei zuzendutako hiru saio egin ditu Saroa Bikandi ipuin kontalariak Elgetan. Astelehenean egin zuten azkena, eta sehaskako kantekin batera masajeak, ipuinak eta jolasak izan dira protagonista tailer berezi

horretan. Hamar lagunek eman dute izena eta gustura ibili direla adierazi dute. Haurrak lasaitzeko eta haiekin batera jolasean egiteko teknikak ikasi dituzte. Haurrak ere gustura ibili direla esan dute. Liburutegiko arduradunek ekintzaren balorazio positiboa egin dute.

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua gaur barikua liburutegian

Bi saio: 16:40etik 17:15era 5 urteko gelatik gorakoendako eta 17:25etik 18:00etara 2 urteko gelatik aurrerakoendako.

### Erretiratuen txangoa eta urteko kuota

Erretiratuen elkarteak egun osoko irteera antolatu du Baztan aldera ekainaren 21erako. Prezioa 30 euro da. Interesatuak Ozkarbi elkartearen eman behar dute izena, domekan, 11:00etan. Egun berean urteko kuota kobratuko dute. Kuota 10 euro da.

### Beheko kaleko jaietako afarirako txartelak

Martitzenean amaitzen da txartelak erosteko epea. Goikoetxe harategian daude salgai, 12 eurotan. Jaiak hilaren 16an dira.

### Elgetako EH Bilduk herri batzarra eta afaria

Agintaldiaren erdira iritsita, herri batzarra eta afaria egingo dituzte martitzenean. Batzarra 19:30ean da udaletxean. Afaltzeko aurrez eman behar da izena: [ehbilduelgeta@gmail.com](mailto:ehbilduelgeta@gmail.com).

### Udaleku irekietarako izen-ematea zabalik

Udalak ekainaren 26tik uztailaren 21era emango du zerbitzua. Hilaren 16ra arte dago zabalik izena emateko epea, udaletxean.

# Aita Mortararen bizitza, Spielberg-en proiektu

Oñatiko agustindarren ordenaren fundatzaile izan zen Pio Mortara. Italian jaioa, 1884an heldu zen Oñatira eta 1910era arte bizi izan zen bertan. Euskara ere ikasi zuen. Haren gaineko kontaketa da Spielberg zinegilearen asmoa

## Miren Arregi OÑATI

David I. Kertzer historialariaren *El secuestro de Edgardo Mortara* liburuan oinarrituko luke Steven Spielberg-ek filma. Bere ekoiztetxea eskubideen jabe da eta Mark Rylance eta Isaac Eshte lirarete aktore nagusiak.

"Italian, familia judu baten jaioa, bederatzirte zituela bahitu egin zuten Edgardo Mortara, Pio IX.a aita santu gatazkatsua- ren garaian eta haren babesean, eta Vatikanon hazi eta apaiz laterandar egin zen", adierazi du Jerardo Elortzak, Aita Mortaraz galdetuta. Hain zuzen ere, Steven Spielberg zuzendari eza- gunak epe ertainean landuko dituen proiektuen artean dago Aita Mortararen bahiketaren gaineko istorioa. Hala, Edgardo Mortararen haurtzaroen gerta- tutakoak jasoko lituzke filmak eta lokalizazioen artean ez le- goke Oñati, 33 urte zituela iritsi baitzen Mortara bertara.

## Umearen bahiketa

Pio Mortara Levi (1851-1940), Bolonian jaio zen Edgardo izenez eta Liejan (Belgika) hil zen. Familia judu bateko seme, haren umezainak isilean bataiatu egin zuten eta 9 urte zituela aita-ama hebrearren etxetik bahitu zuten, Elizak hala aginduta. Haren gurasoek 12 urtez borroka egin zuten mutikoa aska zezaten, baina Pio IX.a aita santuak behin eta berriz oztopatu zuen askatze hori. Erroman hezi zuten Edgardo Mortara, Eliza Katolikoa- ren doktrinan, eta izena -Edgardo bezala jaioa, Pio izena hartu zuen gero- eta izana aldatu zituen bertan. Nerabe zela, libre utzi zuten. "Mortara gaztea gurasoen etxera bueltatu zen, baina ordurako, antza, umearen sinismen erlijiosoak eta fami- liarenak ez zetozen bat eta ez ziren euren artean konpondu", jakinarazi du Jerardo Elortza oñatiar historialariak. Edgardo Mortara Erromara bueltatu zen

bahitzaileek askatu eta hilabe- tera, eta bertan apaiz egin zen.

## Oñatira 1884an

Europar barrena -ez da ziurra non ibili zen behin apaiz egin ondoren- ibili ondoren iritsi zen Oñatira Pio Mortara Levi. "1884an Oñatira iritsi ziren lau kanoni- go laterandarretako bat zen Mortara", dio Elortzak. Seminario txiki baten kargu egitera etorri ziren haiek, baina, Elor- tzak gaineratu duenez, "lan asko egin zuen batera eta bestera



Aita Mortara eskuinean, amarekin. GOIENA

diru bila" eta herriko agustin- darren komentu-ikastetxea eta eliza eraiki ahal izan zituzten horrela. Aita Mortarak oñatin egindako egonaldiaren doku- mentu asko dago agustindarren komentuan: "Karta mordoa dago gordeta, fundazio eta diru-kon- tuak dira gehienak. Gehiago ere

esango dizut, gure aita haren akolito izan zen", dio Elortzak.

## Euskaraz ikasi zuen

Hizkuntzak ikasteko abilezia handia zuen Mortarak eta "den- bora laburrean euskaraz ikasi eta sermoiak gure hizkuntzan egitea eta poemak moldatzea ere lortu zuen".

## Arantzazu'ko amari

Aita Santiago  
Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* liburuan jasota dago Aita Mortararen *Arantzazu'ko Amari* poema. Hemen, hiru pasarte.

Agur Aranzazuko  
Ama Erregiña  
Euskaldunen Andrea  
Poz eta atsegiña.  
Euskaldunen artean  
Maria jarririk  
Euskaldun denak daude

Zuri eskeiñdurik.

Euskaldunak dirade  
Zure jauregia,  
Zure koro ederra  
Da euren fedia.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

## Printzipio printzipalak

Askotan kritikatzan ditugu besteak koherentiaren izenean. Antza denez, bizitza honetan edozer izan zaitezke, baina zarena zarella, izan zaitez koherente. Gutako bakoitzak, irmo edo ezegonkorrak, baina baditu printzipio batzuk eta jendeak (edo geure buruak) "inkoherente" ez gaitzan deitu askotan printzipioak muga bihurtzen zaizkigu. Norma baldin bada (edo ohitura) gertakari baten aurrean jendearekin biltzea, nork bere

printzipioengatik aukera dezake bilkura horretara joatea edo ez horrek ekarriko dizkion ondorioekin (dela ezkontza, dela urtebetetzea, dela parranda, dela hileta, dela literatura topaketa...). Baina gu geu izaki isolatuak ez garen aldetik

**PRINTZPIOAK  
BAZTERREAN UZTEA  
EGON DAITEKEEN  
PRINTZPIORIK  
KOHERENTEENA DA**

eta gutako bakoitzaren ni- a ingurua ere badela kontuan hartuz, ez ote du gehiago balio ingurukoak pozak, eskertzak, bareak... Bakoitzaren burugogorkeriak (edo printzipioekiko koherentzia?! edo beldurrak!?) baino?

Beldurrik ez bada eta printzipioen koloka baldin bada arazoa, honatx lasai -eta koherente- bizitzeko esaldia: printzipioak bazterrean uztea egon daitekeen printzipiorik koherenteena da.

## AEBetako Batxilergo titulua lortzeko aukera Elkar Hezin

Batxilergo duala eskainiko du Elkar Hezi ikastetxeak 2017-2018 ikasturtetik aurrera

### M.A OÑATI

Datorren ikasturtetik aurrera, DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. mailan egongo diren ikasleek programa berri baten parte hartzeko aukera izango dute: "Bertan, ikasten ikaste- ko gaitasuna, ekintzailetasuna, era digitalean komunikatzeko gaitasuna eta ingelesez komuni- katzeko gaitasuna landuko dituzte, bereziki". Modu horretan, Batxilergo amaizten dutenean bi titulu lortuko dituzte: ohikoa eta AEBetako. Horretarako, AEBetako Batxilergoko curricu-

lumeko sei ikasgai landu behar- ko dituzte, ingelesez eta *on line*. Bi irakasleren gidaritzapean egingo dute. Bat Elkar Hezi Ikas- tetxekoa izango da eta bigarrena Ameriketako Estatu Batuetako irakasle bat. Hain zuzen ere, hango irakaslearekin astero kon- taktua izango du idatziz edo, beharrezkoa bada, bideo-konfe- rentziaz. Ikastetxeko irakasleak ikasleen lanaren eta aurrerape- nen jarraipena egingo du hemen- dik eta ikaslearekin, irakasle amerikarrarekin eta gurasoekin kontaktuan egongo da uneoro.

# Umeen danborrada, berrikuntzaz beteta

Karroza berria, dantzarien konpartsa eta Iñaxio Ibarrodok umeen danborradarako propio sortutako doinu berria dira irailaren 16an egingo den aurtengo umeen danborradako berritasun nagusiak. Izena emateko azken eguna ekainaren 16a da

**Miren Arregi OÑATI**

Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren eta bosgarren maila-tako neska-mutikoak irtengo dira aurten San Migel jaien bezperatan urtero egiten den umeen danborradan. Aurtengo data zehaztuta dago: hain justu ere, irailaren 16an egingo da. Iaz 120 danbor jotzailatik gora atera ziren danborradan eta uste dute aurten ere kopuru horren bultzatan arituko direla. Baliteke gehiago ere izatea, talde berri bat gehituko baitaio aurten umeen danborradari; dantzarien taldea da hori.

Antolakuntza talde berriak umeen danborrada antolatzen duen hirugarren urtea da aurtengoa. Ardura hartzeaz bat hartu zuten neurrietako bat izan zen inñudeen konpartsa kentzearena; beste bat, hirugarren eta laugarren mailetakoko neska-mutiko guztiei –zozketa bat egin behar izan barik– parte hartzeko aukera eskaintzea. Hala, ekainaren 16ra arte izango dute, guztiek, izena emateko aukera.

## Berrikuntza ugari

Azken bi urteetako konpartsei, beraz, –kantinerak, barrileroak, danbor-jotzailak, sukaldariak baserritarak eta txalekodunak– beste bat gehituko zaie aurtengoan; dantzariena. Konpartsa berria, LHko bosgarren mailako neska-mutikoz osatuta egongo da. Oraindik ez dakitena da nola jantzita joango diren horiek, baina bi aukera hauetako bat izango da: edo baserritar, edo poxpolin.

Dantzarien konpartsa berri horren ardura Oñatz Dantza Taldeak hartuko du: "Oñatzekin elkarlanean sortuko da talde berri hori. Eurek izango dute konpartsa berriaren entseguen ardura. Dantza taldekoek erakutsiko dizkiete dantzak izena ematen duten neska-mutikoei",



lazgo umeen danborrada. GOIENA

## EKAINAREN 16RA ARTE DAGO ZABALIK DANBORRADAN PARTE HARTZEKO IZENA EMATEKO EPEA

adierazi du antolatzaile Irene Agirrek.

### Sorpresak ere bai

Aipatu moduan, karroza berria aterako du aurten antolakuntzak. "Oso karroza ikusgarria izango da, baina ez dugu gauza asko aurreratu gura", adierazi du antolakuntzako kide Irene Agirrek. "Esan dezakeguna da, karroza tematikoa izango dela eta oso-oso koloretsua eta berritzailea. Seguru gaude herritarrei gustatuko zaiela", gaineratu du. Karroza tematikoa izango dela bai, baina gai hori zein izango den ere ez dute aurreratu gura, oraingoz. "Irail hasieran egingo dugu publiko gaia", argitu du. Hala, mozorrotuko diren neska-mutikoei gai horren inguruko mozorroak jantzi ahal izango dituzte, eta guztien artean danborrada kolorez jantzi.

### Doinu berriak

Aipaturikoak gutxi ez eta Iñaxio Ibarrodok banda zuzendari eta konpositoreak umeen danborradarako propio sortutako abesti bat aurkeztuko dute aurtengo irailaren 16ko danborradan. Iaz ere izan zuten antolatzaileek horrelako zerbait egiteko ideia baina berandu ibili ziren eta ez zen denborarik egon. Aurten, baina, doinu berri hori estreinatuko dutela iragarri dute. "Dagoeneko nahiko aurreratuta dago abestia. Iñaxio Ibarrodok bukatu du ia lana", adierazi du Agirrek. Izan ere, lehenbailehen bukatzea komeni da, dantzari, danbor-jotzaile eta musikariek lan berria ikas dezaten.

### Entseguen ordutegia

Ekainaren 16a da danborradan parte hartu gura dutenek izena emateko duten azken eguna. Kultur etxean egin daiteke hori, bertan dauden formularioak beteta.

Bestetik, ohiko entseguak uztailean eta irailean egingo dira, aurrerago zehaztuko diren toki egun eta ordutan. Entsegu orokorrak Eltzian egingo dira, irailaren 12an eta 14an, 18:30ean.



EAJko kideak Oñatiko batzokian. M.A

## Udal Gobernuaren "inposizioa" salatu du, besteak beste, EAJk

"Arazoak kudeatu eta konpontzeko gaitasunik eza" salatu ditu EH Bilduren agintaldiaz egin duen balorazioan

**M.A OÑATI**

Oñatiko EAJk EH Bilduren Udal Gobernuaren bi urteko balorazioa egin du. Lourdes Idoiaga jeltzailearen hitzetan, "inposizioan eta inprobisazioan oinarritutako bi urte izan dira, bai alor ekonomikoan eta bai proiektuak gauzatzeko orduan. EH Bilduren Udal Gobernuak ez du gaitasunik arazoei irtenbidea emateko". Adibide gisa, kirol-azpiegiturak aipatu dituzte jeltzaileek: "Udal Gobernuak bi urte baino gehiago daramatza gaia lantzen eta oraindik ez du inolako irtenbiderik eskaini egungo arazoei aurre egiteko". Puntu horretan, Eskola Kirolaren gaia eta igerilekuaren saturazioa aipatu dituzte jeltzaileek: "Uda badator eta igerilekua handitzeko proiektuaren inguruan oraindik ez du ezer erabaki".

### Zaraten gaia

Kale Zaharreko zaraten gaia ere atera dute jeltzaileek balorazioan eta salatu dute oraindik ez zaio la gaiari irtenbiderik eman. Gaineratu du EAJk hainbat proposamen egin dituela arazoa konpontze aldera, "baina, berriz ere, EH Bilduk ez diola arazoari irtenbiderik eman". Jarraitu du esanaz bizikleten eta patineteen zirkulazioaren inguruko ordenantzen gaia ere berdin dagoela: "Ez da ezer egin".

### "Erabakiak inposatu"

Bestalde, Udal Gobernuak erabakiak bere kasa hartu eta inposatu egiten dituela salatu du

EAJk. Jarraitu du esanaz halaxe jokatu duela "Txaketuako bidegurutzea ixteko orduan, TAO sistema ipintzerakoan edo erdigunea piboteekin ixteko neurria hartzean". Gainera, EAJk dio zentzu horretan ez duela zuzen jokatu, "ez baititu aintzat hartu erabakiek ekarriko dituzten ondorioak eta arazoak": "Horren adierazgarri dira mugikortasun urriko herritarren salaketak edota erdiguneko merkatariak dirua galtzen hasi izana. Esate baterako, San Migeleko kooperatibaren salmentak %8,71 jaitsi dira apirilean eta betiko bezeroak urteetako harpidetzari uko egiten hasi dira".

### "Arrisku ekonomikoa"

Bestetik, desadostasuna azaldu du Udal Gobernuaren aurrekontu politikarekin. Esate baterako, hondakin-bilketarako atez ateko sistema mantentzea eta kale-garbitaren kudeaketa zuzenean egitea ez dutela begi onez ikusten diote. Eta gaineratu dute lehen auziko epaileak FCCko lau langile ohi 222.000 euroekin indemnitzatzea edo berriz ere lantaldean sartzea zigortu duela Udala. Jakinarazi dutenez, Udalak errekurtsioa ipini du eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren esku dago gaia.

Bukatzeko, jeltzaileek EH Bilduren "ekimen falta" nabarmendu dute: "Ez du ezer egin herritarren elkarbizitza hobetzeko" eta "ez ditu eguneratu nerabeen alkohol kontsumorako prebentzio-programak".

# Lehoiaren hezurdura ikusi ahal izango da bihar

Irungo Gordailuan kontserbatzen da Arrikruzeko 'Panthera spelaea'-ren jatorrizko hezurdura eta bihar, zapatua, bisitatzeko aukera izango da, Arrikruzten irekieraren X. urteurrenaren bueltan. Asier Gomez paleontologoak emango ditu azalpenak

**Miren Arregi OÑATI**

Badira hamar urte Arrikruz koba bisitariendako ireki zela, eta, urteurren hori ospatzeko, ekintza berezia antolatu du Oñatiko Turismo Bulegoak biharko, zapatua. Hain zuzen ere, Arrikruzten aurkitu zen eta koba berezi egiten duen leizeetako lehoiaren hezurdura originala ikusteko aukera egongo da. Gipuzkoako Gordailuan, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroan (Irun) kontserbatzen da 1966an Iñaki Zubeldiak aurkitu zuen hezurdura eta bihar egongo da hura bertatik bertara ikusteko aukera.

Goizeko bederatzietan irtengo dira izena eman duten herritarrek autobusez Oñatitik eta 14:30ean izango dira bueltan. Gordailuan 10:30ean hasiko da bisita. Asier Gomez paleontologoak emango ditu azalpenak han. Lehoiaren hezurdura ikusteaz gain *-Panthera spelaea-*, Gordailua bera ere barrutik ezagutzeko aukera egongo da.

**Iberiar penintsulako bakarra**

Hainbat dira Arrikruzten aurkitutako *Panthera spelaea* espeziearen hezurduraren berezitasunak. Hasteko, Europan leizeetako hartzairen hezurdurak aurkitzea ohikoa da, baina ez da hain ohikoa lehoiak aurkitzea. Ez hori bakarrik, Iberiar penintsulan osorik aurkitu den hezurdura bakarra baita Arrikruztekoa. "Ia hezur guztiak daude, eta hori ez da ohikoa. Garezurrak eta aurkitu izan dira, baina hain indibiduo handiaren hezurdura osorik ez dago Iberiar penintsula osoan", dio Asier Gomezek, bihar azalpenak emango dituen paleontologoak.

Hezurdura osorik aurkitu izanaren arrazoiaren gainean galde-tuta, honako hau dio Gomezek: "Baliteke kobazuloan galdu edo erori eta irten ezinik gelditu izana".



Arrikruzteko lehoiaren garezurra. GIPUZKOAKO ONDARE BILDUMEN ZENTROA

## 320 BAT KILO ZITUEN LEHOIAK, GAUR EGUNGOK BAINO 80-100 BAT KILO GEHIAGO

Indibiduo handia da, esan bezala, Arrikruzten aurkitutakoa. "Gure estimazioen arabera, 320 bat kilo izango zituen. Gaur egungo lehoiek baino 80-100 bat kilo gehiago. Arrikruzteko lehoia arra da eta indibiduo heldua zen hil zenean", dio Gomezek. Eta gaineratu du: "Badu ikerlariondako interesgarria den patologia bat ere: hil baino pare bat hila-bete lehenago, pare bat saihets apurtu zituen".

**Gizakiarekin elkarbizitza**

Arrikruzten aurkitutako *Panthera spelaea* arra Pleistozeno garaian bizi izan zen. "Baina ez dakigu zehatz noiz, ez baita datazio zehatzik egin", dio Gomezek. Dakiguna da leizeetako lehoiak duela 500.000-600.000 urte iritsi zirela Europan eta duela 10.000 urtera arte bizi izan zirela bertan. *Homo sapiens*

gizakia, bestetik, duela 40.000 urte iritsi zen Europan. Hori horrela, "bai, elkarbizitza bat egon zen *Homo sapiens*-en eta leizeetako lehoien artean". Ez hori bakarrik, Neandertalgo gizakiekin eta haien arbasoekin ere bizi izan baitziren.

Baina zein izan zen leizeetako lehoiaren desagertzearen arrazoa? Ikerlariak hainbat teoria erabiltzen dituzte hori azaltzeko. "Baliteke azken glaziazioaren ondoren, basoak eta hedatu zirenean etorri izana leizeetako lehoiaren gainbehera. Lehoi hura eremu zabaletan ehizatza ohi-tuta zegoen eta basoen hedatzea oztopo izan zen haiendako. Bestetik, gure espeziea bera ere garatu egin zen eta baliteke elkarren kompetentzia bilakatu izana", dio paleontologo Asier Gomezek.

Lehoia hiru gunetan bizi izan da historikoki: Ipar Amerikan, Eurasian eta Alaskan, eta Afrikan eta Indian. Lehenengo bietan desagertu egin ziren eta egun, azken eremu horretan bizi da.

Arrikruzteko hezurduraren lehen deskribapen zientifikoa Jesus Altuna ikerlariak egin zuen 1981ean. "Hark jarraitzen du izaten erreferentzia klasikoa".

## Jaiak ospatuko dituzte Olakua eta Araotz auzoetan, gaur hasita

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte bi lekuetan: musika, jolasak, bertsoak, herri kirolak, txorimaloak...

**Mireia Bikuña OÑATI**

Aste bukaera bateko atsedeenaren ostean, badatoz berriro ere auzoetako jaiak. Oraingoan, Olakua eta Araotzen ospatuko dituzte, gaurtik domekara arte. Askotariko ekitaldiak egongo dira bi lekuetan.

**Rock kontzertua**

Txorimaloen kalejirarekin hasiko dituzte jaiak Olakuan. Ostean, 22:00etan, rock kontzertua egingo dute Kimera, Kop eta Joxe Replay taldeek.

Zapatuko ekitaldi goiztiarrena umeendako jolasak eta marrazketa saioa izango da (10:45). Oñatzeke dantzarien erakustaldia ere egongo da. 17:00etan, Txatxilipurdiren eskutik, *Munduan berbena* delako ikuskizuna egingo dute. Talo tailerra ere egongo da. Zapatuko musika Joxelu Anaïen kontura izango da.

Domekan, aldiz, umeendako mendi bizikleta ibilaldia, meza, herri kirolen erakustaldia, kadeendako txirrindularitza proba, mus txapelketa eta Triki-mailu eta Gaitzerdi taldeen erromeria egongo dira.

**Trinitate jaiak, Araotzen**

Ganbara Txiki abesbatzak eskainiko duen *Ermitaz ermita* kontzertuarekin hasiko dira jaiak Araotzen. Gaur izango da, 19:00etan. Zapatuan, mezaren ostean, herri bazkaria egingo dute, bertsolarien eta musikarien laguntzarekin. Ostean, umeendako jolasak eta txokolate-jana egongo dira. Afariaren ostean, Domekatarrak taldearen emanaldia.

Domekan, meza, luntxa, auzoko gazteen arteko lehia eta trikitilarien emanaldia, jaiak bukatzeko.

## Pinotxoren istorioa ezagutzeko sarrerak salgai daude oraindik

Ganbara faktoriaren azken ikuskizuna ekainaren 16an (18:30) eta 17an (11:30 eta 18:30) estreinatuko dute. Hiru emanaldietarako sarrerak eros daitezke oraindik ere, Txokolateixan eta *Sacatuentrada* webgunean, 15 eurotan. Saio bakoitzean, 475 pertsona sar daitezke kiroldegian *Pinotxo, hariekin lotu gabe* musikala ikusteko.

## Odol emaile berriei egin diete dei gaurko deialdira joateko

Hileroko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, 17:00etan. Enpresagintza Faktulatean egongo dira Donostiako medikuak eta erizainak. Deialdia irekia da, baina, bereziki, odol emaile berriei egiten diete dei. Medikuen azterketa pasa ostean, odola ematea besterik ez dute berriek.

## Azken aste bukaera zinema emanaldi komertzialarendako

Oraingoa izango da zinema komertziala ikusteko azkena. Egubakoitzetik astelehenera arte egongo da *Norman, el hombre que lo conseguía todo* pelikula ikusteko aukera, ohiko orduetan. Ostean, eten egingo dituzte emanaldiak, San Migel eta Errosai-xo jaiak pasa arte. Egotekotan, ezohiko emanaldiren bat egongo dela iragarri dute.

## 40 urte betetzen dituztenek kintada egingo dute uztailean

Uztailearen 8an Etxeberria jaietxean elkartuko dira urtemuga ospatzeko. Trianako jaiekin bat eginez elkartuko dira 40 urte betetzen dituztenak: oñatiarrak, kanpotik herrira etorritakoak eta kanpoan bizi direnak. Interesatuek ekainaren 18a baino lehen eman behar dute izena, Rural Kutxan 35 euro sartuta.



Pilota Astearen barruan, kultura etxean antolaturiko argazki erakusketa. MIREN ARREGI

# Pilota Astea atzean utzita, aurrera begira

Aloña Mendiko pilota sailak mende erdi bete duela aprobeztatuz, ekitaldiz beteriko urtean murgildurik daude pilotazaleak; tartean, Pilota Astea amaitu zen ekainaren 3an. Antolatzaileak "pozik" dira orain arteko ekintzek izaniko harrerarekin

**Iker Oñate** OÑATI

Ospakizun urtean murgildurik daude Aloña Mendiko pilota saileko kideak. Mende erdia egina dutela-eta, egitarau oparoa prestatzen dihardute antolatzaileek; ekintza batzuk eginak dituzte jada. Horien artean da maiatzaren 29tik ekainaren 3ra bitartean eginiko Pilota Astea.

Orain artekoa kontuan izanda, antolatzaileak "pozik" dira hitzorduek izaniko harrerarekin. "Jende ugari hurbildu da Pilota Astea ekintzetara. Antolaturikoen artean, azpimarratu beharrekoak ditugu kultura etxean eskainirik erakusketak", dio Josu Osak, pilota saileko koordinatzaileak.

Pilota Astearen baitan, sailak bi erakusketa eskaini zituen kultura etxean: *Euskal pilota herriz herri* eta *Oñatiko herria eta pilota*. Bertan, 100 argazkitik gora jarri zituzten ikusgai, pilotaren historiaren errepasoa egin guran. "Jende ugari bertaratu zen kultura etxera; horien

artean, pilota sailaren parte izandakoak. Polita da iragana gogora ekartzea", azaldu du Osak.

## Pilota Eguna, atzeratuta

Pilota Astearen barruan, egitaraua ixteko, Pilota Eguna zuten antolaturik. Baina, eguraldi txarra tarteko, ekintzaren eguna atzeratzea erabaki zuten antolatzaileak.

Hala, uztailearen 15erako finkatu dute hitzordu berria, Aloña Mendik antolatzen duen garagardo festa hor inguruan dela-eta: uztailearen 13tik 16ra bitartean egingo dute garagardo festa. Azaldu dutenez, gauzak ondo bidean, Pilota Eguneko egitaraua bere horretan mantentzea aurreikusten dute.

## EGURALDI TXARRAREN ERAGINEZ, UZTAILAREN 15ERA ATZERATU DUTE PILOTA EGUNA

## Dokumentala martxan

Bestetik, 50. urteurrena ospatzeko ekintzen artean, dokumental bat grabatzen dihardute; pilota sailaren bueltako protagonistak bildu nahi dituzte bertan, 50 urteen errepasoa egin guran. Gaur-gaurkoz, pilotari ohiak, batzordeko kideak eta partiduetako epaileak elkarrizketatzen ari dira. Ikus-entzunezkoa azaroan aurkeztea aurreikusten dute.

## San Migel txapelketa

Aurtengoan ere San Migel txapelketa egingo dute; kadete eta gazte mailako pilotariak jardungo dute nor baino nor gehiago. Kategoria bakoitzetik zortzi bikote izango dira.

Hori bai, berrikuntzekin dator: txapelketa luzatu egingo dute. Zehatz esanda, uztailetik iraileira bitartean jokatu dira partidua; horretarako, ligaxka formatua izango du txapelketak. Orain arte, finalerdiak eta finala besterik ez zen jokatzeko.

## Ikasturteari amaiera emango dio Eskola Kirolak

Gaur, egubakoitza, egingo dute Eskola Kirola programaren bueltako azken ekintza

**I.O. OÑATI**

Eskola Kirola programaren amaiera ekitaldia egingo dute Zubikoa kiroldegian. 19:00etan hasiko da, sari banaketarekin. Behin hori amaituta, jatordua prestatuko dute programan kolaboratu duten laguntzaileentzat –herriko ikastetxeetako 71 guraso daude tartean–; kiroldegiko tabernan izango dute janaldia.

## Urtean zehar, ekintza ugari

Eskola Kirola programak urriaren 10ean ekin zion ikasturteari; eta gaur arte egon da martxan. Tarte horretan, kirol ugari izan dituzte eskura parte hartzaileek, taldeka zein bakarka egitekoak. Hor daude eskubaloia, igeriketa eta *Altxorraren bila* jolasa.

Horiez gain, mendi irteerak ere egin dituzte; zehatz esanda, hilean irteera bat egiteko aukera izan dute egitasmoan esku



Mendi irteerako une bat. ESKOLA KIROLA

hartu duten benjamin eta alebin mailako 487 neska-mutikoen.

Bada, ikasturtearen balorazio positiboa egin dute antolatzaileek: "Parte hartze handia izan da; eta eragile zein norbanako ugarik lagundu dute. Eskertzea da hori".

## Eskubaloiko XI. Corpus txapelketa egingo dute zapatuan

Aurtengoan ere eskubaloiko Corpus txapelketa egongo da Zubikoa kiroldegian, 09:30ean hasita. Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako infantil mailako neska-mutikoen selekzioek jardungo dute, txapelketa irabazi guran. Goizean lau partidu jokatu dira; nesken eta mutilen finalak, bestalde, arratsaldean izango dira.

## Ikasturteari amaiera emateko, gimnasia erritmiko erakustaldia

Ikasturte amaierako jaialdia egingo dute domekan, Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean. 12:00etarako finatu dute hitzordua. Guztira, 100 neska inguruk jardungo dute, urtean zehar eginiko lana jendaurrean erakusten; horretarako, taldekako zein bakarkako saioak eskainiko dituzte. Ordu eta erdiko saioa aurreikusiko dute antolatzaileek.

## Txantxi igeriketa sariak igerilari ugari bilduko ditu Zubikoan

Txantxi igeriketa saria antolatu dute zapatutarako, Zubikoa kiroldegiko igerilekuan; 15:30erako finkatu dute hitzordua. Benjamin, alebin eta infantil –lehen urtekoak– mailako igerilariak bilduko ditu txapelketak; guztira, hamaika taldek jardungo dute. Horien artean izango dira Aloña Mendiko eta Bergarako igeriketa klubak.

## Olakuako 31. txirrindulari proba domekan

Olara auzoko jaien barruan, kadete mailako txirrindulariek jardungo dute domekan, herriko kaleetan; 16:00etan hasiko da txirrindularien lasterketa. Aloña Mendik antolaturiko txirrindulari probak 31. edizioa du aurtengo. Besteak beste, Olara auzoa, Zubillaga, Arrasate, Udana eta Legazpi zeharkatuko ditu lasterketak.



Urtero moduan, zapatuan giro polita egongo da Eskoriatzako plazan; erretratuan, iaz, korrikalariak helmugara bidean. I. SORIANO

## Leixargaratera 37 minutuan, egin apustu!

**MENDI LASTERKETA** Bihar, zapatua, egingo dute Gabez Takarraran lasterketa Eskoriatzan (23:00), eta aurten, Eskoriatza eta Leixargarate arteko zatirako bota dute erronka; lasterketa hasi baino apur bat lehenago izena eman ahalko da

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Takarraraneko antolatzaileek antolatutako porran –Eskoriatzako tabernetan, euro baten truke– apustu serioa egin gura duenak izan dezala kontuan titularreko denbora, Iñaki Uribe-etxeberrriak berak emandakoa da eta: "Ahaztu samar daukat erreferentzia hori, baina azkarrena hor inguruan ibiliko da", dio, barrez. Izan ere, biharko lasterketan Atxorrotxera beharrenean Leixargaratera dagoen tartea kronometratuko dute antolatzaileek.

**Gazteak, nagusiekin batera**

Nobedadeetako bat da bihar gazteak nagusiekin batera hasiko direla korrika: "Aurreko edizioetan apur bat lehenago irteten ziren, eta bakarrik gertzen ziren segituan, eta gauzez ez da erosoena [Barre]. Horri buelta bat eman gura izan diogu, eta nagusiekin batera irtengo dira orain, jendearekin batera joan daitezen".

### "Asentzion aldaketa txiki bat izango da"

**IÑAKI URIBE-ETXEBERRIA**  
ANTOLATZAILEA

Duela hilabete batzuetako haizeteak kalte handiak eragin zituen, besteak beste, Asentzion. Eta horrek hainbat aldaketa egitera derrigortu ditu antolatzaileak.

**Ze giro espero duzue zapatarako?**

Iragarpenak onak dira, edizio ia guztietan zortea izan dugu zentzu horretan.

**Asentzio inguruan, baina, aldaketak egingo dituzue.**

Bidean oraindik pinu asko daude traban. Apotzaga aldera sartu behar izan dugu bidea, eta kilometro bat luzeagoa



GOIENA

izango da, 23 kilometro pasa inguru izango ditu. **Bidea markatuta, inoiz baino erreferentzia gehiago izango dituzte korrikalariak.** Bai; 50 metroan behin erreferentzia bat jarriko dugu: zintak, barratxo fluoreszenteak, eguzki izpiekin kargatzen diren lanparatxoak... Indartu egin dugu arlo hori. **Eguaztenerako 60 lagun zeuden izena emanda.** Eguraldiaren zain egoten dira asko, espero dugu azken orduan jendea animatuko dela, iaz ere halaxe izan zen.



Ataungo pilotarien kontra, joan den egubakoitzean. IMANOL SORIANO

## Ezinezkorik ez dago, baina Oñatik zail du aurrera egitea

**PILOTA** Herriarteko Txapelketako final-laurdenak txarto hasi dituzte, Ataunen kontrako hiru partiduak galduta

**X.U. ARRASATE**

Joan den egubakoitzean Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako final-laurdenetako joaneko partiduak jokatu zituen Oñatin, atandarren kontra, eta garaipen garbia eskuratu zuten kanpotarrek. Josu Osa Aloña Mendiko pilota saileko kidearen esanetan, "belarrondokoa" jaso zuten etxeko zaleen aurrean, eta gaur, kolpe horri buelta emateko asmoz joango dira Ataunera. Hiru partiduak galdu eta gero, txantxikuek zail dute kanporaketari buelta ematea, baina ez dute amore emateko asmorik.

**Hirurak galduta**

Kadete mailan, Ibon eta Iñigo Perezek 14-22 galdu zuten. Gazte mailan, Ander Biainek eta Markel Gartzia ere amore eman behar izan zuten, eta ezin izan zuten irabazi (17-22). Azkenik, nagusietan, Gorka Perezek eta Oier Otxoak jipoia jaso zuten Ataungo bikote indartsuaren aurka (6-22).

Oñatiko taldeak aurrekari horiekin egingo du bidaia Ataunera. Itzulerako partiduak gaur, egubakoitza, jokatu dituzte, 22:00etan hasita, Ataungo pilotalekuan.



GOIENA

## Txapeldunei omenaldia

**PILOTA** Bergara Hiria Txapelketako finalak –Alberdi eta Aizpuru izan dira irabazleak promesetan eta Urbietan eta Etxebarria nagusietan– aitzakia ederra izan ziren Eskuz Binakako txapeldun izan diren Iker Irribarria eta Beñat Rezusta omentzeko. Argazkian, Azkoitiarekin eta Zaitegirekin.

# Ibarreko ordezkariak Gipuzkoako erlojupekoan

**TXIRRINDULARITZA** Bergaran egingo dute, zapatuan, 17:00etan hasita, Gipuzkoako kadete mailako erlojupekoa. Dorletako Amako, Aloña Mendiko eta Lokatzako ordezkariak izango dira, Gipuzkoako gainontzeko klubetako ordezkariekin batera

**Xabier Urzelai** BERGARA

"Sei kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre ziklistek. Badirudi ez dela asko, erraz egiteko modukoa dela. Baina erlojupeko batean izango duten lehenengo esperientzia izango da, 10 minutuko lan bete pul-sazioak oso altu dituztela, eta adin horretan [14 urte] oso zaila egiten zaie denbora tarte horretan eritmo berberari eustea. Horregatik, aurrealdekoak eritmo berdintsuetan ibiliko dira, segundo gutxitako aldea egongo da, baina ondoren alde nabarmenak ikusiko ditugu", adierazi du Lokatzako presidente Jon Unamunok, San Antonio jaien barruan antolatu duten Gipuzkoako erlojupekoaren gainean galdetuta.

**Zirkuitua, herri barruan**

Bihar, erlojupekoaren irteera Gure Ametsa elkarte parean egongo da: "Elkarteko ordezkariak hartzen dute jaiak antola-



Garazi Erostarbe oñatiarra, 1azko lasterketan. GOIENA

tzeko ardura handiena, eta omenaldi txiki bat egin gura diegu". Ziklistek irteera puntutik Antzuolarako bidea hartuko dute, gasolindegia berriaren parean eskuinaldera hartu, aldapa gora dagoen tunela gurutzatu eta

Labegaraietara jaitsiko dira; saihesbidetik Bergararantz abiatu eta semaforoetan eskuinaldera hartu eta seguitan egongo den helmuga gurutzatuko dute: "Pozik gaude, azken bi urteotan guk antolatu izan dugu laster-



Jokin Etxabek irabazi zuen Olakuan, 2010ean. GOIENA

## Olakua proba, domekan Oñatin

Kadete mailakoek hitzordu bikoitza izango dute asteburuan, zapatuan Bergarako erlojupekoaren ostean domekan Oñatin izango dute-eta 32. Olakuako proba (16:30).

Txirrindulariek 68 kilometroko lasterketa izango dute aurrean. Lehenengo kilometroetan Oñatitik Arrasateraino joango dira ziklista gazteak –Eroskiko biribilgunera– eta Oñatitik pasa eta gero Udana igo beharko dute txirrindulariek. Zumarragaraino jaitsiko dira (40. kilometroa) eta han buelta erdi emanda, osterara Udanatik etorriko dira Oñatira, Zubillagaraino jaitsi eta handik bueltan (63. kilometroa) Olakuan egongo da helmuga. Hor ere Debagoieneko talde guztietako ordezkariak batuko dira.

keta hau, baina maila horretan ez genuen ordezkariak. Oraingoan, berriz, taldeko sei ziklista izango ditugu irteera puntuan". Eta ez eurak bakarrik, Dorletako Amakoek eta Aloña Mendikoek ere badituzte-eta ziklistak

maila horretan –erlojupekoan gizonzkoek zein emakumezkoek hartuko dute esku–. Hori bai, bailarako emakumezko ordezkari Estevez eta Erostarbe Espainiako Kopan lehiatuko dira etzi, Caspen.

## MENDIA Inurrategik Karakorumen du hurrengo erronka

Alberto Inurrategik, Juan Vallejo eta Mikel Zabazak osatzen duten hirukoak Karakorumen du hurrengo hitzordua, WOPeak proiektuaren barruan G-I eta G-II mendiak bata bestearen ostean igo gura dituzte eta, kanpaleku nagusira jaitsi barik. Hala, 1az G-II mendian egin gura zuten proiektua bertan behera utzi eta urtebetera bueltatuko da hiruko euskalduna Karakorumeren. Mendizaleen asmoa da bi mendi horiek goren dagoen bidetik lotzea: "6.500 metrotik jaitsi barik bi tontor egiteak zailtasun handia du, eta gutako inork ez du garbi kapaz izango garen halakorik egiteko".

## KARATEA Saioa taldekoen erakustaldia bihar

Ikasturte amaiera iritsi dela aprobetxatuta, Arrasateko Karate Saioa taldeko lagunek erakustaldia egingo dute zapatuan Uarkapen. Taldekoendako, gainera, hitzordu berezia izango da, klubak 30 urte betetzen ditu aurten eta urteurrena jendaurrean ospatu gura izan dute: "Arratsalde-pasa polita eskaini gura diegu herritarrei, ezberdina, behintzat, eta ekimenak balio dezala gure kirol jardueraren arrasatearren artean zabaltzeko, ikus dezatela gertutik zer den karatea eta zer egiten dugun entrenamenduetan", adierazi du klubak. 18:30ean hasiko dute erakustaldia.

## FUTBOLA Euskal Kopako finalerdiak etzi Agorrosinen

Mahonero Egunaren barruan, emakumezkoen futbol partidua izango da domekan Agorrosinen (12:00). Ez da lagunartekoa izango, Euskal Kopako finalerdiak egongo dira-eta jokoan, eta Real eta Gasteizko Aurrera taldea izango dira zein baino zein gehiago.

Athleticek dagoeneko eskuratu du finalerako txartela, eta ikusteko dago domekan nork egiten duen aurrera, nahiz eta txuri-urdinak faborito garbiak diren. Ondoren, finalistek denbora luzea izango dute finala prestatzeko, azken lehia erabakigarria abuztuaren 27an jokatu du-eta, Mintxetan.

## FUTBOLA Etxekoan aldeko apustua egin du Mondrak

Azken hiru urteotan Mondrako entrenatzaile izan den Josu Zubiaren hutsunea betetzeko etxeko entrenatzaileen aldeko apustua egin du Mondrak, Jorge Davila eta Ander Romero izango dira-eta entrenatzaile berriak. Bi entrenatzaile horiek duela sei urte iritsi ziren klub zuri-morera –gaztetan jokalaria moduan ere jardun zuten–, eta, urte hauetan, kadete mailako, gazte mailako eta Preferenteko taldeak zuzendu dituzte.

Bestalde, joan den zapatuan Monterronen egindako ekitaldian, Mondrak denboraldiko jokalaria eta talde onenak saritu zituen.

## FUTBOLA Gipuzkoako futbol entrenatzaileak Oñatin batuko dira

Gipuzkoako Futbol Entrenatzaileen 35. eguna ospatuko dute zapatuan Oñatin, Aloña Mendik antolatuta. Hala, gaur bertan Espainia osotik etorritako 40 entrenatzaile inguru hartuko dituzte Oñatin, eta Aloña Mendik azaldu du turismo apur bat egiteko aprobetxatuko dutela, inguruak erakutsita.

Egun handia, baina, zapatukoa izango da, Gipuzkoako talde askotako entrenatzaileak bazkaltzeko elkartuko dira-eta Arantzazun. Bazkaldu aurretik luntxa izango dute, eta, segidan, aurtengo denboraldiari dago-kion sari banaketa ekitaldia egingo dute.

# "Sardiniako toponimian euskal hitz asko daude"

JUAN MARTIN ELEXPURU IDAZLEA

Betidanik izan du euskararen historia aztertzeke zaletasuna; zortzi urteko lanketaren fruitua da aurreko astean argitaratu zuen 'Euskararen aztarnak Sardinian?' liburua


A. A./A. T. BERGARA

Euskal Herriaren eta Sardinia uhartearen artean 1.000 kilometro baino gehiago daude; urrun daude, baina, hizkuntzari begiratuta, hainbat antzekotasun daude. Juan Martin Elexpuruk hipotesi hori garatu du Pamela argitaletxearekin argitaratu duen *Euskararen aztarnak Sardinian?* liburuan.

**Sardinia uharteko hizkuntza eta euskara lotuta daude, hortaz?**

Geografikoko oso urrun daude eta tartean itsasoa dago, baina badirudi aitzina lotura bat egon zela. Hipotesia da orain dela 6.000 edo 8.000 urte Euskal Herrietik migrazio bat egon zela hara eta hizkuntza eraman zutela, horren arrastoak oraindik irauten duelako.

**Hainbat hipotesi dauden arren, Eduardo Blasco Ferrer Kataluniako hizkuntzalariarenetik abiatu zara.** Sardinian, euskararekin gertatzen den moduan, hango hizkuntzari buruzko hipotesia asko daude: batzuek diote Mesopotamiatik datorrela, beste batzuek Albanatik, badaude Anatoliatik eta Iberiatik datorrela diotenak ere. Orain dela hamar edo hamabi urte, baina, Sardinian irakasle zen Blasco Ferrer gaia ikertzen hasi zen eta liburua argitaratu zuen gero, euskara



Juan Martin Elexpuru. AMAIA TXINTXURRETA

eta paleosardiniera senide hurbilak direla erakusten duten frogak ugarirekin. Batetik, bi herrialdeetan erabiltzen diren hitzak ditugu; *gorosti*, esaterako. Eta bestetik, toponimiarekin lotutakoak ere hainbat: *Aritzo*, *Arresi*, *Goni*, *Arana*...

**Mapa ere argitaratu duzu.**

Hala da, bai; aparte salduko da. Pozik geratu naiz maparekin. Egia esan, bi dira: Euskal Herrikoa eta Sardiniakoa; mapa horietan ahalegindu naiz, txindurri lanak eginez, bi eremuetan bat datozen izenak bilatzen eta

ipintzen. Denera, 350 izen daude, batzuk berdin-berdinak dira eta beste batzuk oso antzerakoak. Koordenadak jarri ditut, irakurleak bilatzeko aukera izan dezan. **Gaur egungo sardinierak euskal alfabetoaren eta ahoskeraren ezaguerri batzuk jarraitzen dituela idatzi duzu.**

Hainbat adibide daude, bai: sardinieran *v* letrarik ez da, italierran badagoen arren; *tz eta tx* euskaraz bezala esaten da; sardinieran ere *r* letraren aurretik bokala esaten da.

**Urte askotako lanaren fruitua da.** Euskararen historia aztertzea oso gustuko dut; orain dela zortzi urte, lagun dudana Valentziako Luis Silgo hizkuntzalariak Blasco Ferrerren berri eman zidan. Harremantant jarri nintzen harekin eta hiru bidaia luze egin genituen hara. Gora eta behera ibili ginen han, argazkiak atera, jendearekin berbetan...

**400 orritan batu duzu jasotakoa.** Hainbat ataletan banatuta dago: lehenengo, adituek orain arte gaiaz esandakoak laburbildu ditut; orain dela 2000 urte bi hizkuntzen egoera zein zen ere aztertu dut; Sardinian historia ere bai; eta aurrez esan bezala, bereziki, toponimia kontuak.

## Berri Txarrak taldea Oñatiko gaztelekuan izango da domekan

Frantziako Burning Heads eta The Skippers Japoniako taldea ere izango dira. Sarrerak agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Hiru kontzertutik bakarria egiten du Berri Txarrak taldeak Euskal Herrian; horietako bat izango da, etzi, domeka Oñatiko gaztelekuan 19:30ean hasita eskainiko duena. Gaztetxeetan eta areto txikietan egiten ari diren birak, bada, geltokia izango du, Debagoienean.

Taldearen webgunean emandakiaren berri eman zutenean, hurrengo egunean sarrerak salgai jarriko zituztela iragarri zuten; espero zitekeen moduan, segituan agortu ziren guztiak.

Ohitura duten moduan, beste talde batzuekin partekatuko dute agertokia: Orleansko (Frantzia) Burning Heads 80ko hamarkadaren bukaeran sortutako punk-rock taldea izango da batetik; eta musika estilo bera egiten duen Japoniako The Skippers taldea, bestetik, European egiten ari diren bira baliatuta.

Taldearen hogeigarren urteurrena aitzakia hartuta, *Denbora da poligrafo bakarria* (2014) lana kaleratu zuen Berri Txarrak taldeak; dagoeneko ari dira, baina, hurrengo lana sortzen.

## Eskolarteko bertso txapelketako finalean bi debagoiendar lehiatzen

Oihana Arana Kardenal eskoriatzarra eta Aitor Ugarte Eriz aramaioarra izango dira bihar taularen gainean

A. A. ARRASATE

15 eta 18 urte bitarteko hamahiru gazte lehiatuko dira bihar, zapatua, Euskal Herriko txapelak eskuratzeko.

Sarako trinketeetan 11:00etan hasiko da saioa eta hasierako agurraz gainera bi ofizio egin beharko dituzte guztiak. Ondoren, puntu gehien lortzen dituzten sei bertsolariak puntu-erantzun bat eta bakarkako bertsoa egin beharko dute. "Bertsolariontzat final luzea izango dela uste dut, parte hartzaile asko garelako; hala ere, giro ona izan-

go da, seguru, txapelketetan edo bertso udalekuean elkarrekin ibilitako lagunak gara eta. Ugartek eta biok, esaterako, Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolan jarduten dugu", dio Aranak.

Final lehiatua izango dela diote Debagoieneko bi ordezkariak. "Orokorrean, maila handia dago, baina nafarrak, bereziki, oso gogorak dira", dio Ugartek, eta zera gaineratu du Aranak: "Gozatzera goaz, sari polita delako finalera iristea, baina egingo ditugu ahaleginak txapela Debagoienara ekartzeko".

## EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

GOIENA TELEBISTA,  
EKAINAREN 15EAN, EGUENEAN, 21:00ETAN  
GONBIDATUA: UXOA ANDUAGA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena"  
ZU HEMEN ZAUDE





# Umoreak politika egiteko duen indarra eta boterea

Uxo Anduaga soziologoak iaz aurkeztu zuen 'HERRI BARREZ: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua' tesiaren laburpena egingo du ekainaren 15ean eguena, 21:00ean Goiena Telebistako 'EKT' –Euskal Kulturgintzaren Transmisioa– saioan

**Ubane Madera** ARRASATE

Uxo Anduaga soziologoa eta Aitziber Aranburuzabala Goienako kazetaria izango dira aurrez aurre, laugarren *EKT* –Euskal Kulturgintzaren Transmisioa– elkarrizketa saioan. Umorearen erabileraren inguruko solasaldia izango da oraingoa. Eguenean 21:00etan Goiena telebistan izango da ikusgai.

"Intuizio soziologikoak bultzatuta" aukeratu zuen umorea 2010ean abiarazi zuen tesiaren gaitzat. "Gaur egun hausnartuago dago zer den umorea, nola erabiltzen dugun euskaldunok, zerk ematen digun barregura eta zerk ez... Garai hartan, baina, bazegoen fenomeno oso arrakastatsua zen *Vaya Semanita*. Tesiari heldu nion, ikusi nuelarik bazegoela publiko bat ez ziola grazia handirik egiten eta irainduta sentitu zitekeena saioak helarazten zituen diskurtsoekin. Nolabait ikusi nuen hor bazegoela eztabaida bat, umorea zer



Uxo Anduaga soziologoa. GOIENA

den definitzeko orduan", dio Uxo Anduagak, laugarren *EKT* saioaren hasieran. Aurkezpen horretatik abiatuta, hamarkada ezberdinetako aldizkari, irratsaio eta telebistak aipatuta, gainbegiratu kronologikoa egingo dute,

euskaldunak irudikatzen diren ereduak eta moduak aztertzen.

## Marra gorria non dago?

"Politika dena da eta tranpa horretan eror gaitezke, baina nik umoreari kendu nahi nion gizartean duen ikuspegi hutsal hori, non ikusten dugun otzana dela eta libreki kontsumitu ahal duguna inolako ondorioz sortu gabe. Horri aurka eginez erabiltzen dut umorea-politika formula. Politika baino gehiago, akaso, abagune politiko bat, badelako esparru bat politika egiteko", azaldu du Anduagak tesian jasotako ondorio nagusiak laburbiltzeko.

Marra gorria non dagoen aztertzen ikuspegi askotatik begiratu dio Anduagak: herrialde baten identitateari; botereak dituen trikimailuei gustatzen ez zaion diskurtsoei zilegitasuna kentzeko... Horiek eta kontu gehiago, ordu erdiko iraupena duen eguneko solasaldian.

## 'Arantzazu Afrikarekiko topaleku' jardunaldia bihar

Izena ematea beharrezkoa dela azaldu dute antolatzaileek, plaza mugatuak daudelako

**Imanol Beloki** OÑATI

Zapatuan, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, 2017ko *Arantzazu Afrikarekiko topaleku* jardunaldia egongo da. Egun osorako egitaraua antolatu dute, 10:30etik 18:15era. Hala, elkarrizketaren, zinearen eta argazkiaren bidez, egun batez, Afrikarekiko topaleku bihurtuko da Arantzazu.

TAU fundazioak eta Arantzazuko Adiskideen Elkartek, Nafarroako Afrika Behar Beharrezkoa erakundearen laguntzarekin, ekainaren 10erako, zapa-

tua, 2017ko *Arantzazu Afrikarekiko topaleku* jardunaldia antolatu dute. Iñigo Odriozola TAU fundazioko teknikariaren esanetan: "Gizarteari Afrika ikusarazi eta gerturarazi nahi diogu, eta, horretarako, ekintza ezberdinak batzen dituen egitarau zabal antolatu dugu".

Programa horretan prestatutako ekintzen abiapuntu metodologikoak "entzutea, ikustea, ezagutzea eta partekatzea" izango direla jakinarazi dute antolatzaileek. Haien hitzetan: "Modu horretan, hain gertu eta, aldi

berean, hain urruti dagoen kontinente hau ezagutu ahal dugu, eta Europa eta Afrika artean dagoen desberdintasun egoera aldatzeko borondatea duen kontzientzia soziala areagotu".

10:30ean, *Soko Sonko* film labor afrikarra proiektatuko dute, aurkezpen gisa. Ondoren, *Ablaziotik bizitzara: Mitoak desegiten* hitzaldia eta elkarrizketa izango da, Fatima Djarraren eskutik. *Walking Africa* argazki erakusketa eta bisita gidatua egingo da, Arantzazu Hotelean bazkaria, eta, amaitzeko, *Price of love* filma proiektatuko da.

## Izen-ematea derrigorrezkoa

Jardunaldira joateko konfirmatzea beharrezkoa da: 635 74 05 97 telefono zenbakira deituz edo [tau\\_ss@taufundazioa.org](mailto:tau_ss@taufundazioa.org) posta helbidera idatziz.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko ekaineko zozketa!



#### Jokin Zaitegi sariketaren liburu euskaratua

Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak



#### Umeentzako jokoa Perretxiko zaindaria

Parte hartzeko sariaren izena: Perretxiko zaindaria



#### Sarrerak Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



#### Otarrea Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.


Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua

### UXARTE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntuak* aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Oñatiko Udalarri esker

*Maidar abeslariaren kontzerturako sarrerak ditugu.*

Gaztelekuan, Oñatin. | Ekainaren 16an, 22:30ean.

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "maider"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila gozatzeko...



Bazkidetu zaituz: 2017 (ekainetik aurrera): 30 euro. Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



OROIGARRIA

## Carmen Arrieta Arregi

2017ko ekainaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

*Bizitzari baiezkoarekin erantzun diozulako beti, mila esker!*

Arrasaten, 2017ko ekainaren 9an.



OROIGARRIA

## Carmen Arrieta Arregi

Edorta eta Goio Aranaren ama

2017ko ekainaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

# goiena

Goiena Komunikazio Taldea.  
Arrasaten, 2017ko ekainaren 9an.



OROIGARRIA

## Jesus Arregi Irastorza

2013ko ekainaren 7an hil zen.

*Hegoak ebaki banizkio  
nerea izango zen,  
ez zuen aldegingo.  
Bainan, honela,  
ez zen gehiago txoria izango.*

Antzuolan-Urretxun, 2017ko ekainaren 9an.



ESKER ONA



## Julia Garitano Iñurrategui

Felix Aseguinolaza Araizteguiren alarguna

2017ko ekainaren 3an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko ekainaren 9an.



ESKER ONA

## Jose Marzo Martinez

2017ko ekainaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko ekainaren 9an.



HILETA

## Milagros Letamendi Garai

Juan Mari Garairen alarguna

Oñatin hil zen, 84 urte zituela.

Seme-alabak: Agustin eta Maria Luisa Marin; Anton eta Lourdes Aldekoa; Arantzazu; Garbiñe eta Karlos Anduaga; ahizpak eta koinatuak: Ana Mari (†), Rexu eta Jabier Arregi (†), Tere (†) eta Jerardo Elortza; bilobak: Irati, Haritz, Oneka eta Aimar; ilobak: Jokin, Miren, Urdin eta Irantz; gainontzeko koinatu-koinata, iloba, lehengusu eta ahaideek

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta gaur, ostirala, 19:00etan, eta Oñatiko San Migel parrokian izango den hileta-elizkizunera etor zaitezela. Aldez aurretik, mila esker.

Gorpua Moyua Tanatorioan egongo da 11:00-13:00 eta 16:00-18:30 artean. Oñatin, 2017ko ekainaren 9an.



ESKER ONA

## Ion Murguzur Orueta

2017ko maiatzaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza larunbatean izango da, ekainaren 10ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.  
Aldez aurretik eskerrak bertaratutako zareten guztioi.

Oñatin, 2017ko ekainaren 9an.



ESKER ONA

## Maritxu Arregui Aramburu

Miguel Elorzaren alarguna


2017ko ekainaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2017ko ekainaren 9an.



URTEURRENA




## Carmen Oyarbide Acha

Esteban Echeverriaren alarguna

2016ko ekainaren 22an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza igandean izango da, ekainaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi, eskerrik asko, bere alabaren izenean.  
Bergaran, 2017ko ekainaren 9an.



## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 9	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 10	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 11	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 12	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 13	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguaztena, 4	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Eguena, 15	IRIZAR: Ercuñu 11 / 943 79 12 39
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 9	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 10	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 11	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 12	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 13	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 14	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 15	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 9	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 10	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 11	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 12	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 13	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 14	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 15	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

### ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



**maribi 617 44 21 55**  
**BERGARA**

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. AEDkoak Maulen**

Urdirarbeko Musika Egunaz gozatu eta Maulera bisita egiteko irteera egin zuten AEDkoek domekan. Bisitan, Zuberoako euskaltzaleak izan zituzten gidari.

**2. Aloña Mendi, Arantzazura bidean**

Aloña Mendiko kirol sail ezberdinetako taldeek Arantzazuko bizikleta igoera egin zuten zapatuan. Eguraldia lagun izan ez zuten arren, kide ugari bildu ziren.

**3. Bergarako festetan, amaierarik ez**

Larunbat goizean lagun asko hurbildu zen txosnagunera, gaupaseroen talde argazkia egitera. Gero, herriko kaleetara joan ziren –txarangaren laguntzaz– poteoa jarraitzera.

**4. Elgetarrak, Sendavivan**

Elgetako hamasei neska-mutiko joan ziren Nafarroako Sendaviva parke naturalera zapatuan. Herriko gaztelekuak bultzaturiko ekimena izan zen.

**5. Bikoteak egun handia du biharkoa**

Maite Amondarain eta Mikel Madinagoitia ezkonduko dira bihar, ekainaren 10ean, Oñatin. Bikotea zoriondu gura izan dute familiakoek eta lagunek: "Zorionak, bikote!".

**Kontatu, kontatu!**

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## #DIOTENEZ

**BERGARAN, LAPURRETAK**

Lapurreta asko izan dira Bergarako **jaietan**. Batetik, diru-zorro eta eskuko telefono ugari lapurtu dituzte. Udaltzainek **salaketa mordo**a jaso dituzte gisa horretako lapurreten eraginez. Bestetik, herriko **txosna batean** lapurrak sartu ziren larunbat goizaldean; ordurako itxita zegoen txosna. Xaxauk, Bergarako txosna batzordeak, gogor gaitzetsi du lapurreta.

Esaten den moduan, *abuztua* egina dute lapurrek.

**OÑATIKO GARAGARDO FESTA**

Azken urteetan lez, Aloña Mendik garagardo festa antolatatu du udarako. Zehatz esanda, uztailaren 13tik 16ra jarriko dute karpa. **Ekintza ugari** izango dira egun horietan. Besteak beste, eguraldi txarragatik atzeraturiko **Pilota Eguna** egingo da uztailaren 15ean.

**PABLO LASO, BERGARAN**

Bergarako hiruko saskibaloitxapelketaren **hamargarren edizioa** dela-eta, egitarau berezia prestatzen dihardu antolakuntzak. Tartean, **mahai-ingurua** egin gura dute; bertan parte hartzeko eskatu diote Pablo Lasori, Real Madril saskibaloitaldeko entrenatzaileari. Bada, Laso prest azaldu da bertan esku hartzeko. Oraindik ez dute ekintzaren eguna zehaztu.

**97KOEN KINTADA OÑATIN**

Hainbat urtez bazterrean utzita izan badute ere, aurtan, **1997an jaiotakoek** kintadari berrelduko diote Oñatin. Uztailaren 8rako finkatu dute hitzordua; **Trianako jaietan** egingo dute, beraz. Oñatin jaio eta kanpoan bizi direnak ez ezik, kanpotik Oñatira etorritakoak batu gura dituzte. Etxebarria jatetxean bazkalduko dute. Kintadara joan

nahi duenak ekainaren 18a baino lehen eman behar du izena.

**AIBA!-K, AMAIERA EDERRA**

Zapatuan egin zuten Aiba! martxa; eta **300** lagundik gora bildu zituen ekintzak. Ibilaldian, Arrasaten hasi, eta Aramaiori buelta eman zioten parte hartzaileek. Martxa **amaitzean**, osterara, oso gustura hartu zituzten Anton Zumaldek eta konpainiak eginiko **makarroiak**.

## ZORION AGURRAK



ONĀTI  
**Julen Sagastume Barrena**  
Ekainaren 14an, 5 urte. Zorionak, *bixito!* 5 urte jada! Muxu handi bat etxekoan partetik eta asko-asko maitte zaitugula, Julen! Mua!



ARRASATE  
**Danel Unamuno Errarte**  
Ekainaren 13an, 2 urte. Zorionak gure etxeko txikitxuari! Patxo handi-handi bat, familia guztia partetik. Segi horrela, Danel!



ARETXABALETA  
**Uxue Galdos Arrate**  
Ekainaren 12an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna. Zure gurasoen partetik, asko-asko asko maite zaitugu.



BERGARA  
**Naroa Garcia Urbiet**  
Ekainaren 12an, 3 urte. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat, etxeko guztien eta, bereziki, Maialenen partetik!



ANTZUOLA  
**Irati eta Aitor Mugica Barandiaran**  
Ekainaren 12an, 2 urte. Urte askotarako, bikote. Muxu handi bat, etxeko guztien eta, batez ere, lehengusina Ainar, Aitziber eta Eleneren partetik.



ONĀTI  
**Alaia Olabe Casais**  
Ekainaren 10ean, 2 urte. Zorionak, txiki! Horrelako saltsera izaten jarrai dezazula, familia guztia alaitzen. Muxu handi bat, denon partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



BERRIZ  
**Gorka Balseira Segovia**  
Ekainaren 11n, 3 urte. Arreba Zoeren eta izeba Usoa eta Ketyren partetik, zorionak eta ondo pasatu zure eguna. Muxu bat!



ANTZUOLA  
**Irati Soto Axpe**  
Ekainaren 8an, 4 urte. Zorionak, *printzes!* Muxu handi bat, etxeko guztion partetik eta primeran pasatu opariak zabalzen! Muxuak!



BERGARA  
**Auritz Laskurain Gabilondo**  
Osintxuko Auritzek, ekainaren 5ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu eguna. Etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Ametz Urribesalgo Uzin**  
Ekainaren 5an, 3 urte. Zorionak txapeldun! Segi orain arte bezala, alaitxu. Aitaxo, amaxo eta Izar, Ekaitz, Oier eta Eleven lehengusu-lehengusinak.



ONĀTI  
**Irene Aranburu Onaindia**  
Ekainaren 9an, 8 urte. Zorionak eta mosu handi bat gure etxeko printzesiari, bere zortzigarren urtebetetziaren. Etxeko danon partetik.



ARAMAIO  
**Hegoa eta Ander Bengoa**  
Ekainaren 8an, 7 urte. Zorionak, aitaxo eta Hegoa! Ekaina ospakizunez betia daukou gero! Ondo pasatu zuen eguna eta elkarrekin ospatuko dogu nunbait, laurok elkarrekin... Patxo erraldoi bana, Ilargiren eta amaxoren partetik! Muaka!



ONĀTI  
**Izaro Zelaia Altube**  
Ekainaren 8an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Jada 7 urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat, asko gura dun danon partetik!



BERGARA  
**Ander Txurruka**  
Ekainaren 6an, 4 urte. Zorionak, Ander! Muxu handi-handi bat, danon partetik!



ONĀTI  
**Maren Agirre Zoilo**  
Ekainaren 6an, 11 urte. Zorionak, Maren, 11 urte! Asko dira, eh! Zorionak etxekoan eta, bereziki, Izaroren partetik. Jarraitu zaren modukoa izaten.



ONĀTI  
**Natale Orueta Santos**  
Ekainaren 6an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat, familia danaren eta, bereziki, zure anaia Peruren partetik!



BERGARA  
**Alazne Murgiondo Kortabarria**  
Ekainaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Alazne! Bost belarri tirakada jada! Ondo pasatu etxeko guztion eta, batez ere, Naiaren partetik. Muxu handi bat!



ARETXABALETA  
**Maialen Gallo Areco**  
Ekainaren 5ean, 7 urte. Zorionak gure etxeko panpintxoari! Jainkoak lagun zaitzala beti! Gurasoak, Elias eta aitaita-amamak.



BERGARA  
**Elene Bolinaga Arregi**  
Ekainaren 4an, 9 urte. Zorionak etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Ekaitz Calvo Urdanpilleta**  
Ekainaren 3an, urtebete. Zorionak, maitxia! Urtetxo bat jada! Patxo handi bat, aitaxoren eta amaxoren partetik.



ARRASATE  
**Jon Arroyo Zubia**  
Ekainaren 3an, 4 urte. Zorionak, maittia. Oso ondo pasatu eguna eta jarraitu horrelakoa izaten. Maite zaitugu. Familixaren partetik, muxu handi-handi bat.



ONĀTI  
**Hegoi Zumalde Irزابال**  
Ekainaren 2an, urtebete. Zorionak etxeko txikitxuari, etxeko danon partetik.



ONĀTI  
**Luken Beltran de Guevara De Miguel**  
Ekainaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Luken! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi-handi bat.



ARETXABALETA  
**Aimar Basabe Arkauz**  
Maiatzaren 30ean, 9 urte. Mila kilo zorion eta urte askotarako, Aimar!

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 9

### ELGETA 'Ipuinen ordua'

Elgetako ipuin kontalari boluntario taldearen eskutik, bi saio: 5 urteko gelatik gorakoak 16:40an eta 2-4 urteko gelakoak 17:25ean. Oporren aurreko azkena.

*Liburutegian, aipatutako orduetan.*

### ARETXABALETA Hontza Extrem abentura parkera irteera

Gaztetxoendako ekintza.  
Gaztelekuan, 16:45ean.

### OÑATI Odola emateko deialdia

Emailerri berriei egin diete dei.  
*Enpresagintzan, 17:00etan.*

### OÑATI Eskola kiroleko azken jaiak

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko ikasleendako sari eta opari banaketa ekitaldia.  
*Zubikoan, 17:30ean.*

### OÑATI Pintxo-pote solidarioa

Hotz Oñatiren eskutik.  
*Foruen plazan, 17:30ean.*

### OÑATI 'Ermitaz ermita' kontzertua

Ganbara Txikiren kontzertua.  
*Araozteko parrokiari, 19:00etan.*

### ARETXABALETA Musika eskolako taldetxoaren emanaldia

Leizarra musika eskolako konboen eta gitara-joleen kontzertua.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

### BERGARA Mahoneroen jaiak

Karparen irekierarekin hasiko dituzte aste bukaerako ospakizunak. Informazio osoa Bergarako orrietan.  
*Hainbat gunetan.*

### BERGARA Dantza eta musika ikuskizuna

Bergarako musika eskolakoekin. 6 urtetik gorako 50 dantzari, hamazazpi musikari eta ahots bakarlaririk batek parte hartuko dute.  
*San Martin plazan, 22:00etan.*

### OÑATI Joxe Replay, Kimera eta Kop taldeak

Olakua auzoko jaietako kontzertua.  
*Olakuan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 10

### OÑATI Debagoieneko Gurutze Gorria ezagutzeko jardunaldia

Askotariko ekintzak.  
*Foruen plazan, 08:30ean.*

### ESKORIATZA 'Jose Aranaren altxor ezkutua'

Bisita gidatua. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus) edo 943-79 64 63.  
*Ibarraundin, 12:00etan.*

### OÑATI Corpuzetako eskubaloia txapelketa

Infantil mailako selekzioaren arteko XI. txapelketa, Aloña Mendiren eskutik.  
*Zubikoan, 09:30ean.*

### ARAMAIO Hockey torneoa

*Maidar Unda olinpiadetako ekintza.*  
*Pilotalekuan, 09:30ean.*

### OÑATI Bizkarreko osasuna hobetzeko tailerra

Aurrez izena eman behar da, kiroldegian.  
*Zubikoan, 10:00etan.*

### ANTZUOLA 'AKE Eguna'

10:30ean futbol eskolako partiduak; 12:30ean karro-poteoa; 14:30ean herri bazkaria; 17:00etan sari banaketa; eta 19:00etan kontzertuak.  
*Hainbat lekutan, aipatutako orduetan.*

### OÑATI 'Arantzazu Afrikarekiko topaleku'

Egun osoko egitaraua, TAU fundazioaren eta Arantzazuko Adiskideak elkartearen eskutik. Informazio osoa Debagoieneko orrietan.  
*Gandiaga Topagunean, 10:30ean hasita.*

### ARRASATE Kirola Kalera Eguna

Herriko kirol taldeek euren jarduna herritarrekin partekatuko dituzte, askotariko lekuetan. Informazio osoa, Arrasateko orrietan.  
*Hainbat lekutan, 10:30ean.*

### OÑATI Olakuako jaiak

Haurrendako jolasak eta talo tailerra, Oñatzearen dantzaldia,

txorimaloen kalejira eta Joxelu Anaiak taldearen kontzertua, besteak beste.  
*Olakuan.*

### ESKORIATZA Luis Ezeizan ospakizunak

Ikasturte amaierako jaiak: 11:00etan ikasleendako ekintzak, 14:00etan bazkaria eta 15:30ean apar festa, puzgarriak eta disko festa.  
*Fernando Eskoriatza plazan, aipatutako orduetan.*

### BERGARA Koldo Elizalde lehiaketako sari banaketa ekitaldia

23. lehiaketako sariak banatuko dituzte.  
*Pilotalekuan, 12:00etan.*

### OÑATI Araozteko jaiak

Trinitate jaiak: 13:00etan meza; 14:00etan bazkaria bertsolariarekin eta trikitilariarekin; 17:00etan umeendako jolasak eta txokolate-jana; 20:00etan bola joko txapelketa; eta 21:30ean afaria.  
*Araozteko, aipatutako orduetan.*

### OÑATI Gipuzkoako futbol entrenatzaileen eguna

14:00etan harrera eta luntxa; 14:30ean bazkaria; eta, ostean, denboraldiko sarien eta aipamenen banaketa. 110 lagun elkartzeko dira ekitaldian.  
*Arantzazuko Santutegia Hotelean, aipatutako orduetan.*

### ARRASATE Sanjuanetako kamisetak sortzeko tailerra

Gaztetxoendako ekintza.  
*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

### ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra

Gaztetxoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARRASATE Goikobalua abesbatzaren kontzertua

Ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute.  
*San Frantzisko elizan, 20:00etan.*

### LEINTZ GATZAGA 'Un ciprés en un desierto' antzezlan

Gasteizeko Zurrunka taldearekin, helduendako antzerkia. "Heriotzatik



IMANOL SORIANO

### ARRASATE Perlata eta Los WC taldeak

Doinu gogorrak, Arrasateko bi talderekin. Perlatak (irudian) rock doinuak erakutsiko ditu, taldearen ohiko janzerak lagunduta. Los WCk, berriz, punk doinuekin girotu ditu zaleak. Sarrera, doan.  
*Bihar, zapatua, Arrasate tabernan, 19:00etan.*

bizitzara" arteko begirada egingo dute Eñaut Gorbeak eta Mikel Larreak. Sarrera, doan.  
*Parrokian, 20:00etan.*

### ESKORIATZA Gabez Takarraran

Helduen lasterketak 23,2 kilometro ditu eta gazteenak, bederatzi.  
*Herriko plazan, 23:00etan.*

## DOMEKA 11

### OÑATI Aizkorri-Aratz parke naturalean mendi irteera

Iturrigorri-Urba-Elorrola-Parketxea ibilaldia egingo dute. Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94.  
*Parketxean, 08:30ean.*

### ARRASATE Auto klasikoen erakustaldia

Goiena Classic Club taldekoekin.  
*Arruena parkean, 09:30ean.*

### OÑATI Araozteko jaiak

Meza (10:30), auzoko gazteen arteko lehia (12:00) eta trikitilariak (13:00).  
*Araozteko, aipatutako orduetan.*

### ELGETA Arizkunera irteeran izena emateko azken eguna

Gaur da azken eguna, Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:00etara.  
*Izen-ematea, aipatutako lekuan eta orduan.*

### BERGARA Txistulari bandaren kalejira eta kontzertua

Biak ala biak, San Antonio auzoan.  
*Aipatutako lekuan, 11:00etan.*

### OÑATI Aloñako gimnasten erakustaldia

Ikasturte bukaerako ekitaldia egingo dute.  
*Zubikoan, 12:00etan.*

### ANTZUOLA 'Antiguako ermita eta Antzuolako erdigunea'

Bisita gidatua. Aurrez eman behar da izena: [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus) edo 943-79 64 63.  
*Antiguako ermitan, 12:00etan.*

### OÑATI Olakuako jaiak

Meza, herri kirolen erakustaldia, haurrendako tailerrak, mus txapelketa eta Gaitzerdi eta Trikimailu taldeen erromeria.  
*Olakuan, 12:00etatik aurrera.*

### ESKORIATZA 'Vince pong' txapelketa

Gaztetxoendako ekintza. Ping-pongaren eta tenisaren nahasketa da *vince pong*-a.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

### ARRASATE Sanjuanetako kamisetak sortzeko tailerra

Gaztetxoendako ekintza.  
*Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.*

### ARETXABALETA Beldurrezko pelikula

Gaztetxoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

### BERGARA 'Bergara Hiria' lehiaketako erakustaldia

Gaur da azken eguna.  
*Aroztegin, 18:00etan.*

**OÑATI Skippers, Burning Heads eta Berri Txarrak taldeak**  
Ez dago sarrerarik.  
*Gaztelekuan, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 12

**BERGARA Otoitzaldia**  
Jon Molina parrokoak gidatuta.  
*San Antonio elizan, 16:00etan.*

**ARETXABALETA Gitarra emanaldia**  
Leizarra musika eskolako ikasleak.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Klarinete emanaldia**  
Arrasate Musikaleko ikasleak.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Suzuki' metodoari buruzko batzarra**  
Amaia Garro irakasleak emango ditu azalpenak.  
*Musika eskolan, 19:30ean.*

## MARTITZENA 13

**BERGARA San Antonio Eguna**  
11:00etan meza ermitan, 12:00etan San Xosepe abesbatzaren emanaldia eta 12:30ean luntxa Gure Ametsa elkartearen.  
*San Antonion, aipatutako orduetan.*

**ARAMAIO San Martin eskolako ikasleen antzerkia**  
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko ikasleen emanaldia.  
*Eskolan, 14:15ean.*

**ARETXABALETA Gitarra emanaldia**  
Leizarra musika eskolako ikasleak.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Munduko jolasak**  
Aste Zapatistako ekintza. Ekitaldi nagusia hilaren 18an egingo dute.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ELGETA EH Bilduren herri batzarra eta afora**  
Bi urte betetzen dira koalizio ezkeriak udal hauteskundeak irabazi eta alkatetza hartu zuela. Hori ospatzeko elkartzeko dira.  
*Udaletxean, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 14

**BERGARA Kafe Konpon**  
Etxeko tresnak konpontzeko tailerra.  
*San Xoxepen, 16:00etan.*

**ANTZUOLA Gimnasia erritmikoko erakustaldia**  
Ikasturte bukaerako ekitaldia.  
*Frontoian, 17:00etan.*

**OÑATI 'Landara exotikoak gure baratzetan' tailerra**  
Furgobaratzekoek formazio saioa egingo dute.  
*San Martingo ortuetan, 18:00etan.*

**ELGETA Konpostari buruz berbetan**  
Luar Ingurumena enpresako Joseba Sanchezen berbaldua.  
*Udaletxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Txotxongilo emanaldia**  
Bihar taldeak *Karolino eta printzesaren bahiketa* saioa.  
*Santa Kurtzeko plazan, 19:00etan.*

## EGUENA 15

**ARAMAIO 'Mannequin challenge'-a**  
San Martin eskolako ikasleek.  
*Eskolan, 14:15ean.*

**ARETXABALETA 'Mandalak harrietan' ikastaroa**  
Idoia Elexpuru izango da irakaslea.  
*Udaletxe zaharrean, 17:30ean.*

**ELGETA Konpostguneetara bisita**  
Herriko guneetara.  
*Mendizaleen plazan, 18:00etan.*

**ARRASATE Trikiti eskolaren jaiak**  
Ikasturte bukaerako emanaldia  
*Amaia antzokian, 18:30ean.*

**ARAMAIO 'Antzinako argazkiak ondare dokumentu bezala'**  
Jabier Soto Madrazoren eskutik.  
*Sanstianan, 19:00etan.*

**OÑATI Egur Haize taldearen kontzertua**  
Corpusetako ekintza.  
*Portu kaleko plazan, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

AMAIA  
ANTZOKIA

**Piratas del Caribe**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Ardiak eta otsoak (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**Norman, el hombre que lo conseguia todo**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

COLISEO

**La momia**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El caso Sloane**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Goodbye Berlin**  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Nu y el templo del dragon**  
Zapatua: 17:00.

**La momia**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Nur eta herensugearen tenplua**  
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

FLORIDA

**La momia**  
Egubakoitza eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Michelangelo**  
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Capitan calzoncillo**  
Zapatua eta domeka: 12:00.  
Egubakoitza eguena: 16:45, 18:35, 20:30.

**Nur y el templo del dragon (euskaraz)**  
Egubakoitza eguena: 16:45.  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Marie Curie**  
Egubakoitza eguena: 20:30, 22:30.

**Ovejas y lobos (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**American pastoral**  
Egubakoitza eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**El bebe jefazo**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Orbita 9**  
Egubakoitza eguena: 22:30.

**Piratas del Caribe**  
Egubakoitza eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Richard, la cigüeña**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El sueño de Grabielle**  
Egubakoitza

eguenara: 17:30, 20:00, 22:30.

**Dos colegas al rescate**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Testigo**  
Egubakoitza eguena: 16:45, 20:45, 22:30.

**Paula**  
Egubakoitza eguena: 18:30.

**La promesa**  
Egubakoitza eguena: 17:00, 22:30.

**El caso Sloane**  
Egubakoitza eguena: 19:45.

### BOULEVARD

**La momia**  
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.  
Egubakoitza eguena: 16:00, 18:15, 20:00, 20:30, 21:45, 22:45.

**La momia 3D**  
Egubakoitza eguena: 22:15.

**Capitan calzoncillos 3D**  
Egubakoitza eguena: 16:00.

**Capitan calzoncillos**  
Egubakoitza eguena: 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.

**Un policia en apuros**  
Egubakoitza eguena: 16:10, 18:20, 20:35, 22:45.

**Piratas del Caribe 3D**  
Egubakoitza eguena: 17:15.

**Piratas del Caribe**  
Egubakoitza eguena: 16:00, 18:35, 21:10.  
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.  
Egubakoitza eguaztena: 19:50, 22:25.

**Richard, la cigüeña**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00.

**Z, la ciudad perdida**  
Egubakoitza eguena: 19:00, 22:00.

**Me case con un boludo**  
Astelehenetik eguena: 16:45.

**Alien: covenant**  
Egubakoitza eguena: 16:40, 22:10.

**Guardianes de la galxia**  
Egubakoitza eguena: 19:15.

**El caso Sloane**  
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.

**Los pitufos**  
Egubakoitza eguena: 15:45.

**Dejame salir**  
Egubakoitza eguena: 17:40, 19:50, 22:00.  
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.

**El bebe jefazo**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 16:30.

**La promesa**  
Egubakoitza eta zapatua: 00:05.  
Egubakoitza eguena: 18:35, 21:20.

**El circulo**  
Egubakoitza eguena: 16:15.

## KRITIKA

**Clash** ★★★★★

**Zuz.:** Mohamed Diab. **Herr.:** Egipto (2016). **Aktoreak:** Nelly Karim, Tarek Abdel Aziz, Ahmed Malek.

## Giro itogarria

**ANTONIO ZABALA**

*Clash* pelikulan Egiptoko egoera asalagarria islatu nahi da. Filma poliziaren furgoi baten gertatzen da. Klean errebolta daude, talde desberdinen manifestazioak eta poliziaren aurkako erasoaldiak. Hori dela eta, furgoiak jendez betetzen joango da. Hasieran, bi kazetari, eta, poliki-poliki, adin, pentsaera politiko eta maila sozial ezberdinetako pertsonak agertuko dira. Horrela, furgoiaren, Egiptoko egoera politikoa eta soziala erakutsi nahi da. Pertsonak barruan pilatuta, eta furgoiako leihatila desberdinetatik ikusiko dugu klean gertatzen ari dena. Horrek barruko tentsioa handitu egingo du. Momentu askotan, beldurra pasako dute eta euren bizitzak arriskuan egongo dira. Mesfidantzak sortuko dira talde desberdinen jarraitzaileen artean. Baina



20 MINUTOS

istorioa eta egoera aurrera doan neurrian, denok gizakiak garela eta askotan gure beharrak eta afektibitate-loturak antzekoak direla ikusiko dugu. Furgoiak giroa itogarria da: leku txikian jende asko, kanpotik sentitzen den presioa, beroa, egarria, behar fisiologikoak... Azken finean, beharrak pertsonen

arteko tirabirak eta laguntzeko nahia ekartzen ditu. Diab zuzendariak sinesgarritasunez kontaktatzen dizkigu furgoiak gorabeherak.

Istorioak ez du askorik sakontzen pertsonaien barnean, batez ere, filmak une horietako giro itogarria deskribatzen duelako.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Bidegi ereduaren onurak

Azken urteotan Ezker Abertzaleak EAJren aurka erabili du Bidegiren egoera ekonomiko txarraren errelatoa ez da inoiz bat etorri errealtatearekin baina sozietatearen izena zikintzeko nahikoa izan da. Aurrera begiratu beharra daukagu zentzu gabeko liskar politikoak atzera utziz honek mesede egingo baitio Bidegiri, eta batez ere gipuzkoarrei. 2003an sortu zen sozietatea Gipuzkoako autobideak kudeatu, mantenDu eta gaitasun handiko errepide sarea osatzeko. Erabiltzaileek ordaintzen dutena errepide horiek mantentzeko eta hobetzeko erabiltzen da eta honi esker egin dira AP-1 edo Donostiako Ingurabidea. Eredu honekin kanpotar guztiak ordaintzen dute gure autobide sarearen hobekuntza eta eraikuntza. 2016ko auditatutako kontuen arabera ia 23 milioi euroko deskontua egin zaie gipuzkoarrei, iaz baino 5 milioi gehiago eta laguntza hau hilabete batzuk barru Bizkaia eta Arabara egingo ditugun joan-etorrietara zabalduko da. Gipuzkoa eredugarria da errepide kudeaketan baina gipuzkoarrok askotan gure arteko liskarra gure onuraren aurretik jartzeko ohitura dugu. Honetan badaukagu besteengandik zer ikasia.

BUKATZEKO

# 'Merkatari' aplikazioa: gertutasuna poltsikoan

Arrasaten martxan jarriko dute herriko komertzioa bultzatu eta bezeroen eta merkatarien arteko fideltasuna indartzea helburu duen mugikorrerako erreminta berria. Datorren asterako aurkezpen saio irekiak antolatu dituzte Kulturaten

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

*Merkatari* komertzio txikiekien gertutasuna bilatu nahi duen mugikorrerako aplikazioa aurki jarriko dute martxan Arrasaten. Goiena Komunikazio Taldeak eta ISEA Berrikuntza Zentroak jarri dute abian proiektu hori, Arrasateko Udalaren laguntzarekin.

Hausnarketa prozesu baten ondorio da *Merkatari* aplikazioa. Internetek eta teknologia berriek, oro har, kontsumitzaileen ohi-turetan gero eta pisu handiagoa duten honetan, teknologia berori herriko komertzio txikien zerbitzura jartzea du helburu *Merkatari*-k. Noski, enpresa handien tresna berak erabilia, nekeza da haiekin lehiatzea. Hortaz, denda txikien ezaugarrietara egokitutako tresna bat prestatu dute, herriko dendek besteen aurrean duten abantaila, gertutasuna, balioan jartzea bilatzen duena. "Bezeroekin fideltasuna sakontzeko erreminta da", azaldu du ISEAko Juan Mari Okinak.

Hala, aplikazioaren funtzionaltasun nagusietako bat bezeroen eta dendarien arteko zuzeneko komunikazioa ahalbidetuko duela izango da, eta mezula-



Aplikazioaren funtzionaltasun nagusietako bat mezularitza zerbitzua da. GOIENA

ritza zerbitzu bat izango du txertatuta.

"Ekonomia lokal txikia daukagu, eta berau mantentzeko guztiok jarri behar dugu gure alea. Herriko komertzioak oso garrantzitsuak dira, merkatariek herria dinamizatzen baitute, lanpostuak sortzen dituzte... azken finean, bizia ematen diote herriari", adierazi du Okinak.



Raul Uriarte, Goienako komertziala. M.T.

Hortaz, jendea animatu nahi izan dute aplikazioa deskargatu eta bertako komertzioaren aldeko apustua egitera.

Arrasate izango da *Merkatari* estreinatzen lehendabiziko herria. "Azken sei hilabeteetan hamar bat komertzioekin esperientzia pilotua burutu dugu, eta orain, herrira zabaltzeko ordua da", dio Okinak.

Ezarpeneren jarraipena

Herrian ezartzea lehen urratsa da, baina hasierako fase horretan bultzatzaileek jarraipena egingo diote, "ziurtatzeko herri-tarrek ulertzen dutela eta dendariak ere erabiltzen dutela". Tresna erabilerraza dela azaldu dute, baina hasierako zalantzak argitzeko informazio saioak izango dira eta dendariekin formazio pertsonalizatua landuko dute.

Jarraipen horren ondotik, tresna bera eraginkorrago egiteko lanean jarraituko dute: "Pixkanaka, hainbat arlo gehiago jorratuko ditugu, funtzionaltasun gehiago ezarriaz eta hobekuntzak txertatuz".

Informazio saioak

Datorren astean, aplikazio horren erabilerari buruzko bilera irekiak egingo dituzte Kulturaten, dendariei zuzenduta, baita edozein herritarri ere. Aurkezpen saio horiek hilaren 13an, 14an eta 15ean izango dira, 14:30ean.

Horrez gain, merkatariei behar dutenean laguntzeko lanean arituko da Goiena Komunikazio Taldeko Raul Uriarte komertzial arrasatearra. Aholkularitza eta formazio pertsonalizatua izango dute Arrasateko merkatariek Uriarteren eskutik.

**arizmendi ikastola PRO** *konfiantzaz* **Zure Lanerako Bidea**  
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa  
AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 5etik 16ra  
→ TAFYD → Mikroinformatika  
→ Erizaintzako zaintza osagarriak → Osasun larrialdiak  
943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus  
www.arizmendipro.eus